

ttipi-ttapa



Euskararen aldeko aldarriak karrikara atera dituzte Harrotze Astean / 14

Malerrekako Eguna maiatzaren 25ean Saldiasen eginen dute / 30



Txirrindularitza profesionala utzi du Ibai Azurmendi leitzarrak / 50

SINADURAK



ZOZKETA / 60



«EA AGERIAN GELDITZEN DEN EMAKUMEAK ZEINEN GARRANTZITSUAK IZAN GAREN BASERRI MUNDUAN»

Leitzako 40 emakume artzain omenduko dituzte maiatzaren 19an plazan, eta tartean izanen da Lurdes Sorron Lizaso. Bere bizipenak kontatu dizkio TTIPI-TTAPARI. / 34

Aitatasuna hizpide

Eskualdeko zazpi aiten lekukotasunak bildu ditu TTIPI-TTAPAK. / 10



JAKINARAZTEN DA: Hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzuengatik 2024ko 1. urterdiari dagozkion tasak kobratuko direla, ondoren adierazten den bezalaxe

2024ko TASAK

ERABILTZAILAILEN eta TASEN MAILAK

KONTZEPTUA	BILKETA TASA €/urteko	TRATAMENDU TASA	KONTZEPTUA	BILKETA TASA €/urteko	TRATAMENDU TASA		
ETXEBIZITZAK			LANDETXEAK				
Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi ala ez	93,62 €	Nafarroako Hiri Hondakinen Tratamendurako Partzergoa. 2023ko azaroaren 26ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua. 247 zk	6 toki edo gutxiagokoak.	95,14 €	Nafarroako Hiri Hondakinen Tratamendurako Partzergoa. 2023ko azaroaren 26ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua. 247 zk		
Zaborrontzia 200 metrotik 500 metrora dauden baserriak	79,58 €		Zaborontzia 200 metrotik 500 metrora dauden landebeak	80,88 €			
Zaborrontzia 500 metrotik gora dauden baserriak	65,54 €		Zaborontzia 500 metrotik gora dauden landebeak	66,60 €			
MERKATARITZA ETA ZERBITZUAK			6 toki baino gehiagokoak.				
Elikagaien eta etxebesna sektorekoak ez direnak: mertzeriak, drogeriak, burdindegia, okindegiak, ile-apaindegia, lan bulegoak. Eraikin publikoak	95,14 €		Zaborontzia 200 metrotik 500 metrora dauden landebeak	161,82 €			
Elikagai dendak (harategiak, arraindegia, janari-dendak), elektropaiu dendak eta farmaziak	186,74 €		Zaborontzia 500 metrotik gora dauden landebeak	133,28 €			
Autozerbitzuak	284,82 €		HOSTALAK				
OSTATUAK			Hamar logela edo gutxiagokoak.	664,26 €		Nafarroako Hiri Hondakinen Tratamendurako Partzergoa. 2023ko azaroaren 26ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua. 247 zk	
Noizbehinka irekitzen diren ostatu eta biltegiak eta jarraian irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m ² ko edo gutxiagoko azalera dutenak	189,80 €		Hamar logela baino gehiagokoak	949,20 €			
30 m ² baino azalera handiagoko ostatuak eta janari-denda daukaten ostatuak	379,94 €		MERKATARITZAKO SALTOKIAK				
Pub eta diskotekek	474,62 €	Opariak bakarrik saltzeko	474,02 €	Nafarroako Hiri Hondakinen Tratamendurako Partzergoa. 2023ko azaroaren 26ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua. 247 zk			
JATETXEAK			Janari-dendak edo ostatudunak		949,20 €		
Modu iraunkorrean irekiak dauden elkarre gastronomikoak, eta bertz mahai edo gutxiago dituzten jatebeak	474,62 €	Jatebeak	1.423,92 €				
Bortz mahai baino gehiago dituzten jatebeak	854,66 €	LANTEGIAK					
		4 langile bitarte. Jarduerak: argiketariak, iturginak, pintoreak...	95,14 €		Nafarroako Hiri Hondakinen Tratamendurako Partzergoa. 2023ko azaroaren 26ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua. 247 zk		
		5-10 langile bitarte	189,80 €				
		11-30 langile bitarte	474,62 €				
		31-60 langile bitarte	949,20 €				
		61-150 langile bitarte	1.423,92 €				
		151-300 langile bitarte	2.698,02 €				
		300 langile baino gehiagorekin	3.976,70 €	Nafarroako Hiri Hondakinen Tratamendurako Partzergoa. 2023ko azaroaren 26ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua. 247 zk			
		ZERBITZU BEREZIAK					
		Norberaren erabilerarako edukiontzia	922,44 €				

Ordaintzeko era

Ordaintetako banketxeetan helbideratuta ez dituztenek: Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordaintzea, nahi den banketxetik, aipatutako abisua aurkeztuz.
Ordaintetako banketxeetan helbideratuta dituztenek: Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

Ordaintzeko epea

- 2024ko maiatzaren 31n bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2024ko ekainaren 30era arte luzatuko da. Luzapen horri dagozkion interesa aplikatu ahal izango da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekaraguarekin kobratuko da.



NIRE TXANDA

MAIALEN IANTZI DANBORIENA

Etorkizuneko alabak

Munduko leku anitzetan, haurdun dauden amek nahiago dute tripa barnean duten haurra mutila izatea. Ez hala izanda gehiago maiteko dutelako, baizik eta badakitelako beraien semeek alabek baino bizitza errazagoa izanen dutela. Ama hauek beraien azaletan sufritutakoa, etorkizunean mundura etorriko direnek sufritzearen beldur dira. Adibide garbi anitz daude; ablazioa jasaten duten Afrikako umeak, 60 urteko gizonekin ezkontzera kondenatutako neskatilak, ikasteko eskubidea kendu zaien neskek, prostituitzera derrigortutako nerabeak, bortxatutako gazteak, bahitutako emakumeak, burka baten azpian bizitzera kondenatutako emazteak, bertze 3 emazterekin batera senarraren ohatzea berotu behar izaten dutenak, tratu txarrak jasan dituzten amatxiak... Urteak joan eta urteak etorri etsigarria da gizakiek sortutako injustiziek hor segitzen dutela ikustea. Munduko emakume guztiek izan beharko genuke sabelean dugun alabaren etorrera desiratzeko eskubidea.

«ETSIGARRIA DA
INJUSTIZIEK HOR
SEGITZEN DUTELA
IKUSTEA»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Zubiak zeharka, solasa izan

Iruñera, Donostiara edo Irunera joandakoan (zenbaitzutan hurbilago ere) sinestezina badirudi ere, bizilagunen % 70a baino gehiago euskalduna duten 175 udalerrri inguru badira Euskal Herrian. Larunbatean topo eginen dute Lesakan. Egun horretarako prestatu duten *Solasa izan* kantuak dioen bezala, *paisaiarik ederrena mingainaren puntan dugu*.

NABARMENTZEKOAK



GABRIEL
ERRANDONEA
ABELTZAINA



ANDREA
MINDEGIA
JUDOKA

Berako Nabasturen baserriko Gabriel Errandonea abeltzaina saritu du CPAEN/ NNPEK erakundeak. *Abeltzaintza ekologikoari eskainitako bizitza osoa* saria eman diote.

Andrea Mindegia Iribarren Doneztebeko judoka da Nafarroako judo txapelketa egokituko txapelduna. Bigarren ezin dute lehia, eta bietan izan da irabazle doneztebarra.

GIBELERA BEGIRA



2014-05-16 · TTIPI-TTAPA · 614zk.

Heriotza ere hurrekin lantzeko

Heriotzaren gaia hurrekin nola landu. Horixe izan zen duela 10 urte 614. aldizkariko erreportajeko gai nagusia. «Ume batekin heriotzaz solastatzea gogorra eta zaila bada ere, ahalik eta agudoen egitea komeni da. Hasierako dramatismo eta nahaste orduak pasatuta, momentu eta toki egokia bilatu eta gertatutakoa hitz simple eta zintzoekin esplikatu behar da», azaldu zuten gaian adituak diren Mirentxu Goienetxe eta Ainhoa Arburua psikologoek. Are gehiago, haurra beilatokira, hiletara... joateko animatu behar dela zioten: «Gisa honetako ekintzek heriotza zen den ulertzen lagun diezaioke eta doluaren prozesua hobeki hasten lagundu. Hori bai, aukera baldin bada, zer ikusi, zer entzun eta erritu horien zergatia aitzinetik azaltzea ere komeni da».

 ttiipi-ttapa

erran.
eus

TOKIKOM



Argitaratzailea

Tiipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttiipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Berriemaileak

Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantza Etxeberria, Iraia Jaurena,
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantza
Iturralde, Arantza Gamio, Jaione
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberrigarai, Maialen
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea

Paskual Rekalde

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko
udalak, Malerrekako Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2024ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerrekako	47€
Leitza	40€
Hego Euskal Herria	50€
Ipar Euskal Herria, Europa	110€
Amerika eta Australia	155€

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua





KOLABORAZIOAK

IRATXE MUXIKA KARRION

Betiko bezeroei

Bezero mota anitz etortzen dira gurera, gurera eta gainerako ostatueta, segur aski. Horixe da, bertzeak bertze, ostatu-giroak lortzen duena: jende (ustez) hagitz desberdinaren arteko harreman estua. Ostatuak, dena dela, harremanak eraikitzeo aukera emateaz gain, gauza anitz irakatsi dizkit niri, nahiz eta zaila zaidan banan-banan haien zerrenda bat egitea. Kontua da guk ez dugula aspertzeko tarterik izaten eta, atetik sartzten diren bezeroek, oro har, beti izaten dutela eskaintzeo zerbait.

Gurera etortzen dira ortziralero galdetzen dutenak ea maionesarik gabeko pintxorik existitzen ote den etxe honetan, karta buruz jakinda ere goitik beheitiraino irakurtzen dutenak, karta behin ere ikasten ez dutenak, sukaldera gurekin egotera etortzen direnak, barrako xoko batean gelditzen direnak, negu gorrienean ere terrazan egoten direnak, afaldu eta gero mahaia garbitu egiten dutenak, barraren kanpoaldetik esku bat luzatu eta azeituna bat hartzen dutenak, zenbat zor duten abisatzen dutenak, postrearen bila etortzen direnak, gurea toki elegantea dela sinesten dutenak, gurea desastre ordenatua (edo ez) dela baieztatzen dutenak, seietan puntuan atean egoten direnak noiz irekiko zain, ireki gabe sartzten direnak, zerbitzaririk

«BEZEROEK BETI IZATEN DUTE ESKAINTZEKO ZERBAIT»

gabeko barraren aitzinean bortz minutu esperoan egoten direnak badakitelako ondoan kafea hartzen ari den bezeroa noizbait sukaldera sartuko dela guri abisua ematera, beranduegi egin zaielako ogia erostera

etortzen direnak, iritzia galdetzeraz etortzen direnak, pilota partiduak edo bertso saioak ikustera etortzen direnak, etxeko platera zein den galdetu ondotik *xolomoa* eskatzen dutenak, badakitenak karta jokoak ez dituela berrogei karta baina hala ere jolasteko hautua egiten dutenak, frijituak edo errazioak zeinen onak diren errepikatzen dutenak, *ez duzu itxiko ez?* galdetzen dutenak ostatu hutsari begira, eskatu dutenaren kontrakoa aterata ere platerakoa isil-isilik jaten dutenak, saltsak aparte eskatzen dituztenak, bisitan etortzen direnak, nagusia non den galdetzen dutenak, afalaitzinean eta afaldu ondotik etortzen direnak, kanpoaldean pasatzen direnen berri ematen dutenak, bart arratsean zer moduz portatu ziren galdetzen dutenak, *betikua* eskatzen dutenak, Mami Tartaren edo etxeko koparen bezero leihalak, gurekin jartzen direnak bazkaltzera, autozerbitzua ote den galdetzen dutenak, barra haien esku uzteko modukoak, etxekoak, eurekin jartzeko tarterik dugun galdetzen dutenak eta musika eskatzen dutenak barra hutsik dagoenean, *ze, aditu letra ze ona den*. Ederrak zarete eta ederra egiten duzue gure lana. Bihotz-bihotzez *matte zattuztet*.



IZASKUN ZUBIALDE GRAJIRENA

Korrikaren ondotik zer?

Ia bi hilabete pasatu dira 23. Korrika hasi zenetik. Irunen hasi eta Baionan bukatu arte, 2.792 kilometro egin ditu Remigio Mendiburu eskultoreak egindako lekukoak, barruan bukaera arte sekretuan gordetako mezuarekin. Eskuz esku, euskararen alde korrika. Itzela izan da aurtengoa. Jende andana ikusi da bazter guztietan Korrikaren zain. Ahal duenak kilometroak egin ditu lasterka eta ezin izan duenak metro batzuekin ekarpen polita egin dio aurtengo edizioari.

1980. urtean izan zen lehen Korrika, eta geroztik gauzak asko aldatu dira (zorionez). Hurbiletik bizi izan nituen Korrikaren hastapenak, ama AEKko irakasle izan zelako Irungo egoitzan. Gogoan ditut Korrikari lotuta zeuden ekintzak nola antolatzen ziren, eta gu, naiz eta txikiak izan, partaide ginen, hala nola, diru bilketa, bizikletarekin Korrika mugatzen laguntza ematen... Dudarik gabe, orduan ez zen oraingo jendetza biltzen. Etxean badaukagu argazki bat bigarren Korrikakoa, non anaiak lekukoa eraman zuen Irungo kale nagusietan barrena eta bi dozena pertsonak jarraitu ziotela ikus daitekeena.

Baina, zorionez, aldatu dira garaiak eta jendearen kontzientzia ere aldatu da. Korrikak bi helburu nagusi ditu;

«BIHOTZETIK MINGAINERA PASA DEZAGUN SENTIPENA»

alde batetik, euskararen aldeko kontzientzia suspertzea, eta, bestetik, AEKko euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea, kilometroak salduz eta jendearen ekarpenei esker.

Herri eta hiri mailan, eskola eta ikastoletan bi urtetik behin Korrikari bere tartetxo eskaintzen zaio, gaur egun, unitate didaktikoa eta guzti zintzilikatzen dutelako Korrikako web orrian. Nork pentsatuko luke Korrikak izan zuen hasiera ikusi ondotik, gaur egungo booma izanen zukeenik?

Gizartea aldatzen den erritmo berean, Korrika ere aldatuz doa. Baina, gizartearen jarrera euskararekiko ere, aldatuz al doa? Bistan da martxoan ikaragarritzko euskaltzaleasuna zabaltzen dela euskaldun eta euskaltzaleen artean, baina, zer gertatzen da apirilean, maiatzean, ekainean? Eta zer gertatuko da 2025. urtean?

Ez dezagun ahaztu gure arbasoek emandako hizkuntza zoragarri hau, inork inoiz suntsitu ezin izan duena, nahiz eta saiakera asko egin dituzten eta egiten jarraitzen duten. Ez gaitezen gu izan etsai, eta Korrikaren sentipena egunero, uneoro eduki dezagun barruan. Baina ez barruan soilik, bihotzetik mingainera pasa dezagun sentipena eta euskaraz solas gaitezen. Korrikaren helburua bete dezagun denon arloan urteko egun guztietan eta eguneko momentu guztietan. Modu honetan, Korrikako lekukoa hartzean benetan euskararen alde baliozkoa den zerbait egiten ari garela konturatuko gara. Euts diezaiozun Korrikaren esentziari berriz guretik igaro artean.

11 GALDERA LABUR

MATTIN ASIAIN ZELAIA BERROETAKO GAZTEA

«Berroetarako neurrian eginda daude bestak»

Maiatzaren 17tik 20ra, ortzi-raletik astelehenera, Mendekoste bestak ospatuko dituzte Berroetan, eta herriko gainerako gazteekin batera, antolakuntza lanetan ari da Mattin Asiain Zelaia, denen gusturako egitaraua prestatzen.

Nola definituko zenuke zeure burua?

Natura, kirola eta lagunekin egotea gustatzen zaion mutiko lasaia.

Zein dira zure zaletasunak?

Orokorrean kirola egitea gustatzen zait, mendira joatea edo frontoi kirolak gehienbat. Baita naturan egotea eta posible denean besta egitea ere.

Zer du Berroetak bertze herriek ez dutenik?

Herrian dagoen lasaitasuna eta inguruan ditugun mendi eta xoko zoragarriak.

Eta zerk egiten ditu berezi Berroetako bestak?

Herri ttikia izanik, herritar guzien artean sortzen den giroa.

Zein da zure lehenbiziko oroitzapena herriko bestetan?

Gorriti animaliekin herrira etortzen zenekoa dut lehen oroitzapena.

Eta gaur egun, zein duzu jarduerarik eta egunik gustukoenak?

Lehenbiziko eguna izateagatik eta fresko egonik, baztan zopak erranen nuke, eta sortzen den giroagatik, zikiro eguna.

Herri ttikia izanda, nola antolatzen dituzue bestak?



Bestak gehienbat gazteen artean antolatzen ditugu, baina aitzinerat atera ahal izateko herri guztiak laguntzen du.

Zer izaten da lan gehien eskatzen duena?

Besten aitzinetik egin beharreko prestaketa lan guzia; mahaiak ekarri, gauzak eskatu, ostatua muntatu... hala ere, bestetan bertzelako hainbat lan daude herritar guzien laguntzarekin egiten ditugunak.

Zerbait aldatuko zenuke egitarauan?

Ez, Berroetako herrirako neurrian egindako bestak dira.

Zein dira zure asmoak epe motzera?

Udaz disfrutatzea.

Eta zein dira zure asmoak epe luzera?

Bertze herrialderen bateko natura eta fauna ezagutzeko bidaiaren bat egitea gustatuko litzaidake etorkizunean.



Bilduma berria

1951tik

Casa Cambra

lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak

Mantelak

Kuxinak

Edredoi nordikoak

Ohe estalkiak

Maindireak

Toallak

Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

'Zu barik eztau!'

IMANOL ELGEZABAL-GARMENDIA

Zu gabe ez dago. Astrako leloa. Hemezortzi urte. Hemezortzi urte Gernikako zenbait gaztek herriko arma fabrika abandonatu bat okupatu eta tokia herriarendako izateko aldarrikatu zutenetik. Hemezortzi urte garai haietan gazte izandako belaunaldiaren amets eta proiektu kulturalak gauzatuko zituen eraikina, Astra, biziberritu zenetik. Hemezortzi urte okupazioaren ondorengo belaunaldiek ere gure sorkuntza-interesak gauzatzeko estalpea izango genuenetik. Herriko talde baten kantzak zioen eran: «Milaka amets sortuz denok batera, autogestioz aurrera. Pentsamendu askean, modu librean, egin dezagun aurrera».

Zuk, bai, zuk gazte, ez esperatu helduoi zuenagatik zerbait egitea. Izan zaitez aktibo, parte hartu herriko gaztetxe, musika banda, gazte asanblada, festa komisio edota abarretan. Sortu rock edo trap taldea, saiatu bertsotan, antzerkian, antolatu kontzertuak, parrandetan txosnetan txandak egin, auzolanean aritu...

Orain helduak garenok, zuentzako «zaharrok», gure gaztaroa gozatu genuen, izan Gernikako Astran zein Baztandarren Biltzarra elkartean, Lesakako inauterietan zein Berako Kaxerna gaztetxean, Atekabeltzen zein herrietako besta komisioetan.

Gazte pasibo izatetik gazte aktiborako klika egin genuenean mundu berri bat ireki zitzaigun, berriki Gorka Urbizuren disko berriko letretako pasarte batean dioen «gauzak ez dira horrela, gauzak horrelaxe daude» izaeraz jakitun eta

gauzak aldatzen hasi ginelako, akaso *izan gazte eta errebelde* baitzen garai haietako leloa; baina, garai haietakoak bakarrik ala orain ere baliogarri dena? Aholku bat zahar honen partez: egizu zure Astrako leloa: *Zu barik eztau!*

Zuzenketa

JON ANDONI ETXEGARAI IRIGOIEN

Gure akats baten ondorioz, testu digitala laburbiltzean, 2024ko maiatzaren 2ko TTPI TTAPAREN 853. zenbakian argitaratutako *Beintza-Labaiengo bizilagun batzuen babesgabetasuna* artikuluan data akats batzuk egin genituen:

Zera esan nahi zen:

2022ko martxotik, Orbel Haizea enpresak legea erabiltzera behartu gaitu, bere jarrera aldatzeko modu bakar gisa.

2022ko ekainean, Orbel Haizeari ohararazi zioten udaleko halla behar ez bezala erabiltzen ari zela, eta, hala eta guztiz ere, horretan jarraitu zuen.

2023ko ekainean, urtebetez inolako keinurik egin gabe egon ondoren, egoera salatu behar izan genuen.

2023ko uztailaz geroztik, Orbel Haizea enpresak badaki Turismo Departamentuak salaketaren zati bat Beintzako Udalarri helarazi ziola, eta Beintza behartuta dago.

HEMEROTEKA



«Emakume alaia, indartsua eta kementsua izan zen [Julia Fernandez Zabaleta] (...) 18 urterekin, Montessorirengana joateko ausardia izan zuen. Harekin ikasitakoari, gainera, ekarpen propio bat egin zion, eta lan egin zuen iraskabide berriak Iruñean ezartzeko».

MIKEL TABERNA | ALKAIAGA | JULIA FERNANDEZI BURUZKO PASTORALAREN IDAZLEA | N. HITZA | 2024.05.03



«Hemengo jendearentzat abeltzaintza ohitura bat izan da, jendeak bizitza osoan ikusi du... eta ez dira konturatzen zer arazo ditugun. Azken aldian, protestekin gure zailtasunak bistaratu ditugu eta jendea gehiago kezkatu da, galdetzeraz etorri zaigu (...) Ustiatzeki dirulaguntzarik gabe bideragarria izan behar du; horregatik eskatzen dugu prezioa».

IRUNE LEKAROS | ITURENGO ABELTZAINA | D. NOTICIAS | 2024.04.13

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

Zaindu maite duzun hori...



Nola erran?

'Bozkak' botazioak dira eta ez botoak

Gaur egun, maiz aditzen edo leitzen ditugu gisa honetako esaldiak: **154 lagunek eman dute bozka*. Baina ez da zuzena. Hortaz, ekainaren 6tik 9ra egitekoak diren Europako Parlamentuko hauteskunderen atarian, horixe hartu du hizpide aldi honetan TTIPI-TTAPAK.

Bozkak botazioak dira eta ez botoak:

-Bilkuran ziren, baina ez dute bozkan parte hartu.

Zenbaitetan, botoa adierazi nahi denean, bozka hitza erabiltzen da, boz erabili beharrean. Baina bozka hitzak bertze adiera bat du ('bozkatzea' edo 'bozketa'). Beraz, «**154 lagunek eman dute bozka*» bezalakoen partez, «*154 lagunek eman dute botoa*» erabili beharko genuke.

Bide batez, hautesleen boto-paperak jasotzen diren ontzia izendatzeko hautetsontzi forma hautatua du Euskaltzaindiak (ez **hautestontzi*, ez **hautesontzi*). Eta **aurrekanpaina* ez erabiltzeko gomendatua du, forma arautua *kanpainaurre* da.

Horrekin batera, karguak hautatzeko egiten den bozketari hauteskundeak edo bozak erraten zaio. Eta hala, boz hitzak boto eta bozketa adierak izan ditzake:

-154 boz/boto bildu zituen.

-Herriko bozak martxoaren 15ean izanen dituzte.

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Zein da zuzena

'*Unaiek baietz erran du' edo 'Unaik baietz erran du'?

Diptongoz bukatutako izen bereziak izen arruntak bezala deklinatzen dira:

Unaik, Ibaik, Hodeik, Zelaik, (NORK kasua)... Unairi, Ibaيري... (NORI kasua)..., eta ez *Unaiek, *Ibaiek, *Hodeiek... *Unaieri, *Ibaieri...


Beraz, zuzena *Unaik baietz erran du* da.


Osatu erran zaharra



Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!

 info@ttipi.eus

 744 48 43 61

«Aliantza feministak sendotzea beharrezkoa da»

AMAIA PRIETO ETA ZIORTZA GOIA MARRAKO BORTZIRIETAKO NESKA* GAZTEEN TALDEA

Martxoaren 8an atera ziren karrikara lehenengoz, baina, denbora daramate lanean Marrako Bortzirietako Neska* Gazteen Taldeko kideek. Neska* gazteek dituzten zapalduntzak erdigunean paratu nahi dituzte, eta espazio seguruak sortu nahi dituzte emakumeentzat*

A. LARRETXE

Neska* gazteen subjektuari beharrezko protagonismoa emateko, eta beren aldarrikapen propioak karrikara ateratzeko sortu dute Marrako Bortzirietako Neska* Gazteen Taldea. Udazkenean hasi ziren elkartzeko, azaroaren 30ean egin zen greba feminista orokorraren harira, eta martxoaren 8an atera ziren karrikara lehenengoz Beran egindako manifestazioan. Lanean segitzen dute, eta «besta eredu maskulinoaren» eta giro horretan egiten diren erasoengain inguruko dinamika lantzen ari dira orain. Egindako bidez eta hemendik aitzinera egin nahi dutenaz solastatu dira.

Marrako Bortzirietako Neska Gazteen Taldea sortu berri duzue. Nolako izan da sorrera prozesua?

Eskualdeko neska* batzuk Euskal Herriko neska* gazteen baterajotzera joan ginen eta hemen antolatze beharra zegoela ikusi genuen. Azaroaren 30eko greba feminista orokorra hurbil zegoela eta, bilera ireki bat egin genuen honen inguruan egiteko. Bileran horretan hainbat problematika identifikatu ondotik Bortzirietan neska* gazteak antolatzen hastea erabaki genuen.

Zergatik erabaki duzue Marrako sortzea?

Eskualdean feminismoa gazteon ikuspuntutik lantzea beharrezkoa delako.

Zein da Marrakoren helburua?

Emakumeentzat* espazio seguruak sortzea da gure helburu nagusia. Horrez gain, problematika gehiago identifikatu nahi ditugu begirada feminista bat emateko. Bertze aldetik, Bortzirietako gazteak, dauden arazoez kontziente izatea lortu nahi dugu.

Eta zergatik aukeratu duzue izen hori?

Gure eskualdearekin lotua dagoen hitz bat aukeratu nahi genuen eta hainbat ideia atera ziren. Azkenean, bozketa egingenuen taldekideen artean eta marrako izena aukeratu zen. Marrako, guk aunitz erabiltzen den hitz bat izateaz gain, marrakoa marka uzten duen zerbait da eta gu horretara heldu gara, marka uztera **Zenbat lagunek osatzen duzue Marrako eta zein da zuen lane-rako dinamika?**

Hamar lagun inguru gaude taldean, hala ere, jende gehiago elkartzeko espero dugu. Lanerako dinamikari dagokionez, astean behin bilerak egiten ditugu, bai telematikoki baita presentzialki ere, kon-tuan hartu behar baitugu aunitzek kanpoan ikasten

«EMAKUMEONTZAT* ESPAZIO SEGURUAK SORTZEA DA GURE HELBURUA»

dugula eta asteburuak nahiko okupatuak ditugula. Dena den, gauzak antolatu behar izatekotan, martxoaren 8ko kasua bezala, astean bitan gelditu gaitezke.

Zeinek parte hartzen ahal du taldean?

Subjektu honekin identifikatzen den edozeinek parte hartzen ahal du Marrakon.

Neska* gazteen taldea da. Zergatik aukeratu duzue neska* gazteen subjektua?

Neska* garen heinean eta gazte garen heinean, hainbat zapalkuntza pairatzen ditugu eta horregatik, antolatzen gara Euskal Herri osoan zehar neska* gazte taldeak. Hala ere, neska* gazte subjektu izenarekin borrokan parte hartzen duten guztiak ez dira identifikatuak sentitzen, horregatik barne eztabaida prozesu batean gaude izena aldatzeko.

Zein dira neska* gazteek pairatzen dituzuen zapalkuntzak?

Neska* gazte orok jasaten dituzten emakumeok* orokorrean jasaten ditugun zapalkuntzak. Baina horri gaztetasuna eta gaztetasunak dakartzen ezagarrri estereotipatuak gehitu behar zaizkio.

«NABARMENAK DIRA GIZONEN ARTEKO ALIANTZAK ESKUALDEAN»

Zein dira zapalkuntza horiek?

Alde batetik, bizitzaren esperientzia ezak dakarren mespretxua: 'Zer jakinen du honek' edota errandakoak berehalakoan zalantzan jartzea ere. Adibide garbia dira eraso matxista jasan duenari ematen zaizkion erantzunak: 'Ziur zaude edo ongi oroitzen duzu? edo kontziente zinen? edo erran diozu ezetz?' hitzez adierazitakoak.

Ezjakintasunari, era berean, gorputz ederraren ereduak gehituko genioke. Edertasuna erakusteak dakartzen piropo deserosoak jasan behar izateak, eta tapatzean kurbarik ez ikustek eragiten duen interes falta. Arropa gutti janztean gorputza sexualizatzen da eta gure errua dela leporatzea izaten da ohikoena. Ez al du norberak sexualizatzen bada gorputz oro? Bestan gizonak ukitzen gaituzte, lotsarik gabe. Hor zer erranen dugu? Gure ipurdi eta bularrak euren eskuetan jartzen ditugula nahita? Bertzalde, gorputz eredu perfektuari eusten zaio eta horrelakorik ez duenari egurra eman, zergatik ez duen bizitza-ohitura osasuntsuagoak hartzen eta *blablabla*. Betikoa, azkenean.

Euskal Herriko Neska* Gazteen sarearen parte zarete. Nolako da Euskal Herriko bertze Neska* gazte taldeekin duzuen harremana gaur egun?

Sarearen parte gara eta Baztango Iñarrosi taldearekin biltzeko intentzioa dugu haien esperientziak ezagutzeko. Hala ere, taldea sortu baino lehen hainbat kide baterajotzean egon ginen eta Euskal Herriko hainbat taldetako jendea ezagutu genuen. Gutako batzuk, gainera, unibertsitateko ikasle* taldeetan ere parte hartzen dugu.

Eragin eremua Bortzirietara mugatu duzue. Nolako harremana duzue Bortzirietako bertze talde feministekin?

Martxoaren 8an elkarlanean ibili ginen eskualdeko bertze talde feministekin. Azkenean,



Marrako Bortziritetako Neska Gazten Taldeko kideak martxoaren 8an Beran egindako manifestazioan.. UTZITAKOIA

borroka berdinen parte gara guztiak eta aliantza feministak sendotzea beharrezkoa dela ikusten dugu. Eskertuta gaudela eman diguten laguntza guztiarengatik.

Martxoaren 8an atera zineten plazara lehenengoz eta burukoak egiteko tailerra antolatu zenuten. Nolako harrera izan zuen?

Giro ederrean hasi genuen arratsaldea, musikak girotuta burukoak eginez, gero manifestazioan erabiltzeko.

Manifestazioaren ondotik egindako irakurketan, zaintzaren auzian paratu zenuten fokua. Neska* gazte gisa, nola ikusten duzue zuek zaintzaren auzia?

Greba orokorra bitartean aho-tsa eman zitzaion problematika honi, eta neska* gazte subjektu bezala oraindik gauza aunitz daude lantzeko. Azpimarratu beharra dago greba ondotik oraindik ere konspiratzen jarraitzen dugula eta dena ez zela azaroan bukaeran gelditu.

Eta neska* gazte gisa nola eragiten dizue zuei zaintzaren krisiak?

Hainbat eragin ditu neska* gazteengan zaintzaren krisiak. Zaintza lanetara bideratzen dugu gure bizitza: haurrak zaintzen egiten dugu lan, klaseetan lan taldeko ardurak banatzean ere eragiten du, baita ikasketak aukeratzeko orduan ere. Gainera, gure mutil lagun eta gure lagun mutilen sostengu emozionala izan ohi gara.

Anaidiari erreferentzia egin zeniolen manifestazioaren bukaeran egindako irakurketan. Nola ikusten dituzue zuen belaunaldiko gizonak berdintasunerako bidean?

«ZAINZA LANETARA BIDERATZEN DUGU GURE BIZITZA»

Gizonen arteko aliantzak hagit nabarmenak dira eskualdean. Gainera, gazteek kontzientzia falta dute eta ez dute interesik erakusten feminismoaren inguruan. Ezezagutza handia dagoela uste dugu, horrez gain, ez dituzte gertatzen diren gauzak ikusi nahi izaten. Hala ere, aldaketak ematen ari dira eta gure borroka gizonen artean kontzientzia pizten segitu nahi dugu eta berain ikuskeran aldaketa handiago bat izatea espero dugu.

Azken aldi aipatu izan da feminismoaren olatuekin bat, horren kontrako jarrerak ere gogortzen ari direla. Zuek ere nabaritu duzue eskualdean?

«GONBITA ZABALDU NAHI DUGU BORROKAN PARTE HARTZEKO»

Nahasmen bat dagoela uste dugu. Jendeak feminismoak rola trukatu nahi dituela uste du. Hau da, jendeak uste du feminismoa dela emakumeak gainera jartzea, baina ez da hori. Ideia hauek eskualdera ailegatu direla nabarmena da eta horregatik jende aunitz borrokatik urrundu dela ikusten dugu.

Aitzinera begira, zein dinamika paratu nahi dituzue martxan talde gisa?

Hemen dagoen besta eredu maskulinoaren eta bertan ematen diren erasoengandik inguruko dinamika martxan jartzea erabaki dugu. Hala ere, dinamika forma eman behar diogu oraindik.

Zer gaineratuko zenukete?

Gonbidapena zabaldu nahi dugu borroka honetan parte hartu nahi duen jende guztia guregana hurbiltzeko. Gure kanta erraten duen bezala, 'marrako batez zuregana ailegatuko gara'.

Aitatasun arduratsuaz solasean

Aitatasuna hizpide hartuta, eskualdeko zazpi aiten lekukotasunak bildu ditu TTIPI-TTAPAK. Egoera aldatzen ari den arren, oraindik zaintzaren ardura gehiena emakumeen esku dagoela diote eta hori aldatzeko beharraz aritu dira

G. PIKABEA

Aita absentea, laguntzen duen aita, zaintzari eta hazkuntzari lotua den aita... Zerk egiten du aita bat arduratsu? Aita izateko modua aldatzen ari da? Aitatasunaz edo, aitaren egitekoa aski diferente ulertzen ahal dela kontuan hartuz, aitatasunez hausnartu nahi izan du TTIPI-TTAPAK, aitek seme-alaben zaintzan eta hazkuntzan duten parte hartzeari begira jarrita. «Aitatasun erantzukidea premiazko iraultza» dela zioten urte hasieran Baztango Udale-

ko Berdintasun Zerbitzuak antolatutako tailerraren harira, eta hortik abiatuta, eskualdeko zazpi aiten lekukotasunak bildu ditu TTIPI-TTAPAK: Iñigo Elizegi Erbiti (Goizueta), Txomin Petrikorena Irigoien (Elizondo), Dani Aranaz Legaz (Erratzu), Mikel Oiarzabal Ubiria (Lesaka), Jokin Apezetxea Azkarate (Doneztebe), Imanol Etxeberria Antxorena (Arizkun) eta Iñigo Lizartza Saizar (Leitza) dira.

Egoera aldatzen ari dela aipatu dute, baina, orokorrean, oraindik ardura gehiena ema-



FREEPIK

kumeen esku gelditzen dela onartu dute eta gurasotasunean parekidetasuna lortzetik urrutiti ikusten dute gizartea.

Aita izateko modua aukeratzeko ahal dela adierazi dute batek baino gehiagok, edo aita arduratsua izatea ez dela ikas-tetxera haurra eske joatea, parkean edo frontoian beraiekin egotea edo haiekin paseatzea ateratzea bakarrik. Hori baino gehiago dela nabarmendu nahi izan dute.

Gaur egun, gurasoen baimean parekideak dira, hamasei astekoak, baina hori bukatzean zer? Datuek diote lanaldia murrizten edo eszedentzia hartzen duten gehienak amak direla. Erreportaje honetan, ordea, aitek berdinduz egiten ahal dutela mahaigaineratu dute. Kontu gehiago ere hartu dituzte hizpide: maskulinitate eredu, gizonen pribilegioak, haurrek bi gurasoez gozatzeko duten eskubidea, ama zaintzearen beharra...

«Baimenak hartzeko aukera igualak izan arren, gizonzkoek asko kostatzen zaie»

IÑIGO LIZARTZA SAIZAR LEITZA

«Ama etxera eta aita lanera». Horixe da Iñigo Lizartzaren hitzetan oraindik nagusi den eredu. Berak, ordea, argi du «aitak eta amak igual-igual, eszedentziak edo lanaldi murriztuak hartzen ahal ditugula». Eta hala egin du. Laster 18 hilabete beteko ditu etxeko tikiak, eta hasieratik «bikotekidea eta biok ardura guztiak partekatzen» ari dira. Zaintzari loturiko aita den seinale dira eszedentziak eta lanaldi murriztuak: «Hasierako lau hilabeteko baimena biok segidan hartu genuen. Baimena bukatuta, neska lanean hasi zen eta nik apiriletik uztaiera eszedentzia hartu nuen. Emazteak uztaiera eta abuztua libre zituen, ni lanean hasi nintzen. Irailean umea haur eskolan hasi genuen, eta gu

biok zortzi ordura lanean». Onartu du «ahal den bezala» moldatu zirela, «baina batzuetan arrastak. Umeari bere denbora eman behar diozu, berarekin kalera atera, berarekin egon, kalitateko denbora eman». Horri etxeko lanak gehitu behar zaizkio: «erosketak, garbiketa, otorduk... Biak zortzi ordur lanean, haurrari behar duen arreta ematea zaila da». Horregatik murriztu du lanaldia eta ekainera arte «lau ordur» ariko da. «Etxeko lanak egiteko eta familian umearekin gozatzeko aukera dugu».

Aitatasun eredu «gure esku» dago bere ustez: «Ama beti ama izanen da, are gehiago bularra ematen badio. Baina gauza asko egin ditzake aita, amak bezala. Zergatik ez dut umea bainatuko edo ez dizkiot



Lizartza etxeko tikiarekin.

azazkalak moztuko? Zergatik ez diot jatekoa prestatuko? Gure ardurak dira». Dioenez, aita aurreratzen ari garela esaten da, baina kontua ez da haurra paseatzera ateratzea bakarrik. Hori baino gehiago da. Parekidetasuna lortzeko «asko falta» dela dio. «Gizon zein emakume baimenak hartzeko aukera igualak ditugu, baina gizonzkoek oraindik asko kostatzen zaie». Gehiago ere bai: «Asko-

tan lanera joatea eta ama etxean gelditzea da errazena. Etxean dagoenak ardura guztiak hartzen ditu eta erosoago bizi gara».

Hartu duen bidea hartuta, tarteka ez dela ulertua sentitu ere aitortu du: «Bati baino gehiagori entzun diot 'Ama lanera eta zu etxean? Ume gaixok ama behar du' esaten. Bai, ama behar du, baina aita ere bai. Bietako batek lanera joan behar du, eta ahalik eta hobekien egiten saiatuko gara. Gu ere gai gara hurrez arduratzeko eta etxeko lanak egiteko. Ama aita bezala joan daiteke lanera, aita bezala izan dezake lanpostu ona, eta larunbata ailegatu eta igual-igual joaten ahal da mendira». Hala, «aitak eta amak baimenak partekatzea animatu» nahi izan ditu, «zer den baloratze». Bera ez da damutu: «Esperientzia zoragarria da. Haurrak ematen didan maitasuna eta disfrutatzen ari naizena, ez dit inork kenduko».

«Hausnartu eta zalantzan jar dezagun egungo maskulinitate eredu»

IMANOL ETXEBERRIA ANTIXORENA ARIZKUN

«Aitasuna umearen zaintzan egiazko ardura izatea» dela dio Imanol Etxeberriak, «umearen ongizatea bermatzeko behar diren ardura guztiak hartzea, guraso rola % 100 betetzea, zaintza, ardura eta presentzia erreala bermatuz». Eta hori izan da bere bidea. «Zazpi hilabete dituen Aietzen aita eta aurrez bidean bertze lau haur galdu dituen aita» da eta «gure kasuan gurasotasuna bikotekidearen eta bion arteko elkarlana da». Berari dagokionez, aita izandakoan, lanaldi zatitutik jarraitura pasatu zen, «etxera ahal bezain fite ailegatu ahal izateko». Eta hala, etxeko ttikiarekin, «harreman sanoa, goxoa, maitasunez betea eta kalitatezkoa» du: «Aietzek oraindik zazpi

hilabete ditu eta bere behar emozional, fisiologiko eta psikologikoak asetzeko berarekin ahalik eta kalitatezko denbora gehien pasatzen saiatzen naiz».

Garbi du aita izateko modua aukeratu egiten dela, «inongo dudarik gabe» gainera: «Beti aukeratzen ahal duzu inplikazio maila, ardura maila, zaintza maila, eskaini nahi duzun denbora... Harreman onaren edo estuaren oinarriak maitasuna, afektua, konpromisoa eta zaintza dira. Eskainitako denbora tarte baina garrantzitsuagoa da denboraren kalitatea».

Agerikoa da zaintza orokorrean emakumeen ardura dela. Egoera aldatzen hasia dela aipatu du, baina «oraindik aldatzeko aunitz» falta dela gehitu



Etxeberria Aietz bere haurarekin.

du: «Zaintzak emakumeen esku segitzen du eta gizonoi dago-gigu aitzinerat pausoak ematea. Aunitzetan iruditzen zaigu haurren zaintza bermatzearekin guraso papera bete dugula, baina familia bat garen heinean, etxeko zaintzak oraindik gehienetan emakumeen gainkarga izaten segitzen du. Aita izateak etxea zaintzeko lana ere bada-kar: garbiketa, ardura, eroske-

tak, pediarrara bisitak, arropak, jatorduak... Dena lotua dago».

Inguruan «denetarikoa aitatasun ereduak» ikusten dituela ere onartu du: «badira zaintza eta ardurak guztiz edo ia guztiz partekatzen dituztenak, baina badira zaintza haurrekin frontoira joanez bakarrik betetzen dutenak». Horretan, «orokorrean gizarteak» huts egiten duelakoan dago: «Gizarte matxista batean bizi gara eta parekidetasuna lortzen ez den bitartean gurasotasunaren begirada ez da aldatuko». Horregatik egin du «zaintzak erdigunean jartzeko» deia. «Denok pixka bat ematen badugu, gizarte aldatzeko gai izanen gara». Bide beretik, «feminismoaren alde borrokan segitzeko momentua» dela nabarmendu du: «Berdintasunik gabe ez dago aldaketarik. Hausnartu dezagun denok eta zalantzan jar dezagun egungo maskulinitate eredu».

«Hurrek amaz eta aitaz gozatzeko eskubidea dute»

JOKIN APEZETXEA AZKARATE DONEZTEBE


Bederatzi, borts eta bi urte dituzten Enea, Ekhi eta Luka haurren aita da Jokin Apezetxea, eta haiekin «harreman goxoa» duela aitortu du. Gurasotasunaz aritu da TTIPI-TTAPAREKIN, eta bertzeak bertze, «erantzukidetasuna» eta «presentzia» aipatu ditu.

Gurasotasuna «erantzukidetasunaren ikuspegitik» ulertzen duela kontatu du, eta hurrek «bai amaz, bai aitaz gozatzeko duten eskubidea» aldarrikatu du. Hori barnerrata, «haurrei kalitatezko denbora bideratzen saiatzen» dela adierazi du: «Beraiekin gaudenean beraiekin gaude eta kito, burua horretan izaten saiatzen naiz». Pentsaera hori bikotekideari zor omen dio: «Emaztea irakaslea da, Haur

Hezkuntzan formatua, eta berarekin ikasi dut aitatasunari eman behar zaion garrantzia ematen. Kontzientzia beregandik heldu zait».

«Askotariko ereduak»

Gurasotasuna parekidea izatea ere hizpide hartu du doneztebarrak, eta «egoera zerbait aldatzen» ari dela erran du: «Parkean gero eta gizonezko gehiago ikusten ditut, eta nire inguruan, zaintzan gizonezkoek eta emakumezkoek biek parte hartzen dute». Gehiago ere erran du. Parekidetasunari lotuta, alde batetik, «nondik heldu garen» ikustearan garrantziaz mintzatu da: «Gure aitzineko belaunaldietan, amek familia izateko lana uzten zuten eta gu haien ondorengoak



Apezetxea bere hiru hurrekin.

gara». Eta bertetik, «familia bakoitzak dituen aukerak» aztertu behar direla gaineratu du: «lan batzuetan zaila da kontziliazioa, familia bakoitzaren egoera ekonomikoa zein den ikusi behar da, bakoitzaren sare familiarra zein den, eskura diren baliabideak... Baldintzak askotarikoak dira» eta bere hitzetan, aitatasun ereduak ere «askotarikoak dira, errealitatea bezala». Hala,

«parekidetasuna baino gehiago seme-alabek gurasoez gozatzeko duten eskubidea» azpimarratu nahi izan du.

Aitatasuna beretako «ikas-keta prozesu bat» izaten ari dela ere onartu du Apezetxeak; «bizitza bera bezala. Batzuetan zalantza aunitzekin, bertze batzuetan ongi eta bertzeetan gaizki eta bertzeetan erdipurdi eginen dugu, baina guttienez, hurrek senti dezatela behar dutenerako hor gaude-la». Are gehiago lehenbiziko urteetan: «Haurren lehenbiziko sei urteak garrantzitsuak dira eta beraien garapen emozionala, kognitiboa eta soziala ahalik eta egokiena izateko beharrezkoa da gu hor egotea. Aunitzetan nahikoa izaten dute gu ondoan egotearekin. Denborarekin hegan egiten dute». Bere ustez, «aita bakoitza ahalik eta hobekien egiten saiatzen da, batzuetan asmatuko dugu eta bertzeetan ez».

«Haurrak ttikiak direnean eurekin egoteko probestu behar dugu»

MIKEL OIARZABAL UBIRIA LESAKA

«Haurrak gureak dira eta gure ardura da eurek zaintzea. Batzuetan, lanean ezin bada moldatu edo errazena hori delako, ataxiren eta amatxiren esku uzten dira, baina ardura gurasoena da. Niretzat garrantzitsua da eurekin ahalik eta denbora gehien egotea, eta esfortzu gutirekin aunitz lortzen ahal da». Halaxe aitortu du Mikel Oiarzabalek, eta horixe da berak egin duena: «Bikotekidea lanean hasi zenean, bi aukera genituen: ataxi eta amatxi kargatu edo murrizketa eskatu». Bigarrena aukeratu zuten: «Egunero bi ordu murrizten nituen. Txandaka jarri gero, nik aukeratzten nituen zein bi ordu hartu. Goizez baldin banintzen lehenagotik sartzen nintzen eta arra-

tsaldez banintzen beranduago. Hartara eguerdia libre izaten nuen, haurrak ikastolatik hartu eta elkarrekin bazkaltzeko». Gaur egun, berriz, haurrak koskortzen ari direnez [11 eta 6 urte], laneko ordutegia moldatua du: «Lehenagotik edo beranduago sartzen ahal naiz. Ohiko ordutegia 07:00etatik 15:00etara baldin bada, 06:00etan edo 08:00etan sartzen ahal naiz».

Aita arduratsu izatea «haurrekin egotea, eurez kezkatzea eta ardurak hartzea» dela adierazi du lesakarrak, eta aita izateko modua aukeratzten ahal dela uste du: «Norbere esku dago bere haurrekin zer jarrera hartu erabakitzea». Berak eta bere bikotekideak argi dute: «Gure kasuan, haurrekin ahalik



Bi seme-alaba ditu Oiarzabalek.

eta gehiena egoten saiatzen gara. Adin bat ailegatzean, aio erraten dizute, euren gisa ibiltzen dira eta ez dira zurekin egoten arratsaldeetan. Hortaz, eurekin egoteko bertze tartek bilatzen saiatzen gara, adibidez, eguerdian elkarrekin bazkalduz». Jakitun da denek ez dutela halako aukerarik: «Guraso guziek goizeko ordutegia izatea, hau da, haurrak eskolan daudenean

lan egitea, zaila da. Lanaren arabera, haurrekin gehiago edo guttiago egoten ahal zara».

Berdintasuna hizpide hartuta, onartu du «gure kasuan haurrek aita baino gehiago erraten dutela ama, nahiz eta ni ere hor nagoen». Baina aitaren papera aldatzen ari dela gaineratu du: «Orain dela urte batzuk aitak haurrekin ez ziren ia ikusten eta gauzak aldatzen ari dira. Gehienetan bi gurasoak lanean daude eta bien inplikazioa beharrezkoa da. Hori orekatzen ari dela iruditzen zait, baina gehiago egin beharko litzateke».

Oiarzabalek orain arteko bideetik segitu nahi du, aitatasunaz gozatzeko, eta mezu hori zabaldu du: «Bakoitzak disfruta dezala ahalik eta gehien familiariaz eta hurrez. Ttikiak direnean probestu behar dugu. Saiatuz gero, lortzen ahal ditugu eurekin egoteko tartek eta azkenean, gusturago sentitzen zara».

«Salbuespenak izanen dira baina oraino amek dute zaintzaren zama haundiena»

DANI ARANAZ LEGAZ ERRATZU

«Gurasotasuna guraso izan arte ulertzen ez duzun bizimodua, ardura, erantzukizuna, zoriontasuna, gozamina...» dela dio Dani Aranazek, «baita haserrea, inpotentzia, desesperazioa... ere». Ez hori bakarrik: «Niretako gurasotasuna nire seme-alabak maitatzea, errespetatzea, hezteak, diren bezala izateagatik eta ez zerbait ongi egin dutelako beraiez harro egotea, eta hori guzia beraiei erratea da». Aitatasun arduratsuzak ere mintzatu da eta «seme-alabak edukitzeak dakartzan ardura guziez jabetzea eta betetzea» dela esplikatu du: «Gaur egun, aita modernook fardelak aldatzeagatik, motxilan haurrak eramateagatik edo gure semea edo alaba bainatzeagatik arras aita erantzukideak garelako uste

dugu. Egia da duela urte batzuetako aitekin konparatuta, gauzak aldatu direla. Oraingo aitek etxeko lanak egiten dituzte eta seme-alabekin denbora gehiago pasatzen dute. Baina oraino hainbertze ardura amaren gain uzten dira: azazkalak moztu, arropa erosi, ilea moztu... Salbuespenak izanen dira, doike, baina nire ustez, oraino amek dute haurren zainketaren zama haundiena». Horregatik uste du gurasotasunean parekidetasuna lortzetik «urruti» gaudela. «Nire seme-alaben zaintzan parte hartzen dut, baina kontziente naiz ez dudala modu berdinean egiten. Nire bikotekideak bere gain hartzen du pisu haundiena».

Lau urte eta urtebete dituzten bi haurren gurasoa da, eta onar-



Bi haurren aita da Dani Aranaz.

tu du bi kasuak diferenteak izan direla: «Lehenbizikoa sortu zenean, senide baten arazo bat medio, etxean aunitz faltatu nuen, eta zaintza ia guzia amaren esku gelditu zen. Lau urte beranduago, oraino nabaritzen da absentzia horren eragina gure harremanean. Bigarrenekin arras diferentea izan da, hasieratik etxean presente egon izanak gure harremana aise estuagoa izatea erraztu du».

Aita izateko modua aukeratzeko ahal dela uste du: «Aukeratu dezakegu orain arteko eredu patriarkalarekin segitu edo haurren zaintzak dakartzan lanak eta ardurak bi gurasoen artean banatzen eta orekatzen saiatu». Parekidetasun faltaren oinarrian, «gizonen borondate falta» ikusten du: «Patriarkatu luze baten ondorioz, gizonok posizio pribilegiatua dugu. Hori aldatzeko pribilegio horiei uko egin behar diegu. Geure burua feminizatatzat dugun gizonok ikusten dugu horren beharra, baina gero, praktikan, kostatu egiten zaigu».

Bide batez, «zaintza eta hazkuntza banatzea ez dela nahikoa» adierazi du: «Zaintza eta hazkuntzaren ereduari ere errepertatu beharko genioke. Haurrak, deus baino lehen, pertsonak dira. Eta pertsonak bezala tratatu behar ditugu, duintasunez, beraien erritmoak errespetatuz eta beraien nahiak kontuan hartuz. Ez dira gure panpinak».


«Aitatasunean, garrantzitsuena, ama zaintzea da»

TXOMIN PETRIKORENA IRIGOIEN ELIZONDO

Duela zortzi hilabete aita izan zen Txomin Petrikorena, eta etxeko tikiaren bueltan dabil geroztik. Aitatasun baimenaren lehenbiziko sei asteak hartuta, lanera bueltatu zen, eta orain baimenaren gainerako zatiri probetxua ateratzen ari da: «Neska-lagunak eszedentzia hartu du eta oposizioak presatzen ari da, eta nik ekainaren 30era arte baimena izanen dut». Hortaz, «asteko zazpi egunetan eta eguneko 24 ordutan» guraso da, eta «hori sentitzen dudalako» egiten omen du: «Ez dut gero alabarengandik bilduko edo bilduko ez dudanagatik egiten. Babesa behar duela sentitzen dut eta nahi dudalako ematen diot. Gure denbora berarekin inbertitu nahi dugu».

Orain arteko bidea, ordea, ez da erraza izan: «Etxean erditu ginen eta ospitalean akitu. Baina ospitalean ez zizkiguten erregistroko paperak bete nahi izan. Dudan jarri zuten alaba gurea zela. Arras gogorra izan zen. Bi hilabete eta erdi joan zitzaizkigun erregistratu orduko. Horrek eragozpen handiak ekarri zizkigun. Sei asteren ondotik lanera bueltatzea derrigortu zidaten, eta neska lagunak bajan segitu zuen, baina kobratu gabe. Zaurgarrien geunden momentu hartan bide judiziala hartzera derrigortu ziguten. DNA fro-ga egin behar izan genuen alaba gurea zela demostratzeko. Indarkeria obstetrikoa izan zen».

Eta horri «erditzea, erditze ondorengoa eta edoskitzea ere



Petrikorena eta familia.

gogorrak» izan zirela gehitu behar zaizkio, baita sentitu zuten «komunitate eta informazio falta» ere. Hain zuzen, pasatutakoa gogoan, «ama zaintzearen garrantzia» azpimarratu nahi izan du: «Orain alabak behar duen guzia amak du eta garrantzitsuena ama zaintzea da».

Petrikorenak aita izateko modua «aukeratu» egiten dela uste du: «Norberak hartzen

duen arduraren eta egoteko duen gogoaren arabera da». Baina aukeratu ez ezik, aita izaten «ikasi» ere egiten delakoan dago.

Bere irudiko, zaintzaren «parte handia oraindik amek» dute, eta alde ikusezari begira jarri da, «zama mentala» aipatuz: «Ez da egitea bakarrik, pentsatzea ere lana eta ardura da, eta hori kentzea handia izanen litzateke». Horrekin batera, gurasotasunean parekidetasuna lortzetik «urrun» ikusten du gizartea: «Belaunaldiz belaunaldi gizonezkook gure pribilegioak barneratu ditugu eta berdintasuna lortzeko pribilegio horiek alde batera utzi beharko genituzke. Hortik hasi beharko genuke». Horrek «dena» aldatuko lukeela iruditzen zaio: «baita gure seme-alaben izaera ere. Gaur egun dauden kliseak alde batera utzi, eta libreagoak izanen ginen».

«Berdintasuna lortzeko teoriatik praktikara egin behar da salto»

IÑIGO ELIZEGI ERBITI GOIZUETA

23, lau eta bi urteko seme-alaben aita da Iñigo Elizegi, eta aitatasunaz gozatzen ari da. Ez du beti horretarako aukerarik izan: «Zaharrenaren hazieran parte hartzeko aukerarik ez nuen izan, alde eginda ibili nintzelako eta gero kartzelan. Hori ikasgai oso handia izan da eta beste seme-alabekin ahal dudan denbora gehiena pasatu nahi dut». Hala ari da: «Bikotekideak denda du eta ez du oporrak hartzeko aukera haundirik. Nik, ordea, bai. Batetik, fabrika eszedentziak hartzen ahal ditut eta bestetik, umeak hazteko prozesuan parte hartu nahi dut. Hortaz, umeek oporrak dituzten aldirio eszedentzia hartzen dut: Gabonetan, inauterietan, Aste Santuan, udan...». Umeek hiru urte egin arte izanen du «nahi

beste eszedentzia hartzeko aukera», baina bere hitzetan, «zailtasunak» ondotik etortzen dira: «Umea autonomo izan arte urte gehiago behar dira». Horregatik eskatu ditu neurri gehiago: «lege aldetik urrats tiki batzuk egiten ari dira, baina gehiago beharko genituzke, eta fabriketan malgutasun gehiago umeak zaintzeko baimenak hartu ahal izateko».

Berdintasunari lotuta, «teoriatik praktikara» salto egiteko beharraz mintzatu da: «Azken urteotan asko teorizatzen ari gara berdintasunaz. Baina hori praktikara eraman behar da, eta zeregin handia dago. Oso erraz esaten da berdina gurela eta eskubide berdina ditugula, baina hori etxeko lanetan eta umeen hazkuntzan eraku-



Elizegiren hiru seme-alabak.

tsi behar da». Bere hitzetan, «orain arte umeak hazterakoan, beti karga haundiena amek hartu izan dute. Egoera aldatzen ari da, baina gehiago aldatu beharko luke. Oraindik ere amak dira umeekin egoteko lana utzi edo oporrak edo eszedentzia hartzen dutenak». Bere adibidea ekarri du gogora: «Fabriketan aita guziok dugu lanaldia murrizteko edo eszedentzia hartzeko eskubidea, baina oso gutxi gara

hartzen dugunak. Diruari gutxiago begiratu eta umeekin egoteko denbora gehiago hartu beharko genuke». Bere ustez, «kontzientzia gehiago behar da» eta gehiago ere bai: «Aitok ardura gehiago hartzean, umeek hori ikusi eta bizitu egiten dute eta zer ikusi hura ikasi. Umeek aitak ere beraiekin egoteko bere denbora hartzen duela ikusten badute, hori normalizat hartuko dute».

Gainerakoan, eszedentziak hartuta, «tarteka, komentarioak» aditzen dituela ere kontatu du: «'Ze ongi bizi zareten' esan izan didate. Tarteka, irri egiten diet eta kito. Batzuei beraiek ere badutela aukera esaten diet eta besteei fabrika gehiago deskantsatzen dudala». Esanak esan, berak garbi du: «Umeak tikiak direnean aprobetxatu behar da. Aita naizen aldetik umeekin disfrutatu nahi dut eta umeek aitarekin berdina. Hazten direnean, hori bukatuko da».

Euskaraz harro bizitzeko deia

Euskal Herrian Euskaraz taldeak Harrotze Astea egin du apirilaren 22tik 28ra, euskararen aldeko borroka karrikara ateratzeko asmoz. Eskualdean ere hainbat lekutan egin dituzte aldarrikapenak astearen barrenean. Ekimenean parte hartu duten hiru lagunek beren iritzia eman dute

A. LARRETXEA DONEZTEBE

Euskaldunak harrotzeko eta karrikara ateratzeko deia egina zuen EHE Euskal Herrian Euskaraz taldeak, eta horretarako Harrotze Astea antolatu zuten apirilaren 22tik 28ra. Eskualdean ere hainbat dira euskararen aldeko aldarriak karrikara atera dituztenak. Ekimenean parte hartu duten Maitane Maritorenak, Xabier Iriartek eta Kattalin Ezkerrak Harrotze Astean egindakoaren berri eman diote ТТИП-ТТАРА, eta euskararen aldeko borroka nola ikusten duten aletu dute.

Harrotze Astea aurkezteko bileran sortu zen Harrotze Astean ekimenak egiten aritu den taldetxo. Asmoa, ezabatze asteaz haratago, eskualdez eskualde bertzelako ekintzaren bat ere antolatzea zen. Bileran hainbat herritar elkartu ziren, eta koordinazio lantalde bat paratu zuten martxan, zerbait egiteko gogoia eta indarra zeudela identifikatu ondotik.

Pankartak eta pegatinak

Azken egunetan han eta hemen espainolez eta frantsez dauden karteletan pegatinak paratzen aritu dira, kartelak euskaraz izan daitezen aldarrikatuz. «Horrenbertzekoa da dugun asimilazioa, normalizat hartzen baitugu anormala dena: ez genuke normalizat hartu behar hemen kartelgintza guziaz espainolez izatea», azaldu du Maritorenak. «Ez zait iruditzen, desgraziaz, pegatina batek eragina egingen

duenik euskararen aldeko kontzientziarako. Baina, horrek ez du erran nahi ez denik beharrezkoa», nabarmendu du. Eta beren hitzetan, horrekin «aski ez denez», hizkuntza paisiaz haratago, fokua aisialdian paratu nahi

izan dute: «Identifikatu ditugu eremu batzuk kirolarekin lotuta daudenak, eta espainolaren presentzia kozkorra dutenak», azaldu du Ezkerrak. Gazteendako kirola «eragin gune garrantzitsutzat» dute, eta horregatik



Euskaraz ez diren seinaleen gainean pegatinak paratu dituzte. ТТИП-ТТАРА



Hainbat pankarta paratu dituzte eskualdeko herrietan. UZTITAKOIA

HARROTZE ASTEAN EGINDAKO EKINTZAK BIDEOAN BILDU DITUZTE

BEHARREKOTZAT DUTE AISIALDI EREMUAK EUSKALDUNTZEA

erabaki dute aldarrikapen batzuk paratzea horien bueltan: «Taldea funtzioa betetzen duten esparruak dira, eta aunitzetan euskara ez da bermatzen, giro erabat eralduna da».

«Kirolean dago klabea»

Horren harira, hainbat pankarta paratu dituzte eskualdean, eta aldarrikapen zehatzak ere egiten dituzte, kirol taldeetan, futboleko konparaziora, entrenatzaile euskalduna izatea, adibidez: «Behar dugu kontzientzia piztu entrenatzaile euskaldun batekin taldearen dinamika euskalduntzen dela, eta herri euskaldun bat izan nahi badugu izugarri inportantea dela dinamika euskaraz egitea», azaldu du Ezkerrak.

Gehiago sakondu du Maritorenak: «Kirolean dago klabea. Baztanen konparaziora, futbola eta espainola eskutik doaz. Euskaraz funtzionatuta, ikaragarria da egiten ahalko lukeena», nabarmendu du. «Gaur egun ez zaigu burutik pasatzen A ereduaren matrikulatzea seme-alabak, baina arratsaldean A ereduaren igortzen ditugu», gehitu du. Entrenatzaileek euskaraz mintzatzen jakitea «ezinbertzekotzat» jo dute: «Horrek euskaldunduko luke gibeletik heldu den gazteria aunitz. Baztanen futboleko ari diren mutiko gazte gehienak espainolez ari dira. Ikaragarria da», dio Maritorenak.

Kirolaz haratago, eta fokua batez ere gazteengan paratuta, sare sozialetan euskarazko erreferenteen falta dagoela uste du Iriartek: «Gazteok gero eta gehiago erabiltzen ditugu sare sozialak, eta modu nahiko basatian, eta hor erreferente euskaldunen presentzia nabarmentzea klabea da».

Harrotzeko «beharra»

Ekimenaren berri izan zutenean, ez zuten zalantzarik egin Harrotze Astea parte



Harrotze Astean parte hartu duten Kattalin Ezkerra, Maitane Maritorea eta Xabi Iriarte pegatinak eskuan dituztela. TTPI-TTAPA

hartzeko. Nork beretik, baina, hizkuntzaren biziberri-tzearen inguruko kezka presente dute egunerokoan. Horregatik, «harrokeriarik gabe», baina «harrotzeko» garaia dela uste dute.

Maritorenak azaldu du: «Zapalkuntza eta asimilazioa horrenbertzekoa da, ez gara kontziente, eta normalizatzen dugula. Harrotzatez hartzen dugula. Harrotzatez erran beharko genuke: 'Ni euskalduna naiz, eta ez dut inolako konplexurik euskaraz egiteko parekoari baimenik edo barkamenik eskatu gabe, lotsarik sentitu gabe, eta gaizki sentitu gabe'».

Iritzi berekoa da Ezkerra ere: «Batzuetan uste dut atzentzen zaigula badugula euskaraz bizitzeko eskubidea eta hori bermatzen ez zaigunean ez gara apenas asaldatzen». Eskualdeak duen «arnasgune» izaera ere nabarmendu du: «Euskararen arnasgune zabala da gure eskualde osoa... Eta hala ere, zenbat erdara aditu behar dugun, zenbat negozio ikusten ditugun espainol hutsezko kartelekin... Euskaldun izaten segitu nahi badugu ezinbertzekoak dira arnasgune hauek», nabarmendu du.

Iriartek sare sozialetan eta euskarazko edukietan paratu du fokua: «Gure edukia ez da inoiz seriotzat hartu, eta aunitzetan aditu behar izan dugu erdaraz eginez gero arrakasta handiagoa izanen genukeela. Hori da aldarrikatu nahi dudana, euskaraz ere egiten dugula». Bukarako puntua paratu dio Maritorenak: «Eta zuek ez baduzue egiten, ez du bertze inork eginen. Harrotzeko motibo gehiago!».

Borroka aktibatzeko nahia

Euskararen aldeko borroka ere mintzatu dira, horixe izan baita Harrotze Astearen helburuetako bat, euskararen aldeko aldarria karrikatzea. «Apal eta gaizki ikusten dut», halaxe mintzatu du Maritorenak. «Lekarozko institutuan lan egiten dut, eta ikusten dut alimaleko abidan badaoala beheiti euskararen erabilera. Larritzeko afera da. Ez dut uste astakeriarik

erraten ari naizenik erraten dudalarik ikasleen gutiengoa bizi dela euskaraz». Dena ez da beltza, ordea, eta aitzinera pauso batzuk ere eman direlakoan dago: «Bertze eremu batzuetan irabazi da: hizkuntza paisaian, administrazioan, kultur eskaintzan... aunitz aitzineratu da, dena ez da txarra, baina erabilerran...».

Maritorenarekin ados dago Iriarte, eta euskararen bizi-raupenaren gakoa euskararen presentzia sare sozialetan «bermatzearekin» lotu du: «Bertan dago kontsumitzen dugun guztia: eta klabea da gazteak euskaraz bizitzera animatzeko. Eskolan euskaraz egitetik, euskaraz bizitzera eta euskaraz gozatzera pasatzeko». Ados dago Ezkerra, eta bertze kezka bat bota du: euskarazko elkarrizketetan erdarak hartzen duen pisua, «ez bakarrik hitzetan, esaldietan eta egituretan ere bai».

**HARROKERIARIK
GABE HARROTZEKO
GARAIA DELA
USTE DUTE**

**EUSKARAREN
ALDEKO BORROKA
«APAL» DAGOELA
USTE DUTE**

Diskurtso propioa sortuz

Bide beretik, Iriarteren ustez, hagitx nabaria da, batez ere sortzaileen artean, jendeak bere sentimenduak gaztele-raz transmititzen dituela: «Sentsazioa dut euskara formalizat jotzen dugula, eta eremu informalean, umore zakarragoan, erdarara jotzen dela». Euskaraz gazte hizkera falta den «susmo faltasua-rekin» lotu du hori Maritorenak: «Euskaraz gazte hizkerarik ez duela erraten dute, baina hori ez da arrazoi hizkuntza uzteko. Gehiago da justifikazioa».

Euskararen aldeko «diskurtso falta» nabaritzen du Maritorenak inguruan: «Hainbertze aldiz erraten da, sine-tsi baitugu euskara jakitea eskatzea inposizioa dela eta euskalduna izatea pribilegioa dela, eta guk diskurtso horiei buelta ematen ibili behar dugu guk geurea sortu beharrean».

Bide beretik borobildu du hiruen arteko solasaldia Ezkerrak: «Sinetsi behar dugu gure eskubidea dela euskaldun izatea, eta euskaraz bizitzera. Galdetu behar diogu geure buruari zer izan nahi dugun: euskaldun edo Hegoaldean espainol».



Bi taldetan joan dira bazkideak. Irudian, taldeetako bat. UTZITAKOA



Bidaiara joandako bigarren taldea Atapuercan. UTZITAKOA

Sorian eta Burgosen izan dira elkarteko 112 bazkide

Lau eguneko bidaia egin dute bazkideek, eta Burgoseko eta Soriako inguruak bisitatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 22tik 25era Arkupeak elkarteko 112 kide bidaiara joan ziren Soriara eta Burgosera. Bi autobusetan egin zuten irteera, eta autobusetako bakoitzak ibilbide bat egin zuen; batzuk lehenengo Soriara joan ziren eta ondotik Burgosera, eta biga-

rran autobusak alderantzizko bidea egin zuen.

Lehenengo autobusa Soria aldera abiatu zen, eta bertako inguruak ikusi zituzten lehendabiziko egunean: San Saturio ermita, Alameda de Cervantes... Bazkaldu ondotik Vinuesara joan ziren eta handik Picos de Urbionera.

Bertan 2.000 metrotik gora dagoen Laguna Negra aintzira ikusi zuten.

Bigarren egunean Burgo de Osman barna ibili ziren. Bertako katedrala ikusi zuten eta handik San Esteban de Gormazera joan ziren. Arratsaldean, Burgosetik hurbil dagoen Sad Hill hilerrira joan ziren. Leku kurioa da, bertan grabatu baitzituzten *El bueno, el feo y el malo* pelikulako hainbat eszena.

Hirugarren eguna, aldiz, Burgosen pasatu zuten. Bertan, Unescok gizateriaren ondare izendatuta XII. mendeko Santa Maria Katedrala bisitatu zuten.

Azken egunean, laugarrenean, Burgos iparraldeko

Ojo de Guareñako kobazuloak bisitatu zituzten. Bertan, San Bernaberen kobazuloa ikusteko aukera izan zuten, erlijio gune bilakaturik dena gaur egun. Handik, Orbaneja del Castillora joan ziren bazkaltzera, eta bazkaldu ondotik, herria bisitatu zuten. Herria ikusita, etxerako bidea hartu zuten.

Bigarren autobusak, aldiz, alderantzizko bidea egin zuen, lehen bi egunak Burgosen eman zituzten, eta hurrengo biak Sorian.

Bi taldeek eguraldi hotza izan zuten lau egunetan, eta elurra ere izan zuten.

Hurrengo bidaia luzea Albariara eginen dute ekainaren 16tik 23ra.

Soinketa Eguna eta mariatxiak maiatzaren 30ean Donezteben

TTIPI-TTAPA

Maiatzeko azkeneko ortzegunetan, hilaren 30ean ospatuko dute Donezteben Soinketa Eguna. Egun inportantea izaten da elkarteko bazkideentzat, urte osoan ikasitakoaren erakustaldia eginen baitute kiroldegian. 12:00etan izanen da hori, eta ondotik, energia errekupe-ratzeko, 14:00etan bazkaria izanen dute Santamaria jatetxean.

Aurten, kirolaz gain bertze protagonista bat ere izanen du egunak, mariatxiak.



lazio parte hartzaileetako batzuk.

17:00etan hasita, bazkalondoa giotzen ariko dira Los Tajudos del Norte taldeko mariatxiak. 19:00etan bazkide bakoitza nor bere etxera itzuli-ko da.

Elikadurari buruzko ikastaroa eginen dute Leitzan

Elikadurari buruzko *Zure ongizatea elikatu* izeneko ikastaroa eginen dute maiatzaren 28an eta 30ean eta ekainaren 4an, 6an, 11n, 13an, 18an eta 20an 16:00etatik 18:00etara elkartuko dira udal aretoan.

Ikastaroa debalde da eta maiatzaren 24ra arte eman daiteke izena 948 45 08 78 edo 618 56 78 37 zenbakietara deituz.

Ikastaroa elkarteak antolatuko du eta Fundacion La Caixak emanen du.

Gabriel Urrutia izanen da Saldiasoko delegatu berria

Gabriel Urrutia Aizeaga izanen da hemendik aitzinera Arkupeak elkarteko delegatu berria Saldiasen. Orain arte Martin Urrutia aritu da lan horretan eta Gabrielekek hartuko dio lekukoa. «Eskerrik asko Martin hainbertze urtez egindako lanagatik, eta ongi etorri Gabrieli!».

Horrez gain, elkarteak jakinarazi du azken bileran sinatutako akordioaren arabera, kiroldegietako hileroko kuotetan ekainetik aitzinera %10eko deskontua izanen dutela bazkideek.

Hizkuntza eta kultura aniztasun besta Beran

Bortzirietako hizkuntza eta kultura aniztasun besta maiatzaren 25ean egingen dute

TTIPI-TTAPA BERA

Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen ekimez, azken hilabeteotan Bortzirietako hizkuntza eta kultura aniztasun besta antolatzen aritu da herritar talde bat, eta dagoeneko prest dute egitaraua. Maiatzaren 25ean egingen dute eta Bortzirietako herritar guztiei parte hartzeko deia egin diete.

Ekitaldiak arratsaldean egingen dituzte. 17:00etan, berriki Berara bizitzera etorri diren herritarrei harrera egingen diete herriko etxean eta ondotik, bisita gidatua egingen dute Beran barna. Besta gunean bukatuko dute buelta, Toki Onako estalpean. Han, 18:30ean, dantza tailerra egingen dute Gure Txokoako dantzariekin, eta 20:00etan, janari dastaketa egingen dute. Antolatzaileak jatorrizko herrialdeko edo kul-

turako jakiak prestatzeko gonbita egin dute.

Horrez gain, jatorrizko bertze hizkuntza eta kultura duten herritarrei ikusgarritasuna eman nahi izan diete, eta hala, eurentzat kuttuna den kanta bat aukeratzeko eskatu diete antolatzaileek, jatorrizko hizkuntzan eta euskarara itzulita izanen dena. Kanta guztiekin zerrenda osatuko dute, eta besta gunea girotzeko probestuko dute, euskarazko kantekin batera.

Hitzordua borobiltzeko, 21:30ean La Jodedera taldearen kontzertua izanen da. Kubatar musika tradizionala jorratzen duen taldea da eta, beraz, besta giro ederrean bukatzeko aukera izanen da.

Bertetik, maiatzaren 19an *Bidasoa 2018-2023* dokumentala ikusgai izanen da Lesakan, 18:30ean Harriondoan.



ESTIBALIZ AGIRRE LASA

Toki Onakoak matematikako olinpiadetan

Apirilaren 27an Nafarroako Matematika Olinpiadak egin zituzten Iruñean. 150 bat ikaslek parte hartu zuten, tartean, Toki Ona institutuko 2. DBHko borts ikaslek: Akior Martinez, Intza Txoperena, Asier Telletxea, Kaiet Erkizia eta Uxue Etxegarai. Kontatu dutenez, «esperientzia bikaina izan zen».

Arreta psikologiko-emozional faltarekin kezkatuak daude Bortzirietan

TTIPI-TTAPA BORTZIRIAK

«Bortzirietan arreta psikologikoa emanen duen zerbitzu duina jartzeko gestioak egiteko» eskatu diote Bortzirietako ikastetxeek, guraso elkarteek, udalek eta gizarte eta osasun ordezkariak Nafarroako Gobernuari, «gure eskualdean [Bortzirietan] eta ikastetxeetan dugun egoer larria» dela ohartarazita. Hezkuntza eta Osasun departamentuetan egin dute eskaera.

Arantzako Eskola Publikoak eta Guraso Elkartek, Arantzako Udalak, Berako Rikardo Baroja Eskola Publikoak eta Guraso Elkartek, Toki Ona Institutuak eta Guraso Elkartek, Labiaga Ikastolak, Jesusen Bihotza ikastetxeak, Berako Udalak, Etxalarko Landagain Eskola Publikoak eta Guraso Elkartek, Etxalarko Udalak, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Igantziko Eskola Publikoak eta Guraso Elkartek, Igantziko Udalak, Lesakako Irain Eskola Publikoak eta Guraso Elkartek, Tantarumairu ikastolak, Lesakako Udalak eta Bortzirietako Osasun Etxeko Zuzendariak, Erizain buruak eta Administrazio buruak sinatu dute idatzia, baina ikastetxeetako zuzendaritza eta irakasle klustroa dira «egoera larria azaldu» nahi izan dutenak.

«Geroz eta arazo gehiago»

Oharrean oroitarazi dute «nerabeek ikastetxeetan ordu aunitz» pasatzen dituztela, eta «bertan gure gizartearen gertatzen ari diren arazo aunitz azaleratzen eta detektatzen» dituztela: «Gure artean, geroz eta ugariagoak dira antsietate krisiak, depresioa, elikadura nahasmenduak, adikzioak (drogak, bideojokoak, mugikorra, apustuak...), harremanetarako arazoak, jazarpen arazoak, familia arazoak, autoestimua falta...». Gehiago ere bai: «Suiizidioa kontuan hartzeko» dela jakinarazi dute: «Nahiz eta momentuz gure inguruan

ez den gertatu, nerabeen suiizidio ahalegin kopurua areagotu egin da. Gure ikastetxeetan ere gero eta autolisi protokolo gehiago irekitzen ari dira».

Horri «ikastetxeetan areagotzen ari diren arazo psikologikoak gehitu» behar zaizkiola diote: «Geroz eta arazo gehiago sumatzen ditugu, eta geroz eta denbora eta baliabide guttiago ditugu benetan eraginkorra den erantzuna emateko». Irakasleen artean «frustrazio handia» sortzen ari dela ere azpimarratu dute oharrean, «ikasleak sufritzen ikusten ditugulako, ez dakigulako nola lagundu eta ez garelako laguntzera ailegatzeko. Ikastetxeetan orientatzaileak badaude, baina ez dute zertan psikologian formakuntzarik izan. Psikologoak izanda ere, ez dute ikastetxeetan terapiarik egiteko baimenik. Gainera, ez da inondik inora ditugun beharrik asetzeko adinako orientatzaile ordurik izaten». Egoera honetan, «itota» daudela onartu dute eta «arazoa denona» dela: «Ardura denona da, erantzukizuna denona da».

Erantzuna «behingoz»

Hala, «ikastetxeetan sortzen ari diren beharrei behingoz erantzutea» eskatu dute eta «ikasleei bertatik bertara arreta emanen dieten profesionalak izateko beharra» adierazi dute: «Hautematen direnean honelako arazoei aurre ez egiteak ikasleei kalte handiak eragiten dizkie orain eta baita etorkizunean ere. Haurraren edo nerabearen adina zenbat eta tikiagoa izan, orduan eta handiagoa izanen da kaltea eta bere iraupena». Arazoa larria dela gaineratu dute: «Gure haurrak eta nerabeak, gure altxorrik preziatuenak, arrisku psikologiko-emozional larrian daude». Eta guzia kontuan hartuta, «Bortzirietan arreta psikologikoa emanen duen zerbitzu duina jartzeko gestioak egitea eskatzen dugu».



lako Gazte Egunean parte hartu zuten gazteetako batzuk. UTZITAKOIA

Maiatzaren 18an ospatuko dute Gazte Eguna

Bazkariko txartelek 15 euro balio dute eta maiatzaren 10a baino lehen erosi beharko dira Puri Enean eta Errekaldean

A. LARRETXEIA

Besta giroan murgilduko da herria heldu den larunbatean, hilaren 18an. Izan ere, egun horretarako antolatu du Barraskilo Gazte Taldeak Gazte Eguna. Egun osorako ekitaldiak antolatu dituzte.

Eguna hasteko, 10:30ean txupinazoa botako dute. Ondotik, 11:00etan herri kirolen lehiaketa egingen dute gazteen artean, eta 12:00etan Elutxa txaranga ostatzuz ostatu ibiliko da. Herri bazkaria 14:00etan izanen da. Txartelak salgai daude 15 euroren truke, Errekalden eta Purienean, eta

maiatzaren 10era arte erosten ahalko dira.

Bazkaria bukatu ondotik, 17:00etan jolasak egingen dituzte, eta 19:00etan Elutxa txarangak karrikak girotuko ditu. Eguna borobiltzeko Sukena taldeak 21:00etan kontzertua emanen du eta, ondotik, DJ NLEZZek Gazte Egunari bukaera emanen dio.

Aurten ere parte-hartzaileek mahonezko galtzak eta kamisetak zuria jarri beharko dituzte. Txarangaren poteoa kenduta, gainerako ekitaldiak kiroldegi pareko estalpean egingen dituzte.



UTZITAKOIA

Larhunera mendeurrena ospatzeko

Agerra Mendi Taldeak eta Barraskilo Gazte Taldeak antolatuta, Larhongo tontorrera joan ziren 15 mendizale apirilaren 27an. Mendi Federazioa sortu zela 100 urte beteko dira maiatzean, eta mendeurrena ospatzeko antolatu zuten irteera. Tontorrean federazioko banderarekin eta ikurrinekin argazkia atera zuten.



TTIPI-TTAPA

Azienda Feria arrakastatsua izan da

Apirilaren 27an egin zuten herriko VII. Azienda Feria. Beren aziendak erakusteko aukera izan zuten herriko eta eskualdeko abeltzainek, eta bertako produktuen azoka ere izan zen. Aizkora erakustaldia ere egin zuten, eta bi saskiren irabazleak, Sergio Hernandez eta Gurutze Graciarena izan ziren.



Guillermo LARRAÑAGA doktorea
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuekin
- Tratamendu estetikoak, armiarma eta malformazioa
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa-Ekointerbentzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak

Centro Médico Bera
San Esteban 17, Bera

Telefonoa: 610 549 507



F. LANCHAS

Akutziladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679



Eramateko janaria
astelehenetik ortziralerara

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info





Kotto Alzugurenen omenezko dokumentalaren sustatzaileak. UTZITAKOAK

Kotto Alzugureni dokumentala egiteko diru bilketa

Espidobaita elkartea ari da dokumentala egiten. Hilaren 14an hasi eta ekainaren 16ra arteko epea dago ekarpenak egiteko

A. LARRETXEA

Heldu den urteko urrian 20 urte beteko dira Kotto Alzuguren herritarra Soriako espetxean hilda aurkitu zutenetik. Espidobaita elkartea haren bizitzari buruzko dokumentala prestatzen ari da, eta finantzazioa lortzeko diru bilketa kolektiboko kanpaina bat hasi du. *Itsulapikoa.eus* atariaren bidez egiten ahal da diru ekarpena, maiatzaren 14tik ekainaren 16ra bitartean.

Alzugureni buruzko *Lora tzen* dokumentalaren sustatzaileek azaldu dutenez,

ibilbide sakona egin zuen Alzugurenek herrian: kirola maite zuen eta futbolari eta mendizale amorratua zen, kultur ekimenen laguntzaile eta parte hartzaile izan zen, zinegotzi aritu zen eta Euskal Herriaren «sustatzaile eta defendatzaile» ere bazen. «Baina ez zuen bide erraza izan, itzal handiko zuhaitzei gertatzen zaien bezalaxe».

Bitan espetxeratua izan zen Alzuguren eta bigarren torturatua eta espetxeratua izan ondotik, 2005eko urriaren 31n Soriako espetxean hilik aurkitu zuten.

Gabriel Errandonea saritua bizitza osoan abeltzaintza ekologikoan aritzeagatik

TTIPI-TTAPA

Nabasturen baserriko Gabriel Errandoneari eman dio aurten CPAEN/NNPEK erakundeak *Abeltzaintza ekologikoari eskainitako bizitza osoa* saria. Sektorearentzat erreferentea da Errandonea, 1993an ekologikoan lanean hasitako lehen pertsonetakoa baita. Aitzindaria izan da abeltzaintza ekologikoan, eta ekoizpen ekologikoaren eta herrien garapen iraunkorrean oinarritutako bizitzaren defendatzaile sutsua. Pirinioetako bertze abeltzain batzuekin batera, Trigo Limpio



Nabasturengo Gabriel Errandonea.

kooperatibaren bultzatzaile izan zen. Kooperatiba horrek abeltzainen arteko laguntza sustatzen du eta zuzenean etxez etxe saltzen du haragi ekologikoa.

Eltzaurdia auzoko sarrerako zubia berri eta bidea zabaldu dute

A. LARRETXEA

Xantelerreka edo Eltzaurdia gisa ezaguna den auzoan zubia berritzeko lanak egin ditu berriki udalak. Auzoko sarrera inportanteena da zubia, eta berritzeaz gain, lanak aprobetxatuta bidea ere zabaldu dute. Auzotarren aspaldiko eskaera zen zubia berritzea

Iazko maiatzeko uholdeek nabarmen kaltetu zuten zubia, eta ezinbertzekoa zen berritzeko lanak egitea. Gainera, estuegia ere bazen, eta bihur-gunean egoteak arrisku egoe-



Moldatutako zubia. UTZITAKOAK

rak ekartzen zituen autoen artean. Gainera, istripuren bat ere gertatua zen bertan.

Udalak berak ordaindu ditu lanak, eta denera 111.513,60 euroko inbertsioa izan da.

MARTIX

- INGENIARITZA ELEKTRIKOAK
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK

⚡

- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) **636 617 450**

Legla, 23 - BERA

ZUBIONDO

JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...


T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com

ANTZUZELAI

S.L.

BERA - T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK



Labe Zar

Eztegara, 18 - BERA ☎ 848 410 115

Organo eta saxofoi kontzertua elizan maiatzaren 26an

Jose Luis Etxetxipia organistaren eta Ana García Caraballos saxofoi jotzailearen eskutik

AITOR AROTZENA

Lesakako Roqués Organoaren Lagunen Elkartek, udalaren laguntzaz antolatutako udaberriko bigarren kontzertua egingen dute maiatzaren 26an, igandean 18:30ean, San Martin elizan. Jose Luis Etxetxipia París organista eta Ana García Caraballos saxofoi jotzaile ezagunen eskutik *Dardarizoak* musika txundigarria joko dute, Mathias, Bedart, Barber, Holst, Williams, Auberson eta Jesus Guridiren XX. mendeko piezak, organo eta sasofoirako egokituak. Kontzertuko irudiak

elizaren barrenean pantaila batean proiektatuko dituzte eta, horri esker, publikoak koruan musika nola interpretatzen duten ikusi ahal izanen du. Ohi bezala, borondatezko ekarpena 5 eurokoa izanen da eta txartelak Telletxea eta Xagu liburu dendan eta egunean berean sarreran eskura daitezke.

Ziklo honen lehen kontzertu arrakastatsua apirilaren 28an eskaini zuen Oscar Candendo Zabala organistak, Mikel Galardi Txoperena trionpetista lesakarrarekin batera.

VII. Bortzirietako Abesbatza Topaketa maiatzaren 19rako prest Harriondoan


Giltzarri abesbatzak, Lesakako udalaren eta bertze zenbait erakunderen laguntzaz antolatutako VII. Bortzirietako Abesbatza Topaketa **maiatzaren 19an** egingen dute, igandean 13:00etan hasita Harriondoa kultur etxean. Giltzarri abesbatzarekin batera, Urruñako

Kantauri Abesbatza eta Coral Ciudad de Caspe abesbatza ariko dira kantari.

Bertzalde, **maiatzaren 25ean**, larunbatean 20:00etan Legazpiko Santikutz abesbatzak kantatuko du Harriondoko kaperan. Emanaldi hau ere Giltzarrik antolatu du.

Jon Madariaga eta Oihan Muñoa txapeldun

Nafarroako Kirol Jokoetako eskuz binakako pilota txapelketan, alebin bigarren mailan txapeldun izan dira Arkupe elkarteko Jon Madariaga eta Oihan Muñoa. Apirilaren 27an Lizarran jokaturako final ikusgarrian 18-15 irabazi zieten Baztango Txarutako Ripari eta Irazokiri.



UTZITAKOIA



BETI GAZTE

'100 urte, 100 mendi' Bianditzen

Nafarroako Mendi Federazioaren mendeurrena gogoratzeko, *100 urte, 100 mendi* lelopean, apirilaren 27an Bianditzera igo ziren Beti Gazteko mendizaleak eta Gaztin Bordan gosaldu zuten. Eguraldi euritsua izan zuten, baina halere, mendeurrenarekin bat egin zuten, giro ederrean.

Aguirrezabal
IGOGAILUAK

Mugikortasun urria dutenentzat jasogailuak.
Igotzailuak | Proiektuak
Karga-jasogailuak, plataforma hidraulikoak
Plater-igogailuak

MARKA GUZTIEN IGOGAILUEN MANTENTZE LANAK

ascensoresaguirrezabal@hotmail.com
ascensoresaguirrezabal.com

Arretxe Ugalde ind.
Ezurriki kalea, 29 IRUN
943 612 821

24 orduko zerbitzua

Jauriena

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak

Denda, 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Eguzki-panelen instalazioa
eta dirulaguntzen gestioa

Alberto RETEGI
abokatua

948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Maiatzaren 18an ospatuko da Udalerri Euskaldunen Eguna

'Zubiak zehazka' goiburupen egitarau zabala prestatu dute eta aitortza eginen zaio Euskal Herrian Euskaraz taldeari

A. AROTZENA

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) eta Lesakako Udalaren eskutik, Udalerri Euskaldunen Eguna antolatu dute maiatzaren 18an Lesakan, *Zubiak zeharka* goiburupen. Egun horren xehetasunen berri eman zuten maiatzaren 8an herriko etxean Martin Aramendik (UEMAko lehendakaria), Eneko Fernandezek (euskara zinegotzia) eta Itziar Telletxeak (abestia egin duten musikarien izenean).

Eneko Fernandezek nabarmendu duenez, «Lesaka udalerri euskalduna da, eta harro gaude lesakarren izaeraren eta nortasunaren ezaugarri nagusienetako euskara izateaz, euskaldunak izateaz. Horregatik, pozgarria da Udalerri Euskaldunen Eguna herrian izatea. Ilusioz aritu gara lanean azken hilabeteotan, eta maiatzaren 18an ilusio horretara batzeko deialdia egin nahi diegu herriko, Bortzirietako eta Euskal Herri osoko euskaldun guztiei. Hasieratik, gainera, argi izan dugu honek ezin zuela izan UEMA-

ren eta udalaren arteko kontua soilik, ekimen herrikoa baizik. Herriko elkarte eta eragileei dei egin diegu elkarlanean eguna antolatzeko, eta bikain erantzun dute».

Euskal Herrian Euskaraz taldeari aitortza

Udalerri Euskaldunen Egunean, ohikoa izaten da euskararen aldeko lanean nabarmendu den elkarte, herritar edo eragileren baten lana aitortzea. Aurten, UEMAK, Lesakako Udalak eta antolakuntzan aritu diren herriko eragileek horrela erabakita, Euskal Herrian Euskaraz taldeak jasoko du omenaldia, maiatzaren 18an eguerdian eginen den ekitaldi instituzionalean. Izan ere, EHE sortzeko lehen bilerak Lesakan egin zituzten, eta hasierako talde sortzaile

KONTXI ERRO ETA ANTON ERKIZIA IZAN ZIREN EHE-KO TALDE SORTZAILEAN

hartako kide ziren Kontxi Erro eta Anton Erkizia euskaltzale lesakarrak. Horien lana aitortzea erabaki zuten antolatzailleek, baina omenaldia talde sortzaile osoari eta EHEK urtetan euskararen alde egin duen lanari zabaldua.

'Solasa izan' abestia

Udalerri Euskaldunen Egunean harira, *Solasa izan* izeneko abestia ere egin dute, elkarlanean. Ekhiñe Zapiainek eta Itziar Telletxeak idatzi dituzte hitzak, eta Arranoband taldeak sortu du musika. Ibai Gogortza aritu da teknikari. Abestian eta bideoklipen lesakar aunitzek hartu dute parte. Bideoklipa, berriz, Mikel Leizaren lana izan da.

Egitaraua

09:45ean diana, soinulari eta txistulariekin, Harriondoa kultur etxetik abiatuta. **10:00etan** UEMAREN Batzar Nagusia eta Euskara Taldeen topaketa, *Euskararen olatu berria sortzeko gakoak*. Haurrentzako herri kirolak. **12:30ean** ekitaldia plazan. **13:15ean** fanfarrea, Lesakako Musika Eskolako ikasleekin. **14:30ean** bazkaria, Bidenabar taldeak girotuta. **18:00etan** bertso-triki-poteoa, Maddi Ane Txoperena eta Josu Sanjurjorekin. **20:00etan** larrain dantza herrikoa, Lesakako gaiteroekin. **20:45ean** erromeria, Trikidantz taldearekin. **23:30ean** DJ festa Fifi & Fefarekin.

Palestinako egoera ezagutzeko erakusketak

Palestinako egoera eta krisi humanitarioa hobeki ezagutzeko erakusketa bikoitza ikusgai da liburutegian maiatzaren 6tik 30era, Mundubat elkartearen eta udalaren eskutik. Alde batetik, *Gatazka. Israelgo Estatuaren sorrera eta Palestinako okupazioa* erakusketak, panelen bidez, agertzen du azken hamarkadetak historia. Bertzetik, Mohammed Zaanoun argazkilaria *Nire bidaia Gazako ihesaldian* argazki erakusketak gaur egungo Palestinako krisi humanitarioa erakusten du.

Herriko argazki zaharrak biltzeko deia berriz

Badira hilabete batzuk herri-talde bat Lesakako fototeka (argazki zaharren bilduma) osatzen hasi zela. Udalak laguntzen du ekimena eta bertze bulkada bat eman nahi dio. Argazki zaharrak etxean izan eta ekimena lagundu nahi dutenek aski dute herriko etxera joatea. Astelehenetan (09:30-13:00) udaletxean izaten da honetan ari den lantaldea, baina, bertzela, udaletxeko bulego orduetan utz daitezke argazkiak, astelehenetik ortzegunera (07:30-15:00) eta ortziraletan (07:30-14:00).

KAGU LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEROKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAN FOTOKOPIAK
- LIBURU EGINAKO INPRIMAKETAK
- ESKALERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

BIDASOA
GURPILAK - GASOLINDORRIAK
948 638 232

Gurgil eskeintze berezikiak
24h-ko asistentziak erregidoretan
1A7 euroko zerbitzu dohaiak
Gosaildegia 24h irekita

Alkaga Industrialdia
Zubi Kalea 6
31770 Lesaka (Nafarroa)

Noain-Eskiroz Industrialdia
Y Kalea 10
31110 Noain (Nafarroa)

USOA kooperatiba

50 urte
1934-2024

948 635 214 605 631 244

ETXALAR

Makroproiektu eolikoa martxan jartzeko pausuak

Azkua Bizirik plataforma Zelena Renewable enpresaren proiektua gelditzeko ahalik eta arrazoi gehien biltzen ari da

IRUNE ELIZAGOIEN

Berriki jakin da non eta zer egin nahi duen Zelena Renewable enpresak. Ondoko mapan ikus daitezke haize erroten kokapenak eta pistak nondik egin nahi dituzten. Azkua Bizirik plataformak deia egin du, «denak elkartu eta Etxalar herria defendatzeko». Azkua, Orizki eta Etxalar bizirik mantendu nahi badira, «herritarrak elkartu, banderolak jarri eta herria ez dela kanpoko interesengatik suntsitzen utziko erakustea da helburua». Banderolak salgai daude kultur etxean eta Herriko Okindegian.



Haize-erroten kokapena Azkuan.

Proiektuaren kontrako arrazoiak biltzen

Azkua Bizirik Plataforma, hogei eguneko epean, proiektu honek aitzinera egin ez dezan ahalik eta arrazoi gehien biltzen ibili da, kokapenen desegokitasuna azpimarratuz. Hona hemen arrazoi horietako batzuk: 23 km. pista berri egin beharko lirateke, 50 hektareako azalera hartuko lukete pistek, % 52ko maldak eta men-

doitzak; eoliko bakoitzak plataforma bat beharko luke eta plataforma horietako bakoitzak 6.600 metro koadro beharko lituzke (aireportuko pisten antzera, finak eta luzeak); 21 metro diametroko zimentazioak; 115 metroko zutabeak eta 81 m. luzeko palak dituzten errota, guztira 195 m. alturako eolikoak; 6 metro zabaleko pistak egin beharko lirateke (kunetak eta ezpondak aparte gehituz)...



ARANTXA DANBORIENA

Lurriettederra auzoko bestak

Ohiturari eutsiz, maiatzeko lehenengo igandean, aurten maiatzaren 5ean, ospatu zituzten Lurriettederra auzoko bestak. Haur, gazte eta heldu, 40 bat auzotar elkartu ziren Landaburuko bordan prestatu zuten asuan. Erran gabe doa giro bikaina eta umore ederra izan zutela ospakizunean.



LAURA ELIZAGOIEN

'Pantailetatik kanpo' jostetan

Pantailetatik kanpo tailer zikloaren barruan, maiatzaren 3an partxisean eta xakean jokatzen ikasteko aukera izan zen Pello Apezetxea Kultur Etxean. Adin guztietako jendeari idekitako deialdia zen eta hainbat lagun elkartu ziren eta pantailai begiratu gabe ere josta daitekeela nabarmen gelditu zitzairen.

**PRIM, c.b.**
Fisioterapia Zentroa

 **K-STRETCH**

Etorri eta probatu debalde!

San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

 Centro Prim  regina tolosaechepeare

ELUTSA  

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENUAK PINTXOAK - BOKATZEAK RAZIOAK

Andueta, 13 - ETXALAR T. 948 635 191

 **TXIMISTINDAR**
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Ind., 42 Bera.
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65



Ibilaldia bukatzerakoan otordutxoak izan zuten txirrindulariek. I. ELIZAGOIEN

180 txirrindulari atera dira Etxalarko III. BTT ibilaldian

Antolatzaileek eskerrak eman dizkiete laguntzaileei eta herriko boluntarioei

IRUNE ELIZAGOIEN

Balorazio positiboa egin du Etxalarko BTT antolakuntza taldeak. 196 lagun izan ziren izena eman zutenak, baina egunean bertan 180 txirrindulari etorri ziren proba parte hartzera. Medikua eroriko batzuk tratatu behar izan bazituen ere, ez zen arazo larri edo min harturik izan. Goizeko 9etan hasi zen proba Etxalarko plazan, eta bukatu zutenean denek izan zuten frontoian azken otordutxo egiteko aukera. Proba bukatu zuten guztiek lepokoa hartu zuten, eta parte hartzaileen

artean 90 bat sari zozketatu ziren. Antolatzaileek lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiete ibilaldia aitzinera ateratzeko izan diren laguntzaile guztiei, baita boluntario lanean aritutako herritar guztiei ere.

Udaleku irekiak

Aurten ere, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen eskutik, uztailearen 1etik 26ra, 10:00etatik 13:00etara Landagain eskolan udaleku irekiez gozatzeko aukera izanen da. Izen ematea maiatz erdi aldeira irekiko da.



Etxalartarrak Alkurruntzeko gailurrean. MAITE GOIENETXE

'100 urte 100 mendi' ekimenarekin bat egin ez etxalartarrak Alkurruntzera

I. ELIZAGOIEN

Nafarroako Mendi Federazioaren mendeurrena ospatzeko 100 urte 100 mendi ekimenarekin bat egin du Altxata Etxalarko Kultur eta Kirol Elkarteak ere, eta Alkurruntzera egin zuten ateraldia apirilaren 27an. Apirilko azken larunbatean 08:00etan herri-

tik abiatu eta Eskisaroin kotoxeak utzita igo ziren Alkurruntz tontorrera. 12 kilometro luze eta 934 metroko desnibela duen irteera, lau ordu inguruan egin zuten, Altxatako kideek, Zanpingorri mendi taldeko mendizaleek eta egunean animatu ziren hogeit bat herritarrek.

III. Herri Aitadan parte hartzeko zerrenda Elutsan

Herri Haitada berriz ere martxan jartzera animatu dira. Sara, Ainhua, Urdazubi, Zugarramurdi, Bera eta Etxalarren artean antolatzen zen eta gauzatzeko bidean da, udazkenean Zugarramurdi. Elutsan paratu da jokoetan parte hartze- ra apuntatzeko zerrenda.

Usoa kooperatibaren 50 urteak ospatzeko besta prestatzen

Usoa kooperatibaren mende erdia ospatzeko besta eguna antolatzen hasiak dira. Maiatzean, otordu baten bueltan ospatu nahi dute. Junta berria ere osatu dute Patxiku Irisarri eta Juan Antonio Indaburu sartuta. Langile berria bilatzea izanen da bertze lehentasuna.


BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563
 Bidasoa, 76 - afea 21-22 • BERA


Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA • GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

LAN BERTIKALAK |
ALTUERAKO KIMAKETA

 +34 628 85 00 27
 +34 676 19 75 60

 boralan04@gmail.com

 Lesaka, Nafarroa



Elizateko moldaketa bukatzeko lanak esleitu dituzte

Izan daitezkeen alegazioen esperoan, 390.000 eurotan egingen ditu Asprosur Bussines enpresak lau hilabete eta erdiko epean

ANA ETA ITZIAR

Maiatzaren 3an egindako osoko bilkuran, udalak esleitu zuen Elizateko birmoldaketa bukatzeko egin gabe gelditu ziren lanak.

Hiru enpresa aurkeztu ziren lan hauek egiteko prest eta Asprosur Bussines SL izan da esleipenduna, 390.000 eurotan (gehi BEZa). Orain alegazioen epea irekitzen da, eta ondotik, kontratua hilabete inguruko epean formalizatu ahal izanen dela aurreikusi dute. Gero lau hilabete eta herdi izanen dute lana bukatzeko.

Igerilekuak

Lizar Sein Arburua izanen da uda honetan ere igerilekuen garbitasuna, sarrerak eta ostatuaren kudeaketaren ardur hartuko duena, 1.500 euro gehisarreraren diruaren %25aren truke.

Igantzi Bizirik

Zelena Renewable enpresak Ingurumen Departamentuan aurkeztu duen hasierako txostena dela eta, Igantzi Bizirik bere kezka adierazi du. Apirilaren 30ean bilera egin zuten eta gehiago etorriko dira.

Ramontxo eta Seberino Reteği garaile musean

Joan den maiatzaren 3an Bil-toki elkartearen jokatu-tako mus-tximista saioan ere partaidetza aipagarria izan zen. 10 bikote aritu ziren kartak mahai gainean jarri eta musean. Oraingoan irabazleak Ramontxo eta Seberino Reteği izan ziren. Zorionak!



Maiatzaren 3ko finalistak.



ESKOLAK UTZIA

Eskolako ikasleak Hondarribian

Ikasturte bukaerako kanpaldiak hasi dira. Oraingoan lehenbiziko ziklokoen txanda izan da. Hondarribian egin zuten ateraldia eta ederki ibili ziren. Maiatzaren 8tik 10era Zarautzera joatekoak ziren bigarren ziklokoak eta maiatzaren 22ean Haur Hezkuntzakoak Irisarrira joanen dira.

Oihan Telletxea Euskadiko futbol selekzioarekin

Euskadiko kadete mailako 16 urtez behe-tiko futbol selekzioarekin ari da Oihan Telletxea Sein herritarra. Vigo eta Cadizko sailkapen faseak gainditu eta apirileko azken asteburuan finalerdia irabazi zion Madrili, baina Kataluniaren kontrako finalean 0-1 galdu zuen Euskadik.



UTZITAKO



Fernando Celaya
TERAPIA NATURALAK

Gure kontsultan honako patologiak aztertuko ditugu:

- Lixeriketa aparatuko patologiak
- Gihar patologiak
- Neurologiak patologiak
- Arnas aparatuko patologiak
- Ginekologia patologiak
- Giltzurrun eta gernu aparatuen patologiak
- Zirkulazio eta endokrino patologiak

Erabiltzen ditugun terapiak:

- Osteopatia
- Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
- Akupuntura
- Fitoterapia Txinatarra
- Reiki...

Salis Hiribidea, 24 - IRUN

639 955 324

www.fernandocelaya.com

Arantza Rock jaialdirik ez da izanen aurten

Gazteen artean sumatu duten «borondate faltagatik», gazte asanbladak aurtengo jaialdia alde batera uztea erabaki du

NEREA ALZURI

Apiril akabailan zabaldu zuen gazte asanbladak aurten Arantza Rock ez dela eginen. Aipatu zutenez, «ez da erabaki erraza izan, baina gazteen artean sumatu den borondate falta dela eta, koordinazio taldeak ez du nahi-ko indarrak ardura hartzeko».

Egungo gazte asanblada berantolatzeke beharra ikusita, maiatzaren 4an bilera irekia egin zuten. Bi helburu zituen deialdiak: batetik, gazte asanbladaren kide aktiboa izateko gonbita egitea, eta bertzetik, laguntzaile taldea sortzeko au-

kerak mahai gainean paratzea. Izan ere, gaur egun gazte asanbladan bortzikidek hartzen dute parte aktiboki eta euren ustez, garrantzitsua da etorkizunean izaten ahal diren Arantza Rock edo bertzelako ekimenetan sustengua izatea. Erran duenez, «espero bezalako erantzuna izan zuen bilerak: egungo kideez gain, gazte bat agertu zen».

Egoera zaila bada ere, gazte asanbladak itxaropentsu segitzen du eta taldea irekia dela oroitarazi du. Whatsapp taldea sortuz informazioa partekatzen segitzeko prest dago.

Eskolartekoan Kattin Madariaga txapeladun

Apirilaren 26an egin zuten Nafarroako Eskolarteko Txapelketaren 38. edizioa, eta Kattin Madariaga Apaolaza herritarrek jantzi zuen txapela. Nafarroakoa irabazita, Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketarako txartela lortu du. Zorionak!



Kattin Madariaga txapela jantzita. NBE

Zelenak aurkeztu duen txostenaren kontra lanean ari dira herritarrek

TTIPI-TTAPA

Arantza Bizirik taldearen susmoak bete dira eta etorri dena «espero baino okerragoa» izan dela erran du. Zelena Renovable enpresak zer egin nahi duen eta eolikoak non paratu nahi dituen jakinarazi du. Azkua proiektuaren barrenean, hamabi eoliko paratu nahi ditu eta horietako lau Bulatxiki gainean alde batera eta bertzera: Zepuru aldetik Abelu aldera.

Horrat joateko bidea ere Arantzik egin nahi du: sei metroko bideak ireki nahi ditu, belaiak erdiz erdi gurutzatuz eta etxe eta baserrien ondotik pasatuz. Zehazki, Oskozenea baino lehen goiti hartuz, Txolberro ondotik pasatuz Meakara egin nahi dute bidea, Auzmartineko borda eta Landatxeko bordako belaietan barna Txapatín bordara eta handik Bulatxikira.

Goian, berriz, 195 metroko eolikoak paratu nahi ditu eta horretarako «lur mugimendu handiak» aurreikusi ditu Arantza Bizirik-ek. Baita «linea elektrikoak lur azpian sartzeko zangak, transformazio-azpies-tazioa eraikitzeko zimenduak egin, ebakuazio linea...» ere.

Enpresak aurkeztu duena hasierako txostena da eta horren kontra lanean ari da orain plataforma. Arantza Bizirik taldeak ez ezik, udalak, baserriarrek, zerbitzuek, ehiztariek eta bertze hainbat eragilek proiektuaren kontrako idatziak aurkeztekoak dituzte (Nahi duenak *evaluacion.ambiental@navarra.es* erida-tzi). Gaiak kezka sortu du, eta horren seinale da herritarren erantzuna. Azken batzarrean 40 lagunetik goiti bildu ziren eta dagoeneko ehun bat banderola saldu dituzte.

Azken prestaketak igandean eginen den XI. Mendi Itzulirako

N. ALZURI

Igandeko antolaketa lanetan buru-belarri ari dira Ekaitza Elkarteak, bitarteko hilabeteak eta egunok nahiz igandea intentsioak izaten baitira.

XI. Mendi Itzulia da aurtengoa eta gustukoa da mendizale aunitzentsat. Igandean ere, Aran-

tzako mendiak tontorrez tontor zeharkatzeko gonbita egin da. 07:00etatik 08:00etara abiatuko dira plazatik. Aitzinetik izena eman nahi duenak *inscripciones.nafarmendi.org* atarian egin behar du (maiatzaren 17ko 10:00 arte) eta bertzela, egunean bertan, 06:30etik 08:00etara plazan.

ola
SAGARDOTEGIA

Maiatzak 25 larunbata, 20:30ean

EUSKAL KANTU AFARIA
BANKAKO MENDI TARREKIN

Sagardotegi menua,
kafea eta kopa

Erreserbak **45€**
943 623 130

Lu's Ibarra

Zurekin DISEINUAK

SUKALDEAK,
LURRAK,
ARMAIRUAK,
ATEAK, TEILATUAK,
EGUR LANAK...

KANPO NAHIZ BARNE DISEINURAKO BEHAR DUZUNA

Kanttenberri, 3 BERA | Tef: 722 52 14 71

Andoni Espelosin da Ulibeltzak elkarteko lehendakari berria

Heldu den urteko Nafarroako Kirol Jokoetan parte hartu nahi duen taldeari kamisetak ordaintzea erabaki zuen batzarrak

MAIDER PETRIRENA

Ulibeltzak elkarteak urteko batzarra egin zuen apirilaren 26an. Zuzendaritza batzordeko karguak banatu zituzten eta Andoni Espelosin dalehendakari berria eta Iñigo Agesta lehendakari ordea, Haritz Bereau idazkaria eta Joana Hernandorena diruzaina. Bokalak, berriz, Koldo Herrera, Maite Aizkorbe, Jon Anzizar eta Aitor Etxalar izanen dira. Gainerakoan, elkartearen zerikusia duten gaiak landu zituzten bileran: garajeko obra, kanpoko toldoak auzolanean

aldatzeko proposamena, barbakoa berria, garbitzaileen kontratua, bazkideen bajak edo kanpoko barandaren aldaketa. Gainera, heldu den urteko Nafarroako Kirol Jokoetan parte hartzeko asmoarekin daude eskolako bosgarren eta seigarren mailakoak eta, elkarte baten izenean parte hartu behar dutenez, Ulibeltzak elkartearen izenean ateratzea eta, laguntza gisara, kamisetak ordaintzea onartu zuten. Kadeteak ere badira, baina norbaitek entrenatu behar ditu eta boluntarioak behar dira.

Lekunberriko Farrufest Batukadan

Farrufest Batukadaren hirugarren edizioa ospatu zen maiatzaren 4an Lekunberri. Sunbillan asteartero talde eder batek batukada ikasten gozatzen du. Hauetako batzuk Lekunberri izan ziren.



MAITE IBARRA

Eneit Bertiz garaile Saltoki Galtzagorri Challengean

Challenge Saltoki Galtzagorri BTT saria jokatu zen apirilaren 28an Izkuen. Eneit Bertiz Apezteak 23 urtez azpiko kategorian garaipena lortu zuen. Sailkapen orokorrean, hirugarren postua eskuratu zuen.



AMAIA APEZTEKXA



ALICIA DEL CASTILLO

Ameriketako ibilitako artzainen topaketa

1987an hasi ziren elkartzen Ameriketako artzain ibilitako sunbildarrak eta aurten ere bildu dira maiatzaren 1ean egindako ospakizunetan. Eguerdian familia argazkia atera zuten eta Bustitz Ostatura *highballa* hartzera joan ziren. Bertan bazkaldu eta argazki zaharrak ikusi zituzten.



JUAN TOMAS LATASA

Mendizale taldea berriz ere ibilian

Berriki arte egiten zen bezala eta herriko mendi taldeari bultzada bat emateko intentzioz, lagun talde bat hilero igande batez mendi ateraldian antolatzen hasiak dira. Lehena apirilaren 28an egin zuten. Adira joatekoak ziren baina denbora iragarpengatik Itzagara joan ziren.

LIZUN
GAZTANDEGIA

Sunbilla - Tel: 948 450 862

BORDAKO
Carnes Sein Haragiak, S.L.

Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com



Errekako jokalariek maiatzaren 4ko partidari. UTZITAKOIA

Errekako gizonetzkoen taldea kopako finalera

Maiatzaren 18an jokatu dute kopako finala Zizur Nagusiko Ardoi BM taldearen kontra

TTIPI-TTAPA

Ustekabea eman du Errekako gizonetzkoen senior taldeak. Ligako lauko finalean emaitza kaxkarrak lortu ondotik, kopako finalera sailkatzea lortu du. Maiatzaren 4an jokatu zuten finaldia ligako partida denak irabazi dituen BM Loyola taldearen kontra, eta partida irabazita finalerako txartela lortu dute.

Finala maiatzaren 18an, larunbata, izanen da kiroldegian Zizur Nagusiko BM Ardoi taldearen kontra. Ondotik, ospakizunak borobiltzeko, afaria egingen dute Santamarian.



Haurrak iazko Erreka Egunean.

Finalaren ondotik ere ospakizunetan segituko du elkarteak ekainaren 1ean ospatuko baitute aurtengo Erreka Eguna. Ekitaldiari buruzko xehetasunak hurrengo aldizkarian.

Argazki zaharren bilduma osatu nahi du udalak

Udalak herriko argazki zaharren bilduma egin nahi du. Horretarako irudi bilketa hasi dute. Argazkiak herriko etxera eramane behar dira 08:00etatik 14:00etara edo doneztebekoudala@gmail.com helbidera ere bidaltzen ahal dira. Maiatzaren 31 da eramateko azken eguna.

Andrea Mindegia judo egokituan txapeldun

Andrea Mindegia Iribarren herritarra judo egokituko txapeldun izan da bigarren aldiz. Aurtun, gainera, gerriko beltza soinean. Irudian Noelia Ariztia entrenatzailearekin eta Gaxuxa Zelaieta judokarekin ageri da. Zorionak!



UTZITAKOIA

Mendeurrena Mendaurren ospatzen

Erreka Mendi Taldea eta Sunbillako Ulibeltzak Mendaurren joan ziren apirilaren 27an Euskal Herriko Mendi Federazioaren mendeurrena ospatzeko. Eguraldia lagun izan ez bazuten ere, talde polita bildu zen ospakizunera, eta tontorrean argazkia atera zuten bi taldeetako mendizaleek elkarrekin.



UTZITAKOIA

Futbola eta literatura lotuta

Malerreko Txuri-urdinak peñak haurrentzako literatura lehiaketa antolatu du. Lehen saria Emanuely Dias Nascimentok lortu du, bigarrena Elai Irisarri Telletxeak eta sari berezia Nahia-ara Erasunek. Sari banaketa maiatzaren 5ean egin zuten eta irudian irabazleak, peñako ordezkariak eta irabazleak ageri dira.



UTZITAKOIA

Palestinaren aldeko elkartasun eguna maiatzaren 18an

Larunbatean lortutako diru guztia Yala Nafarroa Palestinarekin Plataformara bideratuko dute

ARKAITZ MINDEGIA

Palestinaren aldeko elkartasun eguna antolatu dute maiatzaren 18an Iturenen. Larunbat goizerako hainbat ekitaldi antolatu dituzte, elkartasun argazkiarekin eta Palestinako menu goxoa izanzen duen herri bazkariarekin borobilduko dena.



'Hijas de la Nakba' filmaren kartela.

Egitarau zabala

Maiatzaren 18an, larunbatean 11:00etatik 14:00etara tailerrak egingen dituzte: serigrafia (ekarri zure kamiseta), banderola egitekoa (ekarri oihal xuria) eta txapa tailerra izanzen dituzte. 12:30ean ipuin kontalaria izanzen dute. 11:00etatik 14:00etara bigarren eskuko azoka ere egingen dute eta horretarako norbere etxeko gauzak (liburuak, arropa, tresnak...) eramateko deia egin dute. Ortziraletik igandera Palestinaren historiari buruzko erakusketa izanzen da herriko etxeko ganbaran eta genozidioaren aurkako arte lanak ere ikusgai izanzen dira plazan. 12:30ean *Hijas de la Nakba* dokumentalaren proiektu

zioa egingen dute. 14:00etan elkartasun argazkia aterako dute eta gero herri bazkaria izanzen dute, Palestinako menu goxoarekin.

Bazkarirako txartelak

Bazkarirako txartelak 15 eurotan salgai daude Elgorriagako Ostatuan, Iturengo Ostatuan, Zubietako Ostatuan, Gazteluko Ostatuan eta Doneztebeko liburutegian. Lortutako diru guztia Yala Nafarroa Palestinarekin Plataformara bideratuko dute.

Akitzeko, 18:00etan *Euskal armagintza: gerra hemen hasten da* hitzaldia izanzen da, Bake-ekintza antimilitarista taldeko kide baten eskutik.

'Udaberri, intsektuak eta loreak' eskolan

Azken hiru hilabete honetan Haur Hezkuntzan *Udaberria, intsektuak eta loreak* gaia lantzen ari dira. Teoriaz gain, praktika ere egin dute eta beldarren arrautzak izan dituzte eskolan, beraien prozesu interesgarria (arrautza, beldarra, krisalida, tximeleta...) bizituz.



Beldarra eskolan.



ESKOLAK UTZIA

Pello Añorga idazlearen bisita

Apirilaren 23ko Liburuaren egunaren harira, Pulunpa eskolako irakasle eta ikasleek hainbat ekintza egin dituzte. Akitzeko, Pello Añorgaren bisita izan zuten. Oartzungo idazle eta ipuin kontalaria maiatzaren 3an etorri zen eskolara eta bertan bi saio bikain eskaini zituen.



UTZITAKOA

Herritarrak Iruritako Mendi Duetloian

Maiatzaren 1ean jokatu zen Iruritako Mendi duatloian laugarren edizioa. Berroetako mendi lasterketan bezala, herritarrek ere parte hartu zuten. Aritz Fagoaga, Javier Sein, Gorka Fagoaga, Mikel Alzuri eta Oier Mikelarena aritu ziren. Eguraldia ez zuten lagun izan, baina gustura gelditu ziren.

LIDERA

HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

INGURUNE BERRI BAT
ZURE IRRIBARREARENTZAT

asteleheneetik ortziralera

08:00-13:00

15:00-20:00

larunbatetan goizez

Iturrunzubiko plaza. 9-10 • 31770 LESAKA

Tel. 722 662 478 | lidera@hortzklínika.es

@liderahortzklínika



Marga Erdozain boluntarioa Errigorako eskaerekin, Donezteben.

Errigorako 188 olio eta 197 kontserba banatu dituzte

Malerrekako eta Bertizaranako herrietatik guztira 72 eskaera bildu dituzte Donezteben

TTIPI-TTAPA

72 eskari guztira, tartean, borts litroko 188 olio bidoi eta kontserben 192 lote. Datu horietan utzi ditu Errigoraren udaberri honetako *Eskutik esku-rra* kanpainak.

Oliba olio birjina estra, ardoa, kontserbak, arroza, fruitu lehorrak, pasta eta lekale sortak izan dituzte herritarrek aukeran eta guztira 72 eskaera izan dituzte. 72 eskaera horiek Doneztebetik, Donamaria-Gaztelutik, Iturendik, Aurtiztik, Zubietatik, Sunbillatik, Legasatik, Narbartetik eta Urroztik egin dituzte eta Errigorako

Malerrekako boluntarioak joan den maiatzaren 6an aritu ziren banatzen Doneztebeko zinemari.

Oier Zulaika boluntarioak TTIPI-TTAPARI kontatu dionez, joan den urteko datuekin konparatuz «kopurua mantendu da». Gehiago ere erran du: «Covid garaian igoera nabaria izan zuten eskaerak eta geroztik kopurua mantendu da, bai udazkeneko kanpainan, baita udaberrikoan ere». Erosleak ere «gehienak berdintsuak» direla gaineratu du, Errigorarekin «fidelak» diren bezeroak, beraz.



KIZKITZA ISASI

Pilotariak partiduz partidu

Pilotari gaztetxoak partituz partidu dabilta. Iruñeko Zabalguneko egunean ere ez zuten hutsik egin. Pilota mistoarekin Irati Altzu, Dunix Albero eta Janitz Irigoien iturendarrak eta Iraide Iriarte sunbeldarra aritu ziren eta goxoarekin Nerea Altzu, Naroa Elizalde, Alaitz Aioroa eta Mairi Irigoien.



UXOA ELIZALDEK UTZITAKOA

Jaunartzeak Zubietan

Maiatzaren 5ean lehen jaunartzea egin zuten Zubietako Enea Hualdek, Naroa Elizalde eta Inma Castrok. Horrekin batera, aingeruek maiatzeko saioa hasi dute eta jaunartzeko hirukotearekin batera, Intza Iribarren, Noa Bendoiro eta Elaia Santesteban ariko dira maiatzeko igandetan lore eskaintzak egiten.

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak

- Laneko Arriskuen Prebentzioarako Zerbitzua
- Datuen babesak
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO

T. 948 581 300 - F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA

T. 948 631 108

Eliza Karrika, 22
31740 DONEZTEBE

T. 948 450 395 - F. 948 451 304

Eltzeta, 20
31770 LESAKA

T. 948638077

Malerrekako Eguna maiatzaren 25ean Saldiasen

Autobus zerbitzua antolatu dute eta Malerrekako Mankomunitateak hori erabiltzeko deia egin du

TTIPI-TTAPA SALDIAS

Ibilian-ibilian Malerrekako Egunak bere bidea egiten segitzen du. Zubietan egin zen lehenbiziko edizioa, 2012an, eta geroztik, herriz herri ibili da Malerrekako Egunaren lekukoa. Aurten Saldiasen egingen dute eta Malerrekako Mankomunitateak egun osoko egitaraua prestatu du.

Egitaraua

Gaszteak izanen dira goiztiarrenak eta 08:30ean abiatuta, Zubietatik Saldiasera mendi martxa egingen dute.

10:30ean harrera ekitaldia hasiko da. Herrietako ordezkariak izanen dira egunari hasiera emanen diotenak eta Saldiasko Udalak herriko ardinak omenduko ditu. Horrez gain, Malerrekako musikariak herrian barna ibiliko dira.

11:00etatik 14:00etara artisaunen eta talogileen postuak paratuko dituzte eta 11:00etatik 12:00etara dantzarien saioaz gozatzeko aukera izanen da. 12:30ean buruhandiak aterako dira eta, ordu berean, aizkora apustua jokatu dute Jexux Etxeberriak eta Jon Telletxeak Jazinto Etxekonanea eta Manolo Kañamarenen kontra.

13:30ean joaldunak aterako dira eta 14:00etan paella jatea egingen dute.

Arratsaldean, 16:00etatik 19:00etara Malerrekako Mus Txapelketako finala jokatu dute eta, aldi berean, 16:30ean bertso saioa hasiko da. Alazne Untxalo eta Maddi Ane Txoperena ariko dira bertsoan.

Bertso saioaren ondotik, 17:30ean DJ J&Jrekin musika



Eguerdian paella jatea egingen dute.

izanen da 20:00 arte. Aldi berean, merienda eta umeendako jokoak eta tailerrak egingen dituzte eta buruhandiekin kalejira.

20:30ean zozketa eta mus txapelketako sari banaketa egingen dute; baita lekukoa banatzeko ekitaldia ere: Beintza-Labaienen esku geldituko da 2025ean Malerrekako Eguna antolatzeko ardura. Eguna borobiltzeko, 21:00etan mahaiaren bueltan bildu eta afaria egingen dute.

Autobus zerbitzua

Doneztebe eta Saldias lotzeko autobus zerbitzua antolatu dute. Doneztebetik Saldiasera doazen autobusak 09:00etan, 10:30ean eta 12:00etan aterako dira eta Saldiasetik Doneztebera bueltan heldu direnak 17:30ean, 20:30ean eta 22:00etan. Bidean, Oizen, Urrozen eta Beintza-Labaienen geldialdia egingen dute autobusek. Autobusak erabiltzeko deia egin du mankomunitateak.

Gaur egungo lantaldea prest dago Narbarteko kontzejuan lanean segitzeko

MAITE BERTIZ NARBARTE

Azken bihauteskundeetan Narbarteko kontzejua osatzeko zerrendarik aurkeztu ez zela ikusita, Nafarroako Gobernuak kontzejua desagertzeko bidea hasiko zuela jakinarazi zuen duela aste batzuk. Berria, ordea, ez dute begi onez hartu herri-tarrek, eta gaur egun kontzejuko martxaz arduratzen diren kudeaketa batzordeko kideek segitzeko asmoa dutela erran dute. Egoitz Gamio Mitxelenak, M^a Rosario Juanotena Aranbilletek, Julen Iriarte Irazokik eta Jon Jaukikoa Orbaizek osatzen duten lantaldea ez du herria kontzejurik gabe gelditzea nahi.

Gobernuak apirilaren 18an erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuenetik, alegazioak aurkezteko epea zabalik izan da eta egungo lantaldeak hala jakinarazi dio segitzeko prest dagoela. Horrekin batera, kontzejua eskumenak zein diren oroitarazi dio: «Ondarearen administrazioa eta kontserbazioa, baserrietako bideak, hirigintzako baimenak udalarekin elkarlanean, karriken garbiketara, argiteria, hilerria,

artxiboa, herriko bestak, ur homiduraren kudeaketa, eskola...». Kontzejua desagertuko balitz, eskumen horiek Bertizaranako Udalaren esku geldituko lirakeela ohartarazi dute, eta «horrek udalaren lana areagotuko luke, eta kudeaketa egokia egiteko bitarteko gehiago beharko lituzke». Horrekin batera, Narbarteko kontzejua, Doneztebeko, Sunbillako eta Elgorriagako udalekin batera, Bidasoa eta Berroarango Mendietako Administrazio Batzordea osatzen duela dio: «XV. mendeko entitatea da, eta kontzejua desagertuko balitz, ez dakigu Narbarteren ordezkartza nola geldituko litzatekeen».

Alegazioekin batera, herritarren sinadurak aurkeztekoak zizuten. Helburua argia da: kontzejua ez desagertzea.

Mendi martxa larunbatean

Larunbat honetan, maiatzaren 18an, Narbarteko I. Mendi Martxa egingen dute. 09:00etan abiatuko dira eta Oteixonera joanen dira. 9,03 kilometroko ibilbide zirkularra izanen da eta bueltatzean, bazkaria egingen dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Kaixomundua.eus lehiaketan sarituak

Puntu.eus fundazioak antolatutako Kaixomundua.eus lehiaketan, Batxilergoko ikasleen mailan, Lekarozko BHiko lau ikasle izan dira irabazle: Doneztebeko Joar Mariezkurrena Flores, Oihan Sarratea Etxekolonea eta Paula Zabala Sarasola eta Sunbillako Lara Ribeiro Cordeiro. errekakirolelkarte.eus webgunearekin irabazi dute.

Irakurri proiektuaren kontra sinatzeko deia egin dute

Malerreka Bizirik taldeak ezezko borobila eman dio Zelena Renewable enpresak aurkeztu duen hasierako txostenari eta horren kontra kontsiderazioak aurkezteko deia egin du



Malerreka Bizirik-ek antolatuta, azaroan Irakurri eta Iruñarrira ateraldia egin zuten.

TTIPI-TTAPA

Zelena Renewable inbertsio funtsak Malerrekako Irakurri eta Bortzirietako Azkua proiektuen hasierako txostenak aurkeztu ondotik, gelditu gabe lanean ari da Malerreka Bizirik taldea. «Ekiteko garaia» dela iritzita, alde batetik, eskuorriak prestatu eta banatu ditu eta bertetik, hasierako txostenaren kontra kontsiderazioak aurkezteko deia egin du.

Zehazki Irakurrin, 195 metroko altuera izanzen luketen hamar eoliko paratu nahi dituztela ohartarazi du taldeak, eta horiek egiteko hainbat lan egin beharko lituzketela gaineratu du: «plataforma erraldoiak, mendiko pistakizugarri zabaldu, sortutako elektrizitate Donetztebera eramateko lineak paratu airez (22 dorre hamar kilometrotan) eta lurrez (metro bateko zanga zortzi kilometrotan) eta azpiestazio elektriko bat Iruñarrin». Proiektuak Ezkurra, Eratsun, Saldias, Beintza-Labaien, Zubieta, Ituren, Oiz eta Donetztebe ukituko lituzke.

Hasierako txosten horren kontra, kontsiderazioak aurkezteko deia ere egin die plataformak herritarrei eta instituzioei. Kontsiderazioak bilduz eskaera orriak ere prestatu ditu eta joan den astean herriko ostatueta uztekoak zituzten jendeak sinatzeko. Helburu berarekin karrikara ere ateratzekoak ziren.

Kontsiderazio orri horiek maiztazaren 17a baino lehen bidali behar dira eta norberak bere aldetik ere egin dezake evaluacion.ambiental@navarra.es helbidera idatzita.

JOVEN **in**
CAJA RURAL DE NAVARRA

JOVEN IN
ALA JOVEN
OUT ZARA?

Komisiorik gabe
zure erosketak
ordaintzean dibisak
aldatzeagatik

Ez dugu dibisak aldatzeagatik komisiorik aplikatzen zure erosketak atzerrian Euro eremutik kanpo ordaintzean zure JOVEN in txartelarekin.

Bertso Eskolen eguna ospatuko dute maiatzaren 26an

Nafarroa osoko bederatzi eta hamalau urte bitarteko gazteek parte hartuko dute

TTIPI-TTAPA

Ikasturte amaierarekin batera ospatu ohi dute Nafarroako gazteen Bertso Eskolen Eguna. Aurtengoa maiatzaren 26an ospatuko dute eta Leitza izanen da. Nafarroako Bertso Eskolen sareko bederatzi eta hamalau urte bitarteko ikasleak elkartuko dira eta bertsoan aritu, bertsoaz gozatu eta egun-pasa ederra egiteko aukera izanen dute. Goizean Nafarroako Txikien Eskolarteko Txapelketako finala jokatu dute Herri Aretoan eta bukatutakoan, elkarrekin bazkalduko dute. Arratsaldean, *Gure ahots bideo motz* bideo lehiaketarako sortutako bideoak ikusiko dituzte eta sari bana-keta egingen dute. Bukatzeko, Peru HARRIRA bisita egingen dute. Bertso Eskolen egunean izena emateko azken eguna, maia-



Iturenen ospatu zuten iaz. ARTXIBOA

tzaren 17a izanen da eta bertsozale.eusen jarri dute bete beharreko galdetegia.

Bertso Eskolen Egunak, Bertso Eskolen sarea osatzen duten gazteen arteko harremana bultzatu eta elkar ezagutza sustatzeko helburua du. Aisialdiari garrantzia berezia eman nahi dio Nafarroako Bertsozale Elkarteak, transmisioaren den lana osatzeko balio duela ulertuta.



MIGEL ANGEL GEREÑO

Ateroneei probetxua aterata, festa giroan

Udaberri giro bete bete izan zuten apirilaren 27an. Tarteka, euria goian behean, eguzkia nagusi besteetan, ez zen traba izan Udaberri Festa ospatzeko. Giro ederrean ibili ziren denak: erraldoi eta buruhandien konpartsari segika, trikitalariekin kalejiran, bazkarian edo elektrotzarangaren erritmora dantzan.



Topaketen hasiera ekitaldiko argazkia. UTZITAKOA

Euskal Herriko bolleren topalekua izan da herria

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko Bollo topaketak egin dituzte Leitza apirilaren 26tik 28ra eta parte hartzaileen hitzetan: «jendetsua, polita, anitza eta oso aberasgarria» izan da bertan bizitakoa. Askorako eman du asteburuak: hitzaldiak, tailerrak, mahai inguruak, festarako tartea... Bollerek munduari begiratzeko behar dituzten estrategiei buruz hitz egiteko espazio bat eraiki dute. Saretzea bilatu dute, komunitatea sortzea eta bollerismotik munduari nola aurre egin bilatzea. Adin guztietako bollerengana iristeko ahalgina egin dute: «jende gazte

asko, baina 30-40 urte artekoak ere asko izan dira. Duela 40 urte Euskadiko lehenengo topaketetan parte hartu zuten batzuk ere bertan izan dira eta polita izan da 60 urteko kideak aste-buru osoan bertan izan direla ikustea». Leitza Udalaren eta bertako eragileen aldetik jasotako babesa eta laguntza nabarmendu dituzte antolatzaileek. Hala ere, aipatu dute «espero genitzakeen erresistentzia eta zurrumurruek sumatu» dituztela eta badakitela «deserosotasuna sortu» dutela pertsona batzuegan. Horrek arrazoi ematen du borrokan segitzeko».



ITZAIRE HAUR ESKOLA

Magaletik Amalurrera proiektua azalduz

Haurrak naturara hurbiltzeko asmoz, proiektu berri bat jarri dute martxan Itzaira Haur Eskolan. Prozesu guztia dokumentatu dute eta argazkiekin erakusketa osatu dute. Proiektuaren jendaurreko aurkezpena egin zuten apirilaren 17an eta Itzaira hezitzaileek «bihotzez eskertu» nahi diete herritarrei egindako harrera beroa.

Kulturaz gozatzeko hainbat aukera datozeen egunetan

Maiatzaren 17an emanen diete hasiera 46. Kultur Aroari eta ekainaren 15era arte egitarau potoloa osatu dute

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 17an, Josebe Blancok izanen du Kultur Aroari hasiera emateko ardura. *Hausnarrean* liburua aurkeztu eta solasaldia eskainiko du 18:00etan liburutegian. Maiatzaren 18an, *Orreaga 824. urteurrena* erakusketa aurkeztuko dute Peru Harrin 18:00etan. Iñigo Larramendik, Iñaki Perurenak, Jeiki Abesbatzak eta Aurrerako dantzariak parte hartuko dute ekitaldian. Erakusketa Herri Aretoan egonen da ikusgai, maiatzaren 21etik 25era, 19:00etatik 20:30era.

Maiatzaren 19an, Emakume Artzainen Eguna ospatuko dute eta Leitzako emakume artzainei omenaldia egingen diete plazan 13:00etan. Ekitaldiak 11:00etan hasiko dira eta Mendialdeko gazten azoka, dastaketa eta gaztak eta tripotxak nola egingen diren ikusteko aukera izanen

da, baita burruntzian erretako axuria jatekoa ere.

Maiatzaren 20an, Mikel Markez eta Eñaut Elorrietak *Baga biga higa* emanaldia eskainiko diete Amazabalgo ikasleei, 10:30ean. Biharamunean, Migel Mari Elozegi igoko da aretoko oholtzara 17:30ean, *Mendi bizi* akihitzaldia eskaintzeko. Maiatzaren 23an, Palestinaren egoerari buruzko hitzaldia emanen dute Ane Irazabalek, Floren Aoizek eta Yala Elkarreko kideek. Herri Aretoan 19:30ean. Maiatzaren 25ean, goizean, Nafarroako editoreen azoka egingen dute plazan eta 20:30ean bertso afaria izanen dute Musunzar ostatuan Joanes Illarregi eta Aitor Mendiluzerekin. Maiatzaren 26an egingen duten Eskulangintza Azoka izanen da hilabeteko azkeneko ekitaldia.



MIGEL ANGEL GEREÑO

Urepeleko gainera igo dira mendizaleak

Euskal Mendizale Federazioaren 100. urteurrena ospatzeko Urepelera irteera egin zuten hainbat herritarrek. Ixkibarreko aparkalekutik abiatu eta bi ordu eta erdi inguru behar izan zituzten kaxkora igotzeko. Bertan taldeko argazkia atera zuten.

'Insumisas' dokumentalaren emanaldia eta solasaldia maiatzaren 30ean

TTIPI-TTAPA

LAGA Gizarte Zerbitzuak *Insumisas* dokumentalaren emanaldia antolatu du maiatzaren 30erako. Herri Aretoan 19:00etan hasiko da eta sarre-ria librea izanen da. Marokok okupatutako Sahara Mendebaldeko lurraldeetan emaku-

meek jasandako indarkeriak erregistratzeko eta salatze-ko, giza eskubideen defendatzaile sahararren lana dokumentatzen du. Proiektzioaren ostean, Irantzu Mendia Azkue Hegoa Institutuaren zuzendari eta ikertzaileak solasaldia eskainiko du.



MAITANE MARIEZKURRENA

Pediatra falta salatzeko argazki erraldoia

Maskara txuriak jantzita, Osasun departamentuarentzat ikusezinak direla irudikatu nahi izan zuten. Konpartsako kideak eta suhiltzaileak ere bertan ziren; batzuen erraldoiekin eta besteen sirena hotsekin ikusi edo entzungo dituztelakoan.

'Letrak kalera'ko lanak ikusgai jarri dituzte Aieneko garbilekuan

Udaberrian, *Letrak kalera* ekimena jarri zuten martxan Leitzako hainbat idazle eta herritarrek. Literaturaren bueltan txirrinta sortzea zen asmoa eta literatura kalera ateratzeko bidea topatzea. Horretarako, kanpoko idazleen lanak hartu beharrean, herriko idazleei tokia egitea erabaki zuten. Herriko hogeit hamar idazlanak ikusgai egon dira herriko komertzioetan. Orain, guztiak bildu eta Aieneko garbilekuan jarriko dituzte. Erakusketa maiatzaren 17tik 26ra egonen da ikusgai, astez, 18:00etatik 19:00etara.

«Omenaldi hau gure amek behar zuten guk baino gehiago»

LURDES SORRON LIZASO LEITZAKO ARTZAINA ETA BASERRITARRA

Leitzako Emakume Artzainak omenduko dituzte maiatzaren 19an plazan. Berrogei izanen dira aitortza jasoko dutenak eta protagonista horietako baten bizipenak eta iritzia bildu ditugu

ENERITZ IRAOLA LEITZA

Sortzez Hernialdekoa (Gipuzkoa) den arren, bere eginak ditu Lurdesek Leitzako larreak. Irailean beteko dira berrogei urte Joantxenea baserrira ezkondu zenetik. Bertan ikasi du ogibidea eta bertan bihurtu da: artzain, baserritar, zaintzaile, ama... berak dioen bezalaxe: «artzaintzan bakarrik aritzen diren emakumeak gutxi direlako».

Noiz eta nola hasi zinen artzaintzan?

Baserrian jaioa naiz, baina gure etxean ez zegoen ardirik. Leitzara etorri nintzenean, hemen bazeuden behiak eta ardiak. Begiratu, nire kasa ikasi nuen. Beharrek ikasten da; bizitza honetan ez dago lezio hoberik. Gogoratzen naiz ardiak erditzen hasi eta arazoren bat baldin bazen, batzuetan gizonezkoek ezin izaten zutelako askorik egin. Esku handiegiak zituzten. Nik ez nuen ideiarik, baina ez nintzen atzean gelditzen. Eskua sartu eta arituz, ikasten joan nintzen. Azkenean, nik lortzen ez banuen, al baitariak ere ezin izaten zuen eta zesean bukatzen zuten kasuak izaten ziren. Gogoan dut etxeko amonak nola esaten zidan: «ez zaitetz jaitsi ukuilura, jaisten bazara akabo...», baina gustatu egiten zitzaidan.

Baserriaren aldeko apustua egin zenuten orduan.

Hona etorri nintzenean, ardiak, txerriak eta behiak zituzten. Zirt edo zart egin behar izan genuen momentu bat iritsi zen.

Ustiategiak jarri ziren moduan, hemen zegoen ganaduarekin bakarrik ezin zitekeen aurrera segi. Erritmo horretan lan egin

ahal izateko, geroz eta azienda gehiago jarri beharra zenuen. Bi aukera genituen edo lanera kanpora joaten ginen edo al-



Baserritu munduan emakumearen papera nabarmendu du. ENERITZ IRAOLA

«BEHARRAREKIN IKASTEN DA, BIZITZAN EZ DAGO LEZIO HOBERRIK»

«BASERRIAREN ALDEKO APUSTUA EGITEA ERABAKI GENUEN»

daketa egiten genuen. Baserriaren aldeko apustua egitea erabaki genuen. Hutsetik hasi ginen.

Ez zen nolanhiko apustua izan. Dena bete genuen behiez, hogeita zortzi kabitzen ziren ukuiluan eta haiekin hasi ginen kalitatezko behiak jarri eta genetikoki hobetzen. Hasierako zorrei buelta ematea lortu genuenean, ardientzako aurrerapena jarri eta haztegia egin genuen. Urte gogorak izan ziren. Sei ordu lo eginez, eta lana eta lana eta lana... bururik goratu gabe aritzen ginen. Jai eta aste, urteko 365 egunetan. Zulotik ateratzea asko kosta zitzaigun baina gu oso burugorak ginen. Urteak eman genituen horrela, baina momentu batean lasaigo ibiltzea erabaki, ukuilua hustu eta behiak kenduta, artzaintzara mugatzea erabaki genuen. Geroztik, bizi kalitatea asko aldatu zaigu. Hala ere, artzaina baino gehiago, baserritarra sentitzen naiz ni. Denetarik egin izan dudalako, ez artzaintza bakarrik. Ardi eta behiak zaindu, haurrak hazi eta hezi, etxeko martxa eraman, adinekoak zaindu... Artzaintzan bakarrik aritzen diren emakumeak gutxi dira.

Lan egiteko modua egokitzen joan zarete?

Denborarekin ikasten joan gara. Garai batean Eguberrietan umatzen ziren intseminazio bidez. Orain abenduan beharreen, urtarril bukaeran umatzen direla jarri ditugu. Horrela hasten gara jezten otsail bukaeran edo martxoan eta larreen aprobetxamendua egiten dugu. Kanpoan jaten dute, ez da neguan bezala. Neguan erabat intentsiboa da. Estentsibora jo dugu, garai batekora. Abuztutik aurrera ez dugu jezten lanik eta beste lan batzuetan aritzen gara. Lasaiago ibiltzen gara horrela.

Ardi-esnea eta axuriak saltzen dituzue?

Esnea kanpoko enpresa bati saltzen diogu eta Erronkari eta Idiazabal izendapena duten

gaztak egiteko erabiltzen dute. Axuriak, berriz, tratanteari ematen dizkiogu. Horrek badu bere alde txarra: beraien eskuetan gaude. Produktua gurea da, baina prezioa enpresak erabakitzen du. Argi dago enpresak etekinak dituela burutan. Baserritarrengan ez du inork pentsatzen. Gainera, badakigu kanpotik ekartzen dutela hemengo baina askoz merkeago. Orain dela 35 urte garestiago saltzen genuen guk axuria, orain saltzen duguna baino. Gainera, axuria jateko ohitura ere asko aldatu da. Garai batean ospakizuna axuria jatearekin lotzen zen. Orain Gabonetan mantendu da gehiena, baina orduan bazkak eta pentsuak daukan prezioarekin zure axuriaren prezioa ere murriztua gelditzen da.

Baserritarrak protestan ikusi ditugu azken aldian...

Badago horretarako nahikoa motibo. Gure ogibidea, gure bizitzen oinarria, baserria da eta erabakiak hartzen dituztenak ez dira horretaz ohartzen. Makro etxaldeak egin dituzte eta arrain handiak txikia jan du. Nekazaritza politikak ere ez dira bertakora egokitu: kanpoko ereduak jarri nahi izan dira askotan, bertako ezaugarriak kontuan hartu gabe. Pentsu eta bazkaren prezioa burtsako indizeen arabera erabakitzen dute. Ez da bidezkoa prezioa gora eta behera ibiltzea, beraien interesen arabera. Merkaturia ere gaizki araututa dago. Tren azkar batean sartu eta denok han goaz pentsatu ere egin gabe. Jendea supermerkatuara doa, karroa bete eta ez du produktua nondik datorren begiratu. Horrek kalte handia egin digu hemengo ekoizleei. Tristeia da hegazkina hartzea merkeago ateratzen dela jatea baino. Orduan jendeak zer egingen du hegazkina hartu bidaiaitzeko, baina gaizki jan. Hori gogorra da.

Paper artean ere ordu dezente eman behar izaten dituzue?

Paper kontuetan denbora pila bat pasatzen dugu. Onartu ezin



Leitzako Joantxenea baserri ondoan dituzten larreetan edukitzen dituzte ardiak. ENERITZ IRAOLA

diren baldintzak exijitzen dizkigute. Martxa honetan segitzen badugu, aurki abokatuak izan beharko dugu. Teknologia aldetik ere ezagutza ikaragarriak izatea eskatzen digute eta ni teknologiarekin ez, naturarekin konektatuta nago.

Dirulaguntzena gai korapilatsua da?

Tarta txikia da eta jale asko dago. Nekazaritza Politika Bateratuko dirulaguntzekin gertatzen dena ez zait bidezkoa iruditzen. Dirulaguntza horiek jasotzeko orduan, nork izan beharko luke lehentasuna? Nik argi ikusten dut, hortik bizi denak. Nire ustez hoberena, dirulaguntza guztiak kendu eta prezio duinak ematea da. Ezin dira zuloak dirulaguntzekin tapatu.

«ORAIN DELA 35 URTE GEHIAGO ORDAINTZEN ZIGUTEN AXURIA»

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Baikorra izan nahiko nuke, baina errealista naiz. Gure etxetik hasita. Senarrak 68 urte ditu, nik 65 eta atzetik ez dator inor, biloba bat ez bada behintzat. Baserri batetik bizitzeko, hutsetik hasi behar badu gazte batek, ezinezkoa da. Bizi kalitateaz izateko, pertsona bakarrak ez, gutxienez bi edo hiruk hartu beharko lukete: oporrak eta asteburuak libratu nahi badiuzte. Ez dakit gaur egun gazte jendea prest dagoen hainbeste sufritzeko.

Genero ikuspegitik ere badago zer egina?

Baserria oso patriarkala izan da beti. Pauso asko eman dira, baina asko egin behar da oraindik. Denok parean egon behar

«SENTITU IZAN DUT KORRONTEAREN KONTRA IBILI NAIZELA»

dugula uste dut: ez gorago, ez gutxiago, ez aurrerago edo atzerago. Gure amek oso barnerratu zuten bigarren mailan egote hori. Errebelde xamarra izan naiz ni kontu horrekin umetatik eta sentitu izan dut korrontearen kontra ibili naizela. Behi eta ardiekin lanean hasi ginenean, hor egon naiz hasieratik. Bileretan, tratanteekin hartu-emanen... gauza guztietan ikusten zuten hor nintzela eta ez dakit hala ohitu zirelako den, baina egunerokoa ez naiz lekuz kanpo sentitu inoiz. Pare bat kasu izan ditut gogor xamar, biak diputazioan. **Omenaldia jasoko duzu maiatzaren 19an...**

Oso ideia polita iruditu zait. Hala ere, uste dut, omenaldi hau gure amek behar zutela guk baino gehiago. Urtetan egon ziren itzalean lanean eta bada garaia egindakoa aitortzeko. Ea agerian gelditzen den emakumeak zeinen garrantzitsuak izan garen mundu honetan.

Herritarrekin bilera antolatu dute maiatzaren 16an

Taberna, denda eta okinik gabe gelditu ondotik, egon daitezkeen irtenbide posibleez hitz egitea da asmoa

ENERITZ IRAOLA

Herritarren egunerokoan eragina izan duten hainbat aldaketan dira azken aldian: Sastinea taberna itxi dute, okina ez da herrira etortzen... Oinarrizko hainbat zerbitzu gabe eta biltzeko tokirik gabe gelditu dira herritarrak. Ez da nolana hiko erronka eta egon daitezkeen aukerei buruz hitz egiteko elkartzeko proposatu du udalak. Maiatzaren 16an, 18:00etan, udaletxean egingo dute bilera eta herritar guztien iritzia bildu nahi dute: «animatu eta etor zaitezte. Elkarrekin eraiki dezagun etorkizuna».

Antzeko adibideetatik ikasiz

Bilera horretara, Elena Irigoien Cederna Garalurreko teknikaria eta Beñat Irasuegi Olaturkoopeko ordezkaria gonbi-

datu dituzte. Mendialdeko Aktibazio Planaren barruan proiektu bat lantzeko aukera jarriko dute hauek mahai gainean. Izan ere, Areso ez da salbuespena eta Mendialdean eta Nafarroako beste herri txiki askotan ohikoa bihurtu den egoera da. Antzeko egoerak bizi izan dituzten herrietako adibideak ekarriko dituzte eta egin dituzten ekimenak zeintzuk izan diren azalduko dute. Besteak beste, Bakaikuko eta Orexako ostatu eta dendakooperatibo esperientziak azalduko dituzte. Herri Kooperatibak sortzeko aukerak ikusi eta Areson proiektu bat lantzeko herritarren gogoia ezagutzeko balioko du bilerak. Herrian dauden beharrak identifikatu eta hauek nola garatu erabakiko dute herritarrek.

Festa batzordeko hurrengo bilera ekainaren 13an izango da

ENERITZ IRAOLA

Festa batzordea lanean ari da ttiriki-ttarraka eta Aresoko festetako egitaraua itxi zuten maiatzaren 2an egindako bileran. Hilabete behin elkar-tzen dira eta hurrengo bilera ekainaren 13an izango da. Bertan, lan taldeak zehaztu, menua aukeratu eta azken orduko xehetasunak lotuko dituzte. Abuztuaren 14an, asteazkenarekin, emango diete hasiera festei eta abuztuaren 18an, igandean, bukatuko dira. Hori horrela izanik, asteburua baliatu eta segidan jarri dituz-

te jende gehien biltzen den egunak: Kuadrillen Eguna eta Herri Bazkaria egiten direnak.

Pasa den urtean bezalaxe, denei festarako aukera eman eta ardurak banatzea proposatu dute. Horretarako lan taldeak osatuko dituzte: patata tortilla lehiaketarako, mus txapelketarako, herri bazkariako, jokoetarako...

Herriko festa nagusien aurretik, izango da giroa bertzeko aukera. Lagunarteko kideak sanpedroako antolatzen hasi dira eta ekainaren 28an eta 29an ospatu dituzte.



Kudeaketa batzordeko kideak. ENERITZ IRAOLA

Udala herritarrek osatutako kudeaketa batzordearen esku gelditu da

ENERITZ IRAOLA


Luze jo du Areson udal taldea berritzeko prozesuak, baina bi hauteskunde deialdi, hamaika bilera eta estutasun momentu batzuen ondotik, udalaren kudeaketaz arduratuko den taldeak hartu du erreleboa. 2023ko maiatzeko hauteskundeetan ez zen hautagairik aurkeztu, azaroan errepikatu zituzten hauteskundeak eta Aulki zuriak alderdiak hautagaitza aurkeztu bazuen ere, ez zuen gutxieneko babesa lortu. Herritarrei kudeaketa batzorde bat osatzeko bidea eman zien orduan

Nafarroako Gobernuak. Sei laguneko taldea osatuta, urtarrilean aurkeztu zuten proposamena Lurralde Kohesiorako departamentuan eta ia lau hilabeteren ondoren lortu du taldeak gobernuaren izendapena. Apirilaren 30ean egindako batzarrean onartu zituzten karguak eta bakoitzaren lan esparruak maiatzaren 23an egingo duten batzarrean zehaztuko dituzte. Hori bai, hasieratik elkarlanerako deia egin nahi izan diete herritarrei: «zerrendan falta den zazpigarren kidea, herritar guztien artean osatzea nahiko genuke».

Haurrentzako igeriketa ikastaroa antolatu du guraso elkarteak

ENERITZ IRAOLA

Pasa den urteko arrakasta ikusita, aurten ere igeriketa ikastaroa antolatzea erabaki du guraso elkarteak. Hiru eta hamabi urte arteko haurrak joango dira Villabonako (Gipuzkoa) Olaederra kiroldegira. Klaseak bi astez jarraian izango dituzte, ekainaren 3an hasi eta ekainaren 14ra arte. Hogei ikasleko taldea animatu da eta ezagutza mailaren arabera, bi talde osatzeko asmoa dute. Bi begiralaren laguntza izango dute igerian ikasi edota trebatzeko.



lax, igeriketa ikastaroan. ARTXIBOA

Horetako asko ez dira hutsetik hasiko, izan ere, aurten go ikasturte hasieran Nazabal Eskolako LHko ikasleek igeriketa ikastaroa egin dute Le-kunberrin.

Euskalnapar izen eta abizenen historia ezagutzeko aukera

Eneko Bernaldo de Quirósek irteera antolatu du ekainaren 1erako eta izen-ematea maiatzaren 26a baino lehen egin behar da

TTIPI-TTAPA

Eneko Bernaldo de Quirósen eskutik, herrian itzuli bat egin eta euskalnapar izen eta abizenen historia ezagutzeko aukera izanen da ekainaren 1ean. Goizuetako plazatik abiatuko dira 09:00etan eta Iberora bisita egingen dute. Iberoko burdinolaren historia ezagutu, bidenabar, dorrea barrenetik ikusteko aukera izanen dute. Segidan, 10:30 aldera, mendi buelta egingen dute Alkainzuriainen eta bertako baserrien historia ezagutu eta abizenen sorrerari buruzko azalpenak emanen ditu Enekok. 12:30 aldera, Goizuetako iraganeko familia botere-tsuei buruz hitz egin eta etxeen izenei erreparatu, etxe esanguratsueni bisita egingen diete. Irteeran parte hartu nahi dutenek, aldez aurretik izena



Enekok egingen ditu gidari lanak.

eman beharko dute 682 03 17 74ra idatzita edo info@apellidosvasconavarros.es helbidera idatzita. Izena emateko azkeneko eguna maiatzaren 26a izanen da. Helduek 18 euro ordaindu beharko dituzte eta haurrek 14 euro. Irteera honetan lortuko dituen irabaziak Goizuetako Goikoetxean euskalnapar izen eta abizenen historiaren museoa sortzeko erabiliko ditu Eneko Bernaldo de Quirósek.



IGARATZA APEZETXEA


Artikutzan barna ibili dira Arainburukoak

Artikutzako baso eta paraje ederretan galduz, Urdalluko burdinola ezagutzeko aukera ederra izan zuten maiatzaren 4an. Gozain, Urdallu eta Artikutzan barna bost ordu eta erdiko ibilaldia osatu zuten Arainburu Mendi Taldeko hamar lagunek.

Goizutrail mendi lasterketa maiatzaren 18an izanen da

TTIPI-TTAPA

Beste behin ere korrikalariz beteko dira Goizuetako txokoak. Maiatzaren 18an, jokatu dute Goizutrail lasterketaren bederatzigarren edizioa. Lasterketan parte hartzeko bi ibilbide jarri dituzte aukeran: ibilbide motza eta luzea. Ibilbide motzak 10,6 kilometro izanen ditu eta barka edo bikoteka parte hartzeko aukera eman dute. Ibilbide luzea egitea aukeratzan dutenek, Artikutzan barrena egin beharko dute lasterka eta 25,6 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Aurten aldaketak



Lujanbiok irabazi zuen iaz. ARTXIBOA

egin dituzte ibilbidean eta lasterketa luzea egin behar dutenek, Enekolorritik aurrera segituko dute, Arainburuko tontorra zapaldu, Beltzuntzara joan eta plazan bukatuko dute itzulia.



FELIX LOIARTE

Mus txapelketa eta bertsoak Zubiondon

Maiatzeko lehenbiziko asteburuan proposamen berezia egin zuten Zubiondo ostatuan. Maiatzaren 3an, mus txapelketa jokatu zuten eta Beñat Apezetxea eta Oier Apezetxea izan ziren txapeldun. Biharamunean, bertso saioa eskaini zuten Agin Laburuk eta Aitor Mendiluzek.

Talo Eguneko erakusketa osatzeko argazkiak eskatu dituzte

TTIPI TTAPA

Ekainaren 8an herrian egitekoa dute Mendialdeko Azoka Ibilbidea. Talo eguna ere antolatu dute egun berean eta taloaren historia azaltzeko erakusketa bat osatu nahi dute: tresneriarekin, argazkiekin eta hainbat testurekin. Erakusketan jartze-

ko argazki bila dabiltzala jakinarazi dute antolatzaileek. Artasoroak ageri diren argazkiak, arbasoak taloak erretzen edo artoa kirkiltzen... ageri direnak etxean izan eta erakusketan jarri nahi izan ezker, goizuetakoturismoa@gmail.com helbidera bidaltzeko eskatu dute.



Ekitaldi ugari izanen dituzte ortziraletik astelehenera herrian. ARTXIBOTIK

Berroetako bestak maiatzaren 17tik 20ra

Gazteek egitarau bete prestatu dute lau egunez, herritar guzien gustura

TTIPI-TTAPA

Maiatzak 17, ortziralea. 17:30ean haurrendako ipuin kontalaria izanen da Haizea Loirarekin. 19:00etan suziriek beste hasiera emanen diete eta txopo goratzea egingen dute herriko trikitalariekin. 20:00etan mutil dantzak izanen dira eta 21:00etan baztan zopak. Ondotik Bizphiru Pelau taldea eta DJ Boletus Rumberus. Gan-torri zerbitzua izanen da.

Maiatzak 18, larunbata. Goizean diana izanen da eta 11:00etatik aitzinera haurrendako puzgarriak. 12:30ean bailableak izanen dira plazan Elizondoko Gaiteroen eskutik eta 14:30ean gazte bazkaria egingen dute. 17:30ean puzgarriak izanen dira berriz ere eta txokolate hartzea izanen dute. Aldi berean, bertso poteoa egingen dute Alazne Untxalo eta Urko Gartziarekin. 19:00etan paella eta postre lehiaketa izanen da eta 19:30ean dantzaldia Andonirekin. 21:00etan afaria egingen dute lehiaketako platerekin eta sariak banatuko dituzte. Ondotik dantzaldia izanen dute berriz ere Andonirekin.



Giro ederra izanen da Berroetan.

Maiatzak 19, igandea. 10:00etan gaiteroak eta erraldoiak herrian barna ibiliko dira. 11:00etan meza nagusia eta 12:00etan luntxa eta pilota partidak izanen dituzte. 17:45ean haurren herri kirol saioa izanen da Arantza, Basaburua, Bera eta Igantzi taldeekin. 19:00etan Jaione Olazabal eta familiaren kontzertua izanen dute eta 21:00etan xingar jatea euskal kanta zaharrekin.

Maiatzak 20, astelehena. 11:00etan LII. Bizikleta Itzulia izanen da eta 12:00etan mus txapelketa. 14:00etan zikiro jatea egingen dute, Beñatek alaiturik, eta 21:00etan xingar jatea. Bestak akitzeko *Gaixoxa ni* egingen dute 00:00etan.

Zahar etxean bertako elikadura osasungarria sustatzeko proiektua

TTIPI-TTAPA

Baztango Udala Francisco Joaquin Iriarte adinekoen egoitzan lanean ari da, eskualdean ekoiztutako elikadura osasungarriagoa eta iraunkorragoa ezartzeko, tokiko nekazari eta abeltzainen eskaintzara egokitu. Proba pilotuan elikagaiak biltegitratzeko eta prestatzeko azpiegitura ebaluatu dute, eta egungo menuak eta hornitzaileak aztertu dituzte. Horrela, «sukaldeko langileen lan ona eta menu berrituak» uztartu nahi dituzte, «nutrizionista adituen ikuskaritzapean».

Proiektuak prozesuko eragileek osatutako taldea du: udala, egoitzako kudeatzaileak, langileak, sukalde eta erosketen arduraduna eta lehen sektoreko ekoizleak. Dinamizazioa Mirua Mikrokoopera-

tibaren esku dago eta finantzazioa Conecta Navarra Rural proiektuaren bidez lortu da.

Udalak azaldu duenez, «elikadura zein energia burujabetzan aitzinera egiteko borondatea dago lurralde mailan, ahalik eta autosufizientzia handiena izateko. Elikadura politikek onura zuzenak dituzte herritarrendako zein lurraldearendako. Alde bategatik, sasoiko produktu fresko eta ekologikoetan oinarritutako menu orekatuek elikadura osasungarria bermatzen dute. Bertze aldetik, elikagai horiek hurbileko zirkuituetan erosteak, eta ahal dela zuzenean ekoizleei erosteak, ingurumena zaintzea, ekonomia zirkularra garatzea eta landa eremuan biztanleria finkatzea errazten du».



Hiru solairuak lotzeko eskailerak eta igogailua paratuko dute. ARTXIBOTIK

608.877 eurotan lizitatu dituzte Arraiozko eskola haunditzeko lanak

TTIPI-TTAPA

Hezkuntza Departamentuak 608.877,41 euroko aurrekontuarekin lizitatu ditu Arraiozko eskola haunditzeko lanak. Aurreikusi dutenez, lanak hurrengo hilabeteetan hasi eta 2024/25 ikasturtean egingen dituzte, 11 hilabeteko epean gehienez ere.

Berrikuntza lanetan eskolari atxikitutako eskailerak eta igogailua paratuko dituzte, hiru solairuak lotzeko helburuarekin. Gainera, hiru gela berri sortuko dituzte; bat behe-tiko solairuan eta bi lehen-biziko solairuan. Azkenik, behe-tiko solairuan eta sabaian espazioa berrantolatuko dute.



Musika eta umore ona izanen dira nagusi hilabeteko azken astean. ARTXIBOTIK

Almandoztarrak ere prest dira bestetarako

Maiatzaren 29tik ekainaren 2ra ospatuko dituzte Bestaberri bestak

TTIPI-TTAPA

Maiatzak 29, asteazkena.

20:00etan beste hasmenta emateko txupinazoa eta kalejira izanen dituzte. 21:00etan zopak izanen dituzte, Beñatek alaiturik.

Maiatzak 30, ortzeguna.

08:00etan Aurora kantatuko dute herrian barna. 12:00etan meza nagusia izanen da eta ondotik, 13:00etan, luntxa izanen dute. 17:00etan pilota partidak izanen dituzte, eta 19:00etan bingoan arituko dira. 20:00etan, berriz, tortilla lehiaketa egingen dute eta 21:00etan afaria izanen dute. 00:00etan DJ Zenizok alaituko du gaua.

Maiatzak 31, ortziralea.

11:00etan haurrendako jokoak izanen dira, eta 16:00etan puzgarriak izanen dituzte. 17:00etan mus txapelketa egingen dute eta merienda-tzeko txokolate hartzea izanen da 18:00etan. 21:00etan afaria egingen dute Santamariaren eskutik. 00:00etatik 02:00etara Puro Relajo mariatxien kontzertua izanen dute eta 02:00etatik 06:00etara DJ J&J. 07:00etan gosaria



Adin guziendako jarduerak izanen dira.

emanen dute gauxoriendako. Gan-torri autobus zerbitzua izanen da gau osoan.

Ekainak 1, larunbata.

11:00etan mus txapelketako finalerdiak eta finalak izanen dituzte, eta 14:00etan zikiro jatea egingen dute. 16:00etan dantzaldia izanen da Modestoren eskutik, eta 21:00etan gazteen afaria egingen dute. 00:00etatik 06:00etara DJ Bako izanen da eta 07:00etan gosaria emanen dute gauxoriendako.

Ekainak 2, igandea.

12:00etan meza izanen da eta arratsaldean, 17:00etan herri kirolak. 20:00etan zozketa egingen dute beste akabaila emateko 22:00etan Gaixoa ni izanen da.



Langileek udaletxearen aitzinean plazaratu zituzten haien eskariak. UTZITAKOA

Lozy'seko langileak Iruñean izan dira maiatzaren 1ean

TTIPI-TTAPA

Langilearen Nazioarteko Egunean Iruñerat eraman zituzten aldarriak Lozy's enpresako langileek, ELAren manifestazioarekin bat eginez. Adierazi zutenenez, «zortzi urtez aritu gara enpresa hau langile guzian artean aitzinera ateratzean, eta orain, enpre-

sa egonkortu dela, ez dute gurekin banatu nahi aberastasuna, ezta gure eskubideak hobetu nahi ere. Gauzak argi ditugu, hitzarmen duin bat nahi dugu, eta lortu arte borrokan segituko dugu».

Ia hiru hilabete egin dituzte greban, hitzarmen propioa lortzeko helburuarekin.

2024-05-18

MIKEL BERMEJOREN SHOW-A

15€
20:00 ETAN
ATEAK IREKITZEA
19:00 ETAN

SARRERAK MENDI OSTATUAN
ETA WWW.LURARETOA.COMEN

DATUALDE IND., 7 - ELIZONDO



Podiuma osatu zuten kirolariak Gorka Urtaşun zinegotziarekin. MAITE URIARTE



Bi herrietako alkateak senidetzearen oroitarrarekin. IXABEL ALEMANEK UTZITAKOIA

Emaitza gazi-gofoak Irurritako IV. Mendi Duatloian

Partaide guziak helmugaratu baino lehen akitutzat eman behar izan zuten lasterketa, istripu baten ondorioz

TTIPI-TTAPA

Eguraldia lagun ez bazen ere, jendetza bildu zen maiatzaren 1ean Iruritan eta guztira 140 lagunek parte hartu zuten duatloian; 60 bikoteka eta 20 banaka. Probaren bigarren zatian txirindulari batek istripua izan zuen eta anbulantzia eraman behar izan zuten. Anbulantziarik gabe gelditu zirenez, akitutzat eman zuten proba eta sailkapenean lasterketa akitu zuten partaideak bakarrik saritu zituzten; zortzi bikote eta banakako hiru kirolari. Gainerako sariak partaideen artean zozketatu zituzten.

Bikoteka Koldo Herrera sunbildarra eta Dani Iparragirre aranztarra izan ziren txapel-dunak, bigarren postuan Unai Barazabal azpillkuetarra eta Hodei Aleman iruritarra, eta hirugarrenak Julen Oskoz aranztarra eta Mikel Merino. Bakarkako kategorian Eneko Gurrutxagak lortu zuen txapela, Hugo Matias gelditu zen bigarren, eta Igor Agesta donetabarra hirugarren.

Antolatzaileek balorazio ona egin dute, «orokorrean jendea pozik gelditu zen. Orain txirindularia lehenbailehen osatzea da lehentasuna».

Amaiur eta Hondarribia herriak senidetu egin dira

TTIPI-TTAPA

Amaiur Nafarroako azken gaztelua eta Hondarribia Nafarroako azken portua izan zirela gogoan, bi herrien arteko senidetze ekitaldia egin zuten apirilaren 27an. Hain zuzen duela 500 urte, 1524ko apirilaren 29an, Nafarroako erresumaren azken portua Gaztelaren eskuetan gelditu zen.

Hondarribiko Udaletzeko areto nagusian izan zen ekitaldia, Amaiur, Baztan eta Hondarribiko alkateen parte hartzearekin. Ixabel Aleman Amaiurko alkateak aipatu zuenez, «hondarribiarrak eta baztandarrak beti senideak izan gara, Bidasoa ibaiaren bidez. Ur beretik edaten dugu, hizkuntza bera dugu, ohitura berdina... Baina historiak ezarritako mugak ere hor daude. Urtetan, Espainiak eta Frantziak idatzitako historia

sinetsi dugu. Beraien leihoe-tatik ez dute ez Jaizkibel, ez Larhun, ezta Alkurruntz ere ikusten, ez dute gure ura edaten, baina halere gure historia idatzi dute, Amaiur traidoreen gaztelu bat zela idatziz, Hondarribia plaza militarra bilakatu... Iragana ezin da aldatu, baina euskal erakundeetan gaudenok gure herri nortasuna eta lurraldeen arteko loturak sendotzeko ekimenak bultzatu behar ditugu».

Damarri plazan Keman Dantza Taldeak, Hondarribiko Txistu Taldeak eta Amaiurko Gaztelu Abesbatzak zein Hondarribiko abesbatzek parte hartu zuten ekitaldian eta Petti abeslari beratarrak *Amaiur gaztelu baltza* kanta-tu zuen. Igor Enparan Hondarribiko alkateak eta Ixabel Alemanek senidetzearen oroitaria hartu zuten.



ZIGA
ELEKTRIZITATEA

647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak,
argiztapen-azterketak
eta elektrizitate lanak orokorrean






Itzultzaile eta zuzentzaile autonomoa da Apalauza. TXALAPARTA

Amaia Apalauza Ollok lortu du 2024ko (H)ilbeltza beka

TTIPI-TTAPA

Hamar lagin aurkeztu dituzte aurten (H)ilbeltza bekan, *Guillem* liburua itzultzeko, eta Amaia Apalauza iruindarra izan da saritua. 6.000 euroko beka da, erdia orain emanen diote eta gainerakoa akitzean.

Baztango Udalak, (H)ilbeltza elkarteak eta Txalaparta argitaletxeak antolatzen dute beka, euskarazko nobela beltza sustatzeko. Epaimahaiia Fernando Anbustegi Baztango alkateak, Beñat Irastorza aurreko irabazleak eta Garazi Arrula Ruiz Txalapartako ordezkariak osatu dute. Azaldu dutenez, aipagarriena «lagin irabazleak katalanezko testuaren erritmoa euskaraz nola gorde duen» izan da, «horretarako joskera zaindu baitu eta euskararen baliabide ugariak baliatu baititu, testuari jario haundia eta aberastasuna emanez».

Apalauza beka lortzen duen zortzigarren idazlea da. Heldu den urtera arte izanen du liburua euskaratzeko epea, eta 2025eko abenduan publikatuko du Txalaparta argitaletxeak. Gainera, 2026ko urtarrian aurkeztuko dute lana (H)ilbeltza ekimenean.

Amaia Apalauza Olló

1979an Iruñean sortua, Euskal Filologia ikasi du Apalauzak. Gaur egun itzultzaile eta zuzentzaile autonomoa da, baita EIZIEko zuzendaritza taldeko kidea ere. 2015ean argitaratu zuen lehen itzulpen lana, Sergei Dovlatoven *Maletak* ipuin liburua, eta hainbat liburu euskaratu ditu geroztik. Katalana du lan hizkuntzetaiko bat, eta bi liburu itzuli ditu: Irene Pujadasen *Puskak* eta Montserrat Roigen *Gerezi-denbora*.

Kartel berezia Arizkun Rocken azken ediziorako

Olatza Salvador, Olaia Inziarte eta Xabi Solano eta Zigor DZ izanen dira oholtzaren gainean

TTIPI-TTAPA

Joan den urteko edizioak azkena izan behar bazuen ere, bertan behera utzi behar izan zuten Arizkun Rock jaialdia. Hori dela eta, bestari behar bezalako agurra emateko, edizio berezia antolatu dute maiatzaren 18an Arizkongo plazan. Sarrera dohainik izanen da eta 19:00etan hasiko dira kontzertuak.

Lehenik Olatz Salvador kantautore donostiarra izanen da oholtzaren gainean. Ondotik, Oronoz-Mugairiko Olaia Inziartek kantatuko du. Akitze-



Olaia Inziartek kantatuko du.

ko, Esne Beltza taldeko kide diren Xabi Solanok eta Zigor DZk joko dute. Horrez gain, ostatua eta bokatak izanen dira.

'Emakume erretratuak' argazki erakusketa Elizondon ikusgai

TTIPI-TTAPA

Udalak, Nafarroako Gobernua-ren laguntzarekin, XIX. eta XX. mendeetako argazkien erakusketa antolatu du Arizkuneko lehenbiziko solairuan. Maiatzaren 24ra arte dago ikusgai, astelehenetik ortziralerara 16:30etik 20:00etara.

Erakusketak 1880tik 1940ra bitarteko gizartea erakusten du, sei multzo nagusitan: familia erretratuak; emakumeen erretratuak; haurtzarroa, emakumeak eta eskola; emakumeen lanbideak; emakumeak eta politika; eta emakumeak eta besta.

BRIKO BAZTAN, SL

Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jarzea

Pinturak
Fatzadak
Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052
San Andres, 66 - NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, SL

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

JL Torralbaren margolanak ikusgai dira Arizkunenean

Baztango Kultura Zerbitzuak Juan Luis Torralba artista baztandarraren margo erakusketa antolatu du Arizkunenean, ekainaren 22ra arte. Aste tartez 18:00etatik 21:00etara dago ikusgai eta jai egunetan 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 21:00etara.

Etxebizitzaren egoera salatzeneko kanpaldia

Euriari aurre eginez, plazan pasatu zuen gaua gazte kuadrilla batek apirilaren 30ean, Baztanen bizi nahi dutela aldarrikatuz

TTIPI-TTAPA

Baztango Ernaiko kideak Elizondoko plazan bildu ziren apirilaren 30ean, gazteen emantzipatzeko arazoa plazaratu eta salatzen.

Kanpin dendak muntatu ondotik batzarra egin zuten, eta Xabi Torres, udaleko zinegotzi izandakoa, etxebizitzaren egungo egoeraz solastatu zen. Turismoak eskualdean izan duen bilakaeraz eta ondorioez aritu zen, tartean pilaketak, kutsadura, bizitzaren garestitzea eta identitatearen galtzea. Bigarren etxebizitzak ere izan

zitu zuten solasgai, eta etxeja-been ardura sozialaren garrantzia gazteen etxebizitzarako sarbidean. Parte hartzaileek gaia lantzeko eta irtenbideak irudikatzen tartea ere izan zuten.

Afalondoa Bidenabar taldeak goxatu zuen gaua, eta euriak atsedetik eman ez bazuen ere, hainbat lagun gelditu ziren herriko plazan lo egiten.

Biharamunean, maiatzaren 1ean, LABek deitutako manifestaziora joan ziren, gazteen aldarrikapenak Iruñeko karraketan plazaratzeko.



Baztango hainbat gaztek bat egin zuten ekimenarekin. R. OSKARIZ

Etxebizitzen % 34 hutsik

Nastaten arabera, 2022ko akabailan Baztanek 2.970 bizitegi nagusi zituen, eta 1.564 etxe huts edo bigarren etxebizitza. Hau da, etxebizitzen % 34,5 hutsik daude urte osoan edo bigarren etxebizitza bezala erabiltzen dira. Datu horien artean Azpilkuetak, Erratzuk eta Oronoz-Mugairik dituzte datu kezkarrienak, etxebizitzen erdiak bakarrik baitira bizitegi nagusiak. Turismora bideratutako ostatuei dagokienez, azken 20 urteetan nabarmen egin dute goiti, plaza kopurua bikoiztuz. Horien artean landetxeak dira nagusi, eta azken urteetako joerak apartamentu turistikoek gorakada erakutsi du.



ELIZONDOKO ABESBATZA

Elizondoko Abesbatza eta Oskarbi bikain

Apirilaren 27an Elizondoko Abesbatzak kontzertua ederra eman zuen Elizondoko elizan, Oskarbi talde gipuzkoarrarekin batera. Lehenik abesbatzak kantatu zuen, ondotik Oskarbi, eta akitzeko, bi taldeek elkarrekin. Gainera, saski bat zozketatu zuten eta Maria Jose Urtasunek irabazi zuen.

Akuler karrilka, 12
31711 Urdazubi-Urdax (NAFARRDA)
+34 848 85 00 21
info@asadormontxo.com

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444
marmolessoule@gmail.com

Giro bikainean iragan da Izpegiko VI. igoera

37 pilotuk parte hartu zuten proban eta Bruno Scherer eta Daniel Jimenez izan ziren txapeldunak

TTIPI-TTAPA

DRS Razing taldeak Izpegiko igoeraren seigarren edizioa antolatu du aurten, eta arrakastatsua izan da. Euskal Herri osotik etorritako 37 autok parte hartu zuten, eta 34 gidarik lortu zuten akitzea. Ilunabarrean sari banaketa egin zuten Erratzuko plazan.

Turismoetan Bruno Scherer izan zen garaile, Porsche 911 GT3 autoarekin. Lucas Scherer izan zen bigarrena, BMW M3 E46arekin, eta Andoitz Garmendiak osatu zuen podiuma, BMW M3 E36 autoa-

rekin. Monoplazetan, berriz, Daniel Jimenez izan zen txapeldun, BRC B49 autoarekin, eta Unai Arretxe bigarren Speed Card GT 1.000rekin. Maila bakoitzeko sariak ere banatu zituzten.

Antolatzaileen erranetan, «hasieran egun kaskarra aterako zelakoan ginen, baina eguerdi aldera garbitu eta egun eder batez gozatzeko aukera izan genuen. Jendea manto-mantso hurbiltzen hasi zen eta giro polita izan zen. Orain heldu den urtekoaren esperoan egonen gara!».



37 pilotuk parte hartu zuten proban. DRS RAZING, PELI AVM ETA ONDIKOL

Ornozko garraio trukagailu berria bisitatu du Oscar Txibite kontseilariak

TTIPI-TTAPA

Lurralde kohesioko kontseilariak Ornozko garraio trukagailuak «garraio publikoko desplazamenduak erraztuko duela» adierazi zuen bisitan. Berarekin izan ziren Fernando Anbustegi Baztango alkatea, Florentino Goñi obra publi-

koen zinegotzia eta Jorge Oteiza Ornoz-Mugairiko alkatea.

Obra 753.245 euroko kostua izan du, eta Europako Next Generation funtsaren bitartez finantzatu da. Bi eremu ditu; hiru autobus sartzeko lekua, 1.500 metro karratukoa, eta 21 auto sartzeko aparkalekua.



Nafarroako Gobernuako eta Baztango Udaleko ordezkariak. NAF. GOBERNUA

ELEKBERRI

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

EGUZKI PANELEN INSTALAZIOA

- Proiektu pertsonalizatu, baimen eta diru laguntzen gestioa
- Amortizazio planen azterketa
- Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen instalazioa
- Finantziario aukera

646854825 / 616898065 · elekberri@gmail.com · Elizondo (Baztan)



Liburuaren Eguna ospatu zuten apirilaren 23an eskolan.

Liburuaren Eguna ederki ospatu dute eskolako ikasleek

Handienek ttikiei ipuina kontatu zieten lehenik eta egin duten Booktube emanaldia izan zuten gero

MARIFA ETA KORO

Liburuaren Eguna ospatu zuten Zugarramurdin eskolako ikasle guztiek apirilaren 23an. Lehenbiziko, haundienek ttikienei ipuin bat kontatu zioten eta, ondotik, azken asteetan eginiko Booktube emanaldia izan zuten. Arras egun polita pasatu zuten denek.



Booktube emanaldian.

Bretainiako eta Ezpeletako trikitilariak herrian

Hainbat trikitilari gazteren bisita izan genuen apirilaren 23an. Ezpeleta eta Bretainiako trikitilari eskolako kideek urtero Euskal Herrian egiten duten topaketan zeuden. 21 lagun etorri ziren Luberrigako luthier atelierra ezagutzera, eta ondotik herria alaitzen ibili ziren.



MARIFA ETA KORO



Plazatxo dotorea, iturriaren eta eskaileraren inguruan.

Plazako iturriaren eta eskolako leihorren inguruan loreak eman dituzte

Maiatza loreen hilabetea dela diote, eta herriko bi tokitan loreak eman dituzte. Plazako iturria eta eskailera inguruan autorik gabeko 'plazatxo' tiki bat sortu dute, burdinezko bi lore-ontzi eta lau aulki emanez. Eskolako leihorren inguruan ere lau lore-ontzi haundi eman dituzte.



Eskolako leihorrean.



MARIFA ETA KORO

Urbia eta Loiara arteko pista moldatua

Urbiako lepoa eta Loiara lotzen dituen pistan moldaketa politak egin dituzte azken aldi honetan. Ziloak ziren tokietan harri pikorra eman dute, eta bertze batzuetan zimenta. Beharbada argazkian ageri diren behor eta aziendendako okerrago izanen da, baina gizakion ibilgailuendako mesede.

Ainhoa Alzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaaltzuguren@gmail.com

Elikadura subiranotasuna aldarri Iruñean

Hamabi nekazaritza taldek deitu zuten apirilaren 27ko manifestazioarekin bat egin zuten hainbat taldek eta erakundek

TTIPI-TTAPA

Ehunka pertsonak manifestazioa egin zuten Iruñeko erdigunean, apirilaren 27an, larunbat arratsaldean, Nafarroan benetako elikadura-subiranotasuna aldarrikatzeko. Eskala txikiko ekoizpen-eredua desagertzen ari dela salatu zuten, «eredu dibertsifikatua eta agroekologikoa da, hurbileko biztanleentzat elikagai osasuntsuak ekoizten dituen eta zaintzen dituen lurraldea, ondasun naturalak eta landa-mundua».

Nekazaritzan, ekoizpen txiki dibertsifikatuak desagertzen ari dira, eta monolaborantzak handitzen, lurraren kontzentrazio gero eta handiagoarekin. Gaur egun, espainiar estatuan, ustiategi bakoitzeko azalera handiena duen laugarren erdikidea da Nafarroa. Azken



Iruñeko manifestazioko argazkia.

urteotan, pestiziden erabilerak hazkunde handia izan du, eta bortz aldiz biderkatu da tratatutako azalera.

«Elikadura subiranotasunean eta agroekologian oinarritutako eredurako trantsizioa» da alternatiba, «planetaren muga fisikoetara egokitua, eta ekoizleentzat eta kontsumitzaileentzat bidezkoa». Ildo horretan, Nafarroako Elikadura Subiranotasunaren aldedeko Manifestua egin dute.



BIZI!

Aberatsak zergapetzeko deia Senperen

Bizi! eta Alda mugimenduetako 15 militantez ekitza sinboliko bat burutu zuten apirilaren 25ean Bruno Le Maire, Frantziako Ekonomia eta Finantza ministroaren bigarren etxearen aitzinean, Senperen. Aberatsak zergapetzeko deia egin dute, maiatzaren 1eko Baionako manifestazioan bezala.



'Kirol guztiontzat' egitasmoaren sustatzaileak, Lekarozko aurkezpenean.

'Kirol guztiontzat' mugaz gaindiko egitasmoa aurkeztu dute Lekarozen

TTIPI-TTAPA

Malerreka Common Zerbitzuak eta Bi On Be elkarteek antolatuta dute «kirolari, irisgarritasunari eta gizarteratzeari buruzko mugaz gaindiko topaketa», Ligue Sport Adapté Nouvelle Aquitaine erakundearekin eta NAEN Euroeskualdearen laguntzarekin. Kirola «gizarte bazterketako arriskuan dauden pertsonentzako eta dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako tresna gisa» hartzen du ekimenak. Xabel Elizalde Malerrekako proiektuen zuzendariak ireki zuten ekitaldia maiatzaren 2an Lekarozen, eta bertan izan ziren eskualdeko hainbat eragile; klubak, elkar-teak, kolektiboak, udalerrietako ordezkariak...

Marie Heguy-Urain Euroeskualdeko ordezkariak Bi On Be proiektuaren bilakaera

azpimarratu zuen, «mundu guztiari kirola eta jarduera fisikoa errazteko». Igor Emeryk taldeko plataformaren funtzionamendua erakutsi zuen: «Bi On Be jarduera fisikoaren eta kirol jardueraren eskaintza mundu guztiaren eskura jartzen duen tresna da, modu arin eta funtzionalean». Caroline Philips PIC Digitaleko zuzendariak eta Jean-Dominique Barberarena Olagarroa Sport Adapté elkarteko presidentek ere parte hartu zuten solasaldian, digitalizazioari eta inklusioari buruz. Horrez gain, kirolarekin lotutako esperientziak aditzeko aukera izan zen Doneztebeko Andrea Mindegia judo egokitu txapeldunaren eskutik eta Benito Menniko Iñaki Gorriren eskutik. Iruñeko espetxeko bi preso gizarteratzeko kirol programa ere aurkeztu zuten.



KATEA BIKE

Bizikleten salmenta eta konponketa.

Kanltonberri, 1 | BERA

T. 948 631 218

joxemi@kateabike.com

www.kateabike.com










Ikatz-txondorra prestatzen hasiak dira auzolanean

Lehen prestakuntza lanen ondotik, hilaren 18an muntatu nahi dute, 25ean piztu eta ereiaroaren 16an ideki, ikatzaren biltzeko

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 4an hasiak dira txondorren eraikuntzarekin, hilabete hondarrean piztu eta ereiaroaren 16an ikatzaren berreskuratzeko. Sarea eginez hasi ziren eta joan den ortzi-ralean hurbiltzekoa zuten egurra. Maiatzaren 18an txondorra kargatu/muntatu eta maiatzaren 25an pizteko asmoa dute. Ekain erdian idekiko da ikatzaren biltzeko. Jarduera ludikoa eta partehartzailea izatea nahi dute eta eraikuntzan edota zainketan parte hartu nahi dutenekizena eman behar dute, Jose Cazaubon kultur, animazio eta hizkuntza politika kargudunarekin (06 16 68 65 98, kultura@sare.fr) edo Sarako lezeetako Fabrice Iparaguirrerekin (06 81 33 51 60, lezea@grottesdesare.fr) harremanean jarritz. Lehendik



Ikatz-txondorra Igantzin.

ere Lesakan, Goizuetan, Igantzin eta bertze zenbait lekutan ikatz-txondorrak egiten aritutako Andoni Etxenike goizuetarra eta bere taldearekin ari dira lanean.

Bigarren zigantea

Bigarren zigantea eraikitzen ari da Txinparta kultur elkarteak. Estructura egina dute, buruari lotu dira orain eta dantzariak Berara ere joaten dira, dantzaren ikastera.



SARAKO IZARRA

Basurdeak bikain ari dira

Sarako Izarrako errugbi taldeak bikain ari dira. Emakumeek igande eguerdian izanen dute sasoiko hondarreko partida Animainean eta gizonezkoak Frantziako txapelketako final hamaseirenetarako sailkatuak ziren, Okzitaniar US Mardaing Azereix Ossun taldeari 27-33 irabazi ondotik.



Joan den urtean ere hainbat lagun bildu zituen ikastolako bestak. GANEX

Olhain ikastolaren besta ospatuko dute igandean sagarnotegi bazkariarekin

GANEX

Urte guziz bezala, mendekoste igandearrekin, maiatzaren 19an ospatuko dute Olhain ikastolaren besta kiroldegian, sagarnotegiko bazkariarekin. 12:30ean Txoots! kupelen idekitzea egingen dute eta ondotik bazkaria. Helduen menuan bakailoa piperrekin, txuleta,

gasna, pastiza, kafea eta ttotta izanen dute, 27 eurotan. Haurrentzako menua ere izanen da, 8 eurotan. Jokoak eta puzgarriak ere izanen dira. Arratsaldean, musika, 18:00etan Basapiztiak taldea eta 20:00etan DJ Bull. Etorri ahal duzuen guziak ikastolako haurren sustengatzera.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
AUTOMOTIVE SOLUTIONS

www.ibargoyen.net ☎ 943 616 587
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



Joseten arreba Mailusek lore sorta hartu zuen opari. JL BESSONART

Ortxixeneko Joset Elizondo gogoratu dute Larraldean

Lapurdi 1609 elkartearen ekimenez egin zioten omenaldia, bere arrebaren inguruan bildutako jende multzoarekin

JL BESSONART

Lapurdi 1609 elkartearen ekimenez, Ortxixeneko Joset Elizondo zenaren oroitzapenezko ekitaldia iragan zen apirilaren 28an Larraldean, Joseten arreba den Mailusen inguruan bildu den jende multzoarekin. Duela 65 urte, Joset Elizondo, gau betean etxera zihoalarik moto istripuz hil zen, jende gehienaren eta prentsaren arabera. Adiskide eta familiarentzat, aldiz, erailketa baten ondorioz, gizona etzanik eta motoa zutik deskubritu zituztelako. Mixel Mendibourek bere mintzal-

dian, ongi aztertu zituen heriotz honek sortu zituen galdera guziak, ahatik erantzunik gabekoak, itzalak argitu ezin. Zorigaitzez, Josetekin batera egia ere lurperatua izan zen, autopsia eta inkestarik gabe.

Ametz Arzallusen bertsoa

Ametz Arzallusek moldatu eta Martxel Bravek kantatu azken bertsoak bilduma bat egin lezake: «Istripuz hil zen edo norbaitek garbitu; denbora joanarekin ez baita argitu; orain Olha parean diteke aditu; hemen egiak ere Bortz kantoin baditu».

SPUCeko talde nagusia eta erreserba Akitania-Berriko txapelkun izan dira

JL BESSONART

Lurraldeko titulua irabazi ondok, SPUCeko errugbiko gure bi ekipoek St Medard en Jalles hirian jokatu dituzte Akitania-Berriko final handiak R2 mailan, apirilaren 27an. Erreserbak aise garaitu badu Castelmoroneko taldea (37-20),

zer erran gure lehen ekipoaz, erraustu baitu Saint Jean d'Angelyko taldea (62-5).

Bi taldeak hari beretik ibili dira finaleran, lehen zati bat parekatua, ilusio pittin bat utzirik aurkariei, nonbait. Aldiz, bigarren zatietan izigarriko nagusitasuna erakutsi dute.



JL BESSONART

Zirikolatzen 45. urteurrenako besta

Zirikolatzen dantza taldearen 45. urtemuga ezin hobeki ospatua izan da, Larreko antzokian. Bi ikuskizunetan leporaino bete zen. Ehun bat dantzari pasa, oholtza gainean, beraien energia partekatzen publikoarekin, zinez ekitaldi pozgarria izan da. Arduradun, dantzari eta musikari guzietan, mila milesker.



ARGAZKIJABEAXXX

Batteleku lehiaketan Mattin garaile

Itsasoko ur gazietan abiatu aitzin, Ur-Joko elkarteak batteleku lehiaketari hasiera eman dio aintziran apirilaren 20an. Ur bazterrean anitz jende bildu da arraunlarien sustatzeko. Orogen buru, Mattin eskifaia irabazi du lehiaketa, Ur-Hertsi eta Hergarairen aitzinetik.



Gaillet eta Sanchez trebatzaileak.

Orain erreserbaren denboraldia bururatu bada ere, lehen taldea Frantziako txapelketan sartzeko azen maiatzaren 12an, Ramonvilleko ekipoaren kontra Urruñako zelaian. Aupa Senpere!

Sarako Izarrarekin batera errugbi eskolan ari diren Senpereko gaztetxoaren taldeak ere sasoi polita egin du, errugbiak oraina ez ezik, geroa ere baduela erakutsiz.



Elizondoko Baztan pilotalekuan egin zuten Udaberriko 33. txapelketako sari banaketa apirilaren 28an. FOTO ZALDUA

Udaberriko txapelak banatu ditu Txaruta pilota elkarteak

Elizondon eta Iruritan jokaturako azken partidaren ondoren, sari banaketan parte hartu zuten Martija eta Gaskue pilotariak

TTIPI-TTAPA BAZTAN

Baztango Txaruta elkarteak hogeita hamahirugarren aldiz antolatutako Baztango Udaberriko eskuz binakako pilota txapelketako finalak apirilaren 28an, igande goizean jokatu dituzte Elizondoko Baztan Udal pilotalekuan eta Irurita-ko Aranabia pilotalekuan. Julen Martija eta Andoni Gaskue pilotari profesionalak izan ziren sari banaketan.

Finaletako emaitzak

Elizondon jokaturako finaletan, **Umeak A kategorian**, Irurita-ko Oihan Etxeniketik eta Mikel

Agerraldek 18-13 irabazi zieten Tolosako Ekhi Altunari eta Oier Bengoetxeari.

Kimuak A kategorian, Bortzirietako Ekai Mikelperizenak eta Erik Igoak 18-6 irabazi zieten Bortzirietako Beñat Goñiri eta Eñaut Zubietari.

Haurrak A kategorian, Hernaniko Aratz Labakak eta Oier Arsuagak 18-4 irabazi zieten Azpeitiko Iker Ansolari eta Juen Urrestillari.

Kadete A mailan, Lazkaoko Enaitz Landak eta Txukun Lakuako Eñaut Motok 18-10 irabazi zieten Oberenako Ibai Olzari eta Azpeitiko Jokin Ar-

tetxeri eta **Gazte mailan**, azkenik, Larraungo Aitor Eguzkizak eta Endika Galartzak 22-11 irabazi zieten Burlatako Beñat Graciari eta Hodei Urmenetari.

Bertze lau finalak Irurita-ko Aranabia pilotalekuan jokatu zituzten, emaitza hauekin:

Umeak B kategorian, Male-
rrekako Mikel Bengoetxeak eta Joanes Zestauk 18-15 irabazi zieten Ataungo Beñat Albisu eta Intza Labakari.

Kimuak B kategorian, Male-
rrekako Ekaitz Madariagak eta Eneko Apeztegiak 18-10 irabazi zieten Erratzuko Mikel Alzateri eta Irurita-ko Aiert Urrutiari.

Haurrak B kategorian, Bortzirietako Ekaitz Zestauk eta Jon Lazkanotegik 18-13 irabazi zieten Ataungo Xabat Labakari eta Beñat Arreseri.

Kadete B mailan, azkenik, Atarrabiako Sergio Esainek eta Unai Santestebanek 18-14 irabazi zieten Irurtzungo Asier Zubiriari eta Pello Gorraizi.

Nafarroako Herriarteko txapelketa abiatu da

Joan den asteburuan abiatu da Nafarroako herriarteko pilota txapelketa. Herriarteko ttikian, eskualdeko herriei dagokienez, Baztan, Bera, Doneztebe, Goizueta eta Leitza lehiatuko dira eta benjamin, alebin eta infantil mailako bikoteak ariko dira. Herriarteko nagusian, berriz, Leitzak eta Doneztebek bakarrik kan-
txaratuko dute taldea eta kadete, jubenil eta senior mailan ariko dira, Lizarra, Zizur, Araitz-Betelu, Atarrabia, Ultzama, Barañain eta Larraunekin batera.

45 bikote hasi dira Bortzirietako binakakoan

Bortzirietako pilota elkarteak hogeita hamahirugarren aldiz antolatutako Bortzirietako eskuz binakako pilota txapelketa maiatzaren 10ean abiatu zen. Denera 45 bikote eman dute izena, sei kategoriatan banaturik (6 ttikiak mailan, 6 umeak B mailan, 7 umeak A mailan, 11 kimuak B mailan, 6 kimuak A mailan eta 9 haurrak mailan). Zuzen bidean, partidak ortziraletan jokatu dituzte Berako Eztegarra eta Etxalarko pilotalekuan eta finalak ekainaren 22an jokatu dituzte.

Mendialdeko IV. pilota txapelketako finalak Goizuetan jokatu dituzte

Kadeteen lehen maila: Bidart (Aurrera) eta Otamendi (Larraun), 18 - Baleztena eta Alkorta (Aurrera), 22

Gazteen lehen maila: Nazabal (Larraun) eta Elizegi (Umore Ona), 22 - Sagastibeltza (Aurrera) eta Telletxea (Larraun), 10

Nagusien 2. maila: Iriarte (Larraun) eta Oreja (Araxes), 9 - Juaristi (Azkoitiko Oteiza) eta Altuna (Hernani), 22

Nagusien lehen maila: Beñat Apeztexea eta Antton Apeztexea (Umore Ona), 22 - Arribillaga eta Peñalver (Lagunak), 11



Apirilaren 26an jokatu zituzten finalak Goizuetan. FELIX LOIARTE

Iker Gomez izan da lehena Errandonea memorialean

Berako Gure Txokoa elkarteak 46. aldiz antolatutako sarian 35 txirrindularik osatu zuten 72 kilometroko ibilbidea

TTIPI-TTAPA BERA

Felix Errandonearen omenezko XLVI. memorialeko jokatu zen maiatzaren 5ean Beran, Gure Txokoa elkarteak antolatua. Junior mailako 35 txirrindularik osatu zuten 72 kilometroko ibilbidea eta Quesos Albeniz taldeko Iker Gomez nagusitu zen. Ordu-bete, 43 minutu eta 37 segundu behar izan zituen ibilbidea osatzeko.

Bigarren lekuan Robert Innovako Iker Villar sailkatu zen, eta hirugarren lekuan Ipar Maquina-Dimaq taldeko Joan Cardona. Taldeka irabazlea Ipar Maquina-Dimaq taldea izan zen.

Sariak banatzen herriko alkate Aitor Elexpuru, Gure Txokoa elkarte lehendakari Jaione Dozagarat eta elkarte txirrindularitza saileko



Berako probako podiuma.

Alberto Retegi aritu ziren. Ondotik, hamaiketako izan zuten parte hartzaileek.

Salva Yanci memoriale ingandean Lesakan

Salva Yanciren oroimenez Lesakako Beti Gazte elkarteak zortzigarren aldiz antolatutako martxa zikloturista eginen dute maiatzaren 19an. Igandean, 08:30ean abiatuta, 118 km luze eta 1.473 metroko desnibela duen ibilbidea dute.



Nafarroako IV. Disc Golf Irekiko parte-hartzaileak, Baxirekin Irrisarrin. UTZITAKOA

Markus Pohjolainen finlandiarra nagusi Nafarroako IV. disc golf irekian

TTIPI-TTAPA IGANTZI

Nafarroako disc golf irekiaren laugarren edizioa jokatu zuten maiatzeko lehen asteburuan Igantziko Irrisarrin Landeko zelaian, Baxi Basajauna elkarteak antolatuta. Mundu osoko kirolariak hurbildu ziren, Euskal Herrikoak ez ezik, Espainiakoak, AEBkoak, Finlandiakoak, Austriakoak eta Frantziakoak ere. Denera 50 jokalaririk aritu ziren Espainiako Koparako baliagarria zen hirugarren proba honetan. Finlandiako Markus Pohjolainen izan zen onena. Hiru txandatan 161 jaurtiketa aski

izan zituen (10 parearen azpitik). Gorka Beltran de Heredia izan zen bigarren 165 jaurtiketekin (-6) eta Rafael Sarriegi hirugarren, 171 jaurtiketekin (parean). Emakumeetan Carla Martin nagusitu zen (198 jaurtiketa). MP50 kategorian, Baxi Basajauna taldeko Iñaki Gonzalez Olaiola nagusitu zen, Javier Del Riego eta Baxi Basajaunako Antonio Negreteren aitzinetik. Mikel Ibarrola doneztebarra seigarren izan zen. MP40 kategorian Raul Lopez-Cancio izan zen onena eta junior kategorian, Beñat Lopez.



UTZITAKOA

Hodei Lujanbio Valtieran ere irabazle

Osin Trail taldeko Hodei Lujanbio goizuetarrak irabazi zuen apirilaren 28an Valtieran jokatuako Bardeetako Begiratokiko bigarren trail lasterketa (20,5 km). 9 kilometroko lasterketa laburrean, berriz, bigarren izan zen Beti Gazteko Irantzu Goienetxe lesakarra.



UTZITAKOA

Uxuri Portu garaile Cambrilsen

Espainiako trial koparako baliagarria zen bigarren proba jokatu zen maiatzaren 5ean Cambrilsen. Lesaka Trialeko Uxuri Portuk, 9 eta 11 urte arteko nesketan garaipena lortu zuen eta Espainiako kopako lidergoa sendotu zuen. Kadete mailan laugarren izan zen Xabier Valverde taldekidea.

«Bukaera hau izanen nuela jakinda ere, ez nukeen ezer aldatuko»

IBAI AZURMENDI SAGASTIBELTZA LEITZAKO TXIRRINDULARI OHIA

Osasun arrazoiak tarteko txirrindularitza profesionala utzi behar izan du 27 urteko leitzarrak. Bere ibilbidearen errepasoa egin eta etorkizuneko erronkei buruz aritu da solasean TTIPI-TTAPArekin.

ENERITZ IRAOLA LEITZA

Zaleak ezustean harrapatu ditu berriak, baina hilabete izan du Azurmendik albistea nola eman erabakitzeko: «medikuen gomendioak jarraituz, nire ibilbide profesionalari bukaera emateko momentua ailegatu da». Ez dira momentu errazak izan, baina bere kirol ibilbidean egin duen bezalaxe baikortasunik ez zaio falta: «nire ametsa bizitzeko pribilegioa izan dut eta eduki ditudan aukera guztietan pentsatzen dut eta ez galtzen ditudanetan».

Astebete pasa da erretiroaren berria eman zenuenetik. Zer moduz zaude?

Pixkanaka egoera berrira ohi-tzen ari naiz. Egunerokoan ere aldaketa ikaragarria da, kostatzen ari zait txirrindulari batek bezala ez pentsatu edo bizitzea. Oso errutina zehatzak mantendu ditut urtetan eta oso zorrotza izan naiz. Maila emozionalean lasaiago nago. Galiziako itzulian ondoezik sentitu eta mediku batetik bestera ibili naiz, azterketa pila bat egin dizkirate. Ez dira momentu errazak izan. Azterketak egiten ari nintzenean nire kezka zen ezer argirik ez topatzea eta erabakia nire esku gelditzea. Medikuek argi ikusi dute eta haien gomendioak segiz hartu dut erabakia. Horrek zertxobait erraztu du bidea.

Gogoan duzu bizikleta gainera igo zinen aurreneko eguna?



2018az geroztik aritu da profesionaletan Azurmendi. ENERITZ IRAOLA

Anaiaren lasterketa bat ikusterera joan nintzen eta berari kendu nion bizikleta. Ez nintzen ongi ailegaten. Aitak laguntzen zidan bizikleta gainera igotzen. Denbora gehiago pasatzen nuen lurrean, bizikleta gainean baino! Ez zegoen nire neurriko bizikletarik eta aitak mirariak egin zituen tailerrean bizikletaren bat nire neurrira egokitzeko. Akordatzen naiz irteerako puntuan denak normal egoten

zirela bizikleta gainean, hantak lurrean zitu zela. Niri aitak heldu behar izaten zidan ni ez nintzelako ailegaten lurrrera. Baina hala ere, hortxe segi nahi nuen. Bizikleta gainera igo banintzen igo... gaur arte ez naiz jaitsi.

2014an Jorge Azanza ezagutu zenuen.

Gure bideak 2014an gurutzatu ziren. Geroztik, aita baten parekoa izan da niretzat. Gidari izan dut, kategoria guz-

tietatik pasa eta goraino ailegatu arte. Munduko itzulirik hoberenetara eramanez eta itzuli horietan ere elkarrekin egon gara lanean. Azken egunera arte, Galizian ospitalean nirekin gelditu zen. Hasi eta bukatu berarekin egin dut nire ibilbidea.

Euskaltel taldean egin duzu ibilbide guztia.

Bai, hala da eta berezia da hori. Egia esan, orain gehiago baloratzen dut. Momentuan helburuei begira zaude eta ez duzu gehiegi pentsatzen. Nola hobetu duzu burutan eta etorkizunari begira zaude. Baina ederra da ikustea talde honetan pasa ditudala kategoria guztiak eta mota guztietako probetan parte hartu dudala. Herri txiki batean antolatzen duten proba batetik hasi eta Mundial batean edo Espainiako Itzulian parte hartu arte, elastiko laranja izan dut beti soinean.

Kirol gogorra da txirrindularitza. Jasotako presioa handia izan da?

Taldearen partetik baino gehiago, neure buruari jarritako presioak eman dizkit lanak. Kontziente nintzen urrezko aukera bat nuela eta aprobetxatu egin nahi nuen. Hasiera nahiko gogorra izan zen. Profesionaletan hasi eta kolpean Mundialean lehiatzen ari nintzen. Egin nituen ideia batzuk ez zirenak eta karrera bakoitzean geroz eta kolpe handiago hartzen nuen. Halakoetan esaten diozu zeure buruari, geroz eta lan gehiago egiten dut, geroz eta gehiago estutzen dut neure burua eta ez dut errenditzen. Lur jota iristen nintzen, psikologikoki nekatur. Horregatik uste dut alderdi psikologikoan asko dagoela lantzeko. Denborarekin ikasi dut helmugan baino gehiago gozatzen dela prozesuan. Garrantzitsua dela egunerokoan gozatzea, ez dakizulako noiz izanen den bukaera. Inportantea da ez itsutzea. Landu behar den zerbait da eta uste dut gazteak oso galduta dabiltzala. Helburuak

lortu nahi dituzte, pausoka joan beharrean golpetik lau pauso emanaz.

Zuk egin duzu lanketa hori.

Zortzi urte daramatzat psikologo batekin lanean eta nire aldetik ere asko landu dut. Ikusi dut askotan forma fisiko txarragoan joan eta buruz ongi egonda, gehiago errenditu dudala aldrebes baino. Eta hori latza da.

Zure ibilbidean momentu gozoak eta gaziak izan dituzu.

Gorabehera asko izan ditut. Bizikleta gainean askoz momentu txar gehiago izan ditut onak baino, baina momentu txar horietatik ikasten saiatu naiz beti. Zekienari galdetzen, aukerak aprobetxatzen... eta urtez urte, momentu on gehiagoren bila joaten. Ez naiz gelditu eta aurrera egin dut beti. Txirrindularitzan, bizitzan bezalaxe, funtsezkoa da kolpeak jaso eta horiek onartzen jakitea. Gainera, kolpe bakoitzarekin lehen baloratzen ez nituen gauzei balio bikoitza ematen ikasi dut eta gauza txikiekin gozatzen. Seguru nago pasatako momentu txar horiek guztiak pasa izan ez banitu, oraintxe gertatu zaidanarekin, lur jota egonen nintzatekeela. Eta ez da hala, baditut aurrera egiteko bitartekoak eta ikusten dut bizitzak beste aukera bat eman didala. Nire ametsa bizitzeko pribilegioa izan dut eta eduki ditudan aukera guztietan pentsatzen dut eta ez galtzen ditudanetan. Bukaera hau izanen nuela jakinda ere, ez nukeen ezer aldatuko.

Esan izan duzu ilusioa ezinbestekoa dela txirrindularitzan.

Lasterketa bat erronka psikologiko gogor bat da eta ilusioa galdu eta lasterketara lanera joaten zarenean, ahaztu txirrindularitza. Ilusioa oinarritzakoa da aurrera egiteko. Nik eduki dudana urterik hoberena nire ibilbideko lehenbizikoa izan zen. Errebotez sartu nintzen taldean, batek ezetz esan zuelako eta Azanzak nire aldeko apustua egin zuelako.



Txirrindularitzari lotuta segi nahi du etorkizunean ere. ENERITZ IRAOLA

Gogoan dut Mallorkara lehenbiziko lasterketan parte hartzea joan nintzela. Lasterketak 190 kilometro zituen eta zazpi mendate igo behar genituen. 170 txirrindulari ateraginen, munduko hoberenak han ziren. Esaten zidaten taldekideek, ea lehenbiziko mendatea igotzen duzun eta gero talde bat topatzen duzun aurrera egiteko eta helmugara iristen bazara sekulako lorpena izanen da. Atera nintzen bere ametsaz gozatzen ari zen ume bat bezalaxe eta hama-seigarren egin nuen helmugan. Hori izugarria izan zen eta sekretua ilusioa izan zen.

Zer eman dizu txirrindularitzak?

Balio asko. Egin ditudan lagunak, ezagutu dudana jendea,

tokiak, esperientziak... ate pila bat irekitzen dizkizu eta ikusten dut aukera asko ditudala. Orain ikusi beharko dut zein bide aukeratu. Jende askorekin konektatu dut, azken asteetan jaso dudana babesa da horren erakusle eta, agian, zerbait ongi egin dudala ere esan nahiko du.

Eskerrak jende askori eman dizkiozu agurreko gutunean...

Bide guzti honetan izan dudana laguntzarik gabe ez nintzatekeen iritsi naizen tokira iritsiko. Familiakoen eta gertukoaren babesa funtsezkoa izan da. Azanzak nire aldeko apustua egin zuen eta orain medikuak eta psikologoak eman didaten laguntza ezinbestekoak izan dira.

«KIROL PSIKOLOGIAREN MUNDUA ASKO GUSTATZEN ZAIT»

«ASKO BETEKO NINDUKE BESTEEI LAGUNTZEN SAIATZEAK»

Baduzu zure ibilbidean nabarmendu nahiko zenukeen momenturen bat?

Hiru esanen nizkizuke: Itzulia Leitzatik atera zen momentua, Espainiako Itzulian Bilboko etapako ihesaldia eta Mundialean parte hartu nuenekoa.

Eta orain zer?

Proiektu batzuk baditut burutan, baina denbora pixka bat hartu nahi dut hotzean pentsatzeko. Txirrindularitzari lotuta segi nahiko nuke, bizitza osoa eman dudalako horretan. Gainera, uste dut oraindik ere arlo horretan zerbait eman dezakedala. Kirol psikologiaren mundu hori asko gustatzen zait eta ez dut baztertzen gehiago ikasi eta jendea laguntzen saiatzea. Uste dut asko beteko nindukeela besteei laguntzeko. Ni galdu nintzen bidean ez galtzen uzteko laguntza emateak. Leitzako txirrindulari taldean ere lagundu nahiko nuke, nolabait saiatuko naiz nik dakidana besteei erakusten.

AGENDA

MAIATZAK 16 - 30

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ARTXIBOKOA

SALDIAS **Malerrekako Eguna**

Mendi martxa, dantzariak, paella, mus txapelketa, musika, bertsoak, jokoak...
Maiatzaren 25ean.

SOLASALDIAK

ELIZONDO

'Elikadura zahartzaroan'

Izaskun Berasategirekin.
Arizkunengan, maiatzaren 16an, 17:00etan.

LEITZA

'Hausnarrean' liburua

Josebe Blancorekin.
Liburutegian, maiatzaren 17an, 18:00etan.

'Mendi biziak'

Migel Mari Elosegirekin.
Herri Aretoan, maiatzaren 21ean, 19:30ean.

'Palestinaren egoera'

Ane Irazabal eta Floren Aoizekin.
Herri Aretoan, maiatzaren 23an, 19:30ean.

LESAKA

'Larrosa bat Groenlandian' aurkezpen musikatua

Iban Garro eta Olatz Rojorekin.
Liburutegian, maiatzaren 30ean, 18:30ean.

MUSIKA

ARIZKUN

Arizkun Rock

Plazan, maiatzaren 18an, 19:00etan.

BERA

Raphael Roginski

Kultur Etxean, maiatzaren 19an, 18:30ean.

LESAKA

Abesbatzen topaketa

Harriondoan, maiatzaren 19an, 13:00etan.

Santikutz Abesbatza

Harriondoan, maiatzaren 25ean, 20:00etan.

Organo eta saxofoi kontzertua

Elizan, maiatzaren 26an, 18:30ean.

LEITZA

'Baga Biga Higa' emanaldia

Eñaut Elorrieta eta Mikel Markez.
Herri Aretoan, maiatzaren 20an, 10:30ean.

IKUSKIZUNAK

LESAKA

'Bidasoa 2018-2023' dokumentala

Harriondoan, maiatzaren 19an, 18:30ean.

'Fuera de mi casa' antzerkia

Harriondoan, maiatzaren 25ean, 19:00etan.

DONEZTEBE

'Fuera de mi casa' antzerkia

Zineman, maiatzaren 26an, 18:00etan.

LEITZA

'Insumisas' dokumentala

Herri Aretoan, maiatzaren 30ean, 19:00etan.

AZOKAK

ELIZONDO

Baztango Artisauak eta Zaporeak

Plazan, maiatzaren 18an eta 25ean, 10:00etatik 14:00etara.

LESAKA

Merkatu ttikia

Beheko plazan, maiatzaren 25ean, 10:00etatik 14:30era.

LEITZA

XLV. Eskulangintza azoka

Plazan, maiatzaren 26an, 11:00etan.

ERAKUSKETAK

LEITZA

'Letrak kalera'

Aieneko garbilekuan, maiatzaren 17tik 26ra.

'Orreaga 824'

Herri Aretoan, maiatzaren 21etik 25era.

ELIZONDO

'Emakume erretratuak' argazkiak

Arizkunengan, maiatzaren 24ra arte.

JL Torralbaren margolanak

Arizkunengan, maiatzaren 22ra arte.

JARDUNALDIAK

ITUREN

Palestinaren aldeko eguna

Maiatzaren 18an.

LESAKA

Udalerrri euskaldunen eguna

Maiatzaren 18an.

BERA

Gazte eguna

Maiatzaren 18an.

Hizkuntza eta kultura aniztasun besta

Maiatzaren 25ean.

LEITZA

Bertso Eskolen eguna

Maiatzaren 26an.

«Musikatik bizitzeko ilusioa eta esperantza ez ditut inoiz galdu»

MATTIN ARBELAITZ HERAS ZUBIETAKO MUSIKARIA



GAIZKA PEÑAFIEL

Lesakan bizi den zubietarra, musika kirola eta lagunekin otorduak egitea gustuko duena. Halaxe aurkeztu du bere burua Mattin Arbelaitz Herasek. Ttikia zela hasi zen musika eskolan, «zortzi bat urte nituela», eta geroztik musikaren munduan murgilduta dago, eta gaur egun lanbide ere badu.

Perkusioa ikasten hasi zen: «Etxean askotariko musika entzuten nuen, eta musika brasildarrak bazuen toki garrantzitsu bat horren artean, uste dut horregatik aukeratu nuela perkusioa». Lesakako eta Berako musika eskoletan aritu zen Igor Telletxea beratarra irakasle zuela. Ondotik, Josu Erviti-rekin hiru urtez segitu zuen, eta berriki Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioan jazz ikasketak bukatu ditu Junma Urizarrekin. Hala ere argi dio, «hainbat talde eta proiekturen

parte izateak ikasketetan ezin izan den gauza aunitz ikasteko aukera eman dit».

Gabenara erromeria taldearekin eman zuen lehen kontzertua, eta egun berezi gisa oroitzen du: «Ikaragarrizko ilusioa nuen, eta baita urduritasun puntua ere. Gau askoz irudikatzen egon nintzen nolako izanen zen oholtzara igo eta bertan gertatuko zena eta amets bat betetzeko aukera izan nuen». Geroztik, proiektu aunitzen parte izan da batzuetan taldeko partaide eta bertzeetan ordezkari gisa: Petti eta etxeko uzta, Gozategi, MICE,

«ELKARREN OSAGARRI DIRA JOTZEN DUDAN HIRU TALDEAK»

Tximeleta, Ciento Volando, Mugaldekoak, Rüdiger...

Gaur egun Izarorekin, Janus Lesterekin eta Haratekin aritzen da, «esperientzia hagitz aberasgarria» izaten ari da. «Proiektuak elkarren artean erabat desberdinak dira eta zirkuitu, oholtza eta ikuspuntu hagitz bertzelakoak ezagutzeko parada ematen dit». Nabarmendu duenez, «elkar osagarriak direla sentitzen dut, eta denekin disfrutatzen dut».

Talde bakoitza

Modu diferentean ailegatu da orain jotzen ari den taldeetako bakoitzera. Izarorekin ordezkari batzuk egin ondotik, aurtun, lehenengoz bira osoa egiten ari da: «Cerodenero birarako batera jotzailea behar zuten, eta gonbita egin zidaten beraiekin jotzeko», azaldu du. Berriki Ameriketako Estatu Batuetan izan da jotzen, eta esperientzia «eder» gisa deskribatu du: «Kontzertuak hagitz desberdinak izan dira, eta bertze modu batean gozatu ditugu». Musikaz gain, bertako inguruak disfrutatzeke aukera ere izan dute.

Izarorekin jotzeaz gain, Berako Janus Lester taldean ere ari da Arbelaitz, kasu horretan, proiektuaren hasieratik egon da murgildua. «Taldekoko abeslari Jokin Pinatxorekin Azken Trenan aritua nintzen, eta duela urte pare bat jaso nuen bere deia taldearekin hasteko», azaldu du.

Haratekin ere taldearen sorrera prozesutik egon da. «Berako aduana zaharrea Ibai Gogortzarekin maiz kointzientzien nuen. Ni nire gauzak entseatzeko egoten nintzen, eta

bera bertze gela batean bereak egiten». Elkarrekin aunitzetan topo egin ondotik egin zion proposamena Gogortzak: «proiektu berri bat burutan zuela erran zidan eta ea Iñigo Telletxearekin batera hirukote bat osatuko genuen. Ezin ezetz erantzun».

Afizioa ofizio

Hasieran afizio zena ofizio bilakatua du Arbelaitzek. Pizkanakako prozesu gisa definitu du, denborarekin baldintza hobekitu zuten taldeetan aritzeko aukera izan baitu: «Musikatik bizitzeko ilusioa eta esperantza ez ditut inoiz galdu eta oraintxe bertan, aho ttikiz, lortu dudala erran dezaket. Ez dakit noiz arte iraunen duen, baina bitartean, aprobetxatzeko aukerarik ez dut galduko». Etorkizunera begira ere, musikari bezala egiten duen lanarekin «bizitza duina» izan nahiko luke, «nahiko lanbide gorabeheratsua» delako.

Bateria jotzaile daraman denboran hainbat kontzertu berezi eman ditu, baina bereziena zein den galdetuta argi du erantzuna Petti eta Etxeko Uztarekin emandakoa dela. «Ttikitatik hamaika aldiz zuzenean ikusitako taldea da, hainbertze miresten ditudan musikariekin oholtza elkarbanatzea, nire irakasle izan zen eta erreferente den Igorren tokia hartzea... dena zen berezia. Nire gaztetako ametsa zen beraiekin jotzea». Kontzertua ailegatzeko «sekulako gogoa» izan arren, «errespetuz handiz» oroitzen du emanaldia. Hala ere, «ongi gozatutakoak» izan ziren bai lehena, eta bai taldearekin emandako bertzeak ere.

Bidean lagun izan dituen gurasoak eskertu nahi izan ditu Arbelaitzek, «gaztetatik lagundu eta gidabaimenik ez nuen garaian nik jo ahal izateko hainbertze kilometro egiteagatik».

«MUSIKARI GISA BIZIMODU DUINA IZAN NAHIKU NUKE»

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

AGENTZIAK



ERRENTAN HARTZEKO

MALERREKA, BAZTAN EDO BORTZIRIAK. Emakume euskalduna, lan finkoa duena, alokairuko etxebizitza, lokala edo antzekoa bila. Lurrarekin baratzerako, ahal dela hutsik edo altzari gutxiarekin, egonaldi luzeetarako. Egoera ezin hobean ez badago, ez dio axola, lana egitea aztertuko litzateke. ☎618 95 26 30.

ERRENTAN EMATEKO



ALMUÑECAR. Granadako kostan, partikular batek lagun bat edo bi-rentzako apartamentua errentan emateko du, abuztuko bigarren hamabortzaldian. Lehen lerroan, bista zoragarriak dituen terrazarekin, aire girotuarekin eta hagitz ongi hornitua. ☎658 94 37 02.

SALGAI

ELIZONDO. Baztanberrin apartamentua salgai, garajea eta trastelekua rekin. ☎658 99 83 40.



DONEZTEBE. Parrokia karrikan, pisua salgai, igogailuarekin. 3 logela. Balkoi handia. ☎665 70 98 48

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN HARTZEKO

ORNOZ-MUGAIRI inguruan auto-karabana gordetzeko garajea, lokala edo lokal zatia nahi dute. ☎677 36 70 07.

LANA

ESKARIAK

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabean erantzukizunik

16 urteko gazteak udan Doneztebe aldean haurrak zainduko litzuzke. ☎659 05 74 54.

BERA. Emakume bat interna ariko litzateke lanean. ☎662 02 33 96.

BORTZIRIETAN emakumezkoa garbiketan eta haurrak edo adinekoak zaintzen lan egiteko prest. Esperientziarekin. ☎623 57 52 44.

ESKAINTZAK

BERA. Ibardingo BENTA PEIOn saltzaileak behar dituzte. Lanaldi osoan aritzeko edo asteburuetan lan egiteko. Frantsesa jakitea beharrezkoa da. Bidali curriculumak: travailleza-vecnous@ventapeio.com.

URDAZUBI. Dantzarineko BENTA PEIOn saltzaileak eta zerbitzariak behar dituzte. Lanaldi osoan aritzeko edo asteburuetan lan egiteko. Frantsesa jakitea beharrezkoa da.

Bidali curriculumak: travillezavecnous@ventapeio.com.

LUZAIDE. Luzaideko BENTA PEIOn saltzaileak eta zerbitzariak behar dituzte. Lanaldi osoan aritzeko edo asteburuetan lan egiteko. Frantsesa jakitea beharrezkoa. Curriculumak: travillezavecnous@ventapeio.com.

BERA. Lizuniagako ostatu-jatetxean sukaldari laguntzailea eta zerbitzari laguntzailea behar dituzte. Idatzi Whatsapez. ☎657 47 20 24.

ARIZKUN. Berro Bide enpresan soldatzaile bat behar dute. ☎690 94 18 01. info@berrobide.com.

BERA. Ansoeoa ostatu-jatetxean zerbitzaria behar dute egun osoko lanaldian aritzeko. ☎649 33 77 23.

Astean behin etxeko garbiketa lanetan laguntzeko pertsona baten bila ari dira. ☎659 73 96 77.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,39 €
- 1.koa 5,27 €
- 2.koa 5,15 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,50 €
- 1.koa 5,25 €
- 2.koa 5,08 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiakiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 150,00 €
- Idixkoak 210,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 50,00 €
- Idixkoak 90,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,49/5,59 €
- Zaldi-behorrak 2,52/2,69€

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,00/8,10 €
- 8-10 kilokoak: 8,10/8,80 €

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 89 €

Zerri gizona 1,800 €

Zerramak 0,950€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua apirilaren 26tik maiatzaren 3ra bitarteko prezioak)

ELIZONDO. Bidaide fisioterapia zentroan fisioterapeuta behar dute. Lehenbailehen hasteko. Bidali curriculumak: bidaidefisioterapia@gmail.com. ☎636 58 30 34.

Txoferra behar da kamioia gidatzeko. Gidabaimena C+E, trailerra lona rekin. Deitu edo idatzi. ☎608 41 53 32. bihotz_alfonso@hotmail.com.

ANIMALIAK

SALGAI

BERA. Border Collie arrazako zakurkumeak salgai. ☎678 33 53 01.

3 ahari salgai: urtebetekoa, bi urtekoa eta sei urtekoa. ☎659 08 14 22.

OPARITZEKO



ETXALAR. Zakur bat, 5 urtekoa eta bizi-bizia, opari. ☎627 01 98 26.

DENETARIK

SALEROSKETAK



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.



E-bike salgai. Focus Jam2 6.8. M neurria. Bosch motorra 650w, 85 nm. 2.250 km. Berrikusia, kate berria. 3.000 euro. ☎618 41 11 14.



Haurrentzako osagarriak salgai. ☎677 65 33 84.

GALDU-AURKITUAK



BERA. Aitzateko Plazan bizikleta agertu da. Berako Herriko Etxean dago.



Etxahun Olaetxea Zatok maiatzaren 2an 14 urte bete ditu. Zorionak Lesakako eta Berako familiaren partez, eta muxu haundi bat amatxi Mikeliren partez.



Olaia Azkune Irazoki dantzari polit honek 9 urte bete ditu maiatzaren 14an. Zorionak eta muxu pottolo bat familiaren partetik!!!



Ane Riopedre Cuberok 4 urte bete ditu maiatzaren 1ean. Auniz urtez polita! Muxu bat atta, ama eta Kenai anaiaren partez.



Etxalarko **Aiora Marin Berruetak** 4 urte bete ditu apirilaren 29an. Zorionak eta besarkada bat etxekeon partez!

GANIX
Tasak
948 63 06 69
Zalain Pol., 11 - BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

ARANTZA ZURGINDEGIA
Klase guzietako zurgin lanak.
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
Joxe Miguel Errandonea - ARANTZA
647 810 144 - 626 093 181

KULTURKARI
Diseinu grafikoak | Publizitatea
www.kulturkari.com

Panelak
Aluminioa, PVC edo metakrilatoa
Neurrira eginak, formekin moztuak, formatu handiak, iraunkorrak...

MÁRMOLES AMEZTI
Desde 1994

SUKALDEKO ETA KOMUNEKO ENTZIMERAK EGITEN DITUGU

info@marmolesamezti.com - www.marmolesamezti.com

Iruñea Iruñe errepidea, 2/g.
ORNOZ-MUGAIRI T. (+34) 948 592 325
F. (+34) 948 592 295

DONEZTEBEKO AVIA GASOLINDEGIA

Club AVIA

CLUB AVIA txartelarekin
%2ko deskontua erregaian
eta %5eko deskontua
dendako produktuetan

Leitza bidea, 49 - T. 948 451 679 - www.doneztebe.net

Herencias y Gestión

Zer da testamentua?
Egintza honen bidez pertsona batek, hil ondotik, bere ondasun guztiekin edo batzuekin zer egin nahi duen zehaztuko du.
Testamentu bat baliozkoa izateko, ez da beharrezkoa interesdunek (oinordekoek, legatu hartzaileek eta abarrek) adostasuna aurkeztea, ez eta testamentuaren berri izatea ere.
Testamentugileak legeak aurreikusitako formetako batean agertu behar du zelan den bere borondatea eta aukeratutako bidearen arabera testamentu mota bat sortuko da. Are gehiago, testamentua ez bada legeak aurreikusitako forma horietako batean egiten, ez luke eraginkortasunik izanen.
Legeak debekua ezartzen ez dion edonork egin dezake testamentua, baita adingabeek ere.

Zer abantaila ditu testamentua egiteak?
Herentziaren tramitazioa errazten du. Horrek berekin dakar ondasunak oinordekoei lasterrago esleitzea.
Ez da gatazkarik sortzen oinordekoen artean; izan ere, testamentugileak ondasunak bana ditzake oinordekoen interesak edo beharrak kontuan hartuta, eta, aurreikusten ahal da zer gertatuko den norbait hiltzen bada, bertzeak bertze.

Santiago 55, ELIZONDO 948 59 67 11 - 610 40 18 36
www.herenciasygestion.com • herenciasgestion@gmail.com

OROIGARRIA

Aita zuretzat doa:

Senar, aita ta aitaxi
goxoen goxoetan
hain umoretsua, beti
irriparra ezpainetan
langilea, beti horixe
zeregin bat eskuetan
noiznahi laguntzeko gertu
pertsone onak benetan

maitakorra ta maitea
jolasean ta hizketan
zure bihotza eskaini
diguzu hainbat urtetan...
Jakin, maite zaitugula
esna eta ametsetan
eta bizirik zaudela
etxekoan bihotzetan.

URTEURRENA

Carmen
TELLETXEA ELIZONDO

Igantzin, 2023ko maiatzaren 1ean
I. URTEURRENA

*Jada presente ez zauden arren
zure maitasunak gudan irauten du,
gure arima sakonean
oroitzapenak gordetzen dira oraindik,
zauden lekuan zaudela
gidatzen gaituen itsasargi bat bezala zara
etorkizun zoriotsu baterantz.*



ZURE FAMILIA

HILBERRIAK

- **Jose Antonio Elizalde Sanzberro**, Etxalarkoa, apirilaren 24an, 83 urte zituela.
- **Miguel Juanotena Aldaia**, Doneztebekoa, apirilaren 25ean, 78 urte zituela.
- **Vicente Arozena Biurrarena**, Arantzakoa, apirilaren 30ean, 87 urte zituela.
- **Jose Fco. Telletxea Martiarena**, Lesakakoa, maiatzaren 2an, 86 urte zituela.
- **Evarista Telletxea Tapia**, Lesakakoa, maiatzaren 3an, 90 urte zituela.
- **Pedro Burlada Matxikote**, Elizondokoa, maiatzaren 6an, 88 urte zituela.
- **Juliana Etxeberria Telletxea**, Lesakakoa, maiatzaren 6an, 100 urte zituela.

Baztan Bidasoa | Ehorzketak



BAZTAN
ELIZONDO · Santiago Kalea, 79
MALERREKA · DONEZTEBE
Mourgues etorbidea, 24

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere.

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

Oroigarriak

- Personalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira



KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea
www.kulturkari.com
Tel. 948 63 54 58

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA


ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 | **948 63 74 04 / 948 19 70 70**
www.tanatoriosirache.es



HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUI, A TU LADO

Gure lurra,
gure jendea,
gure sustraiaik



TANATORIOAK
■ ELIZONDO ■ BERA ■ DONEZTEBE
■ ARANTZA ■ IGANTZI

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

KONTATU KONTUAK



LEIRE MITXELENA

Arantxa Urretabizkaia Arantzan. Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen ekimenez, Literatura Geraldia egin zuten apirilaren 24an Arantzan. Arantxa Urretabizkaia idazlea *Azken etxea* bere nobelari buruz aritu zen. Geraldiaaren helburua euskaraz leitzeko ohitura eta zaletasuna zabaltzea da, baita herritarren euskarazko kultur kontsumoa eta euskal liburugintza indartzea ere.



DABID AZURZA

Iruñeko Orfeoiaren eta Leitzako Jeiki abesbatzaren emanaldi dotorea. Leitzako Jeiki abesbatzaren 50. urteurreneko ospakizunen baitan, Iruñeko Orfeoiarekin kontzertua egin zuten maiatzaren 4an. Eliza jendez bete zen eta ikusleek gozatu ederra hartu zuten eskaini zuten errepertorio zabalerakin. Emanaldi ederra izan zen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Jende aunitz Beran Uxane egoitzako kideen antzerkian. Berako Uxane egoitzako egoiliarrek aktore trebeak direla erakutsi zuten berriz ere apirilaren 26an. *Hamelin y Aladdin, dos cuentos de trampolin* antzerkia egin zuten Berako Kultur Etxean. Jende aunitz bildu zen antzerkia ikustera eta ikusleak zein aktoreak hagitz kontent gelditu ziren emanaldiarekin.



ARANTZA AGIRRE

Liburu aurkezpena Beran. Berako Igone liburu dendak bertze liburu aurkezpen bat antolatu zuen maiatzaren 3an. Rosa Diez-Urrestarazu idazle eta kazetaria gonbidatu zuen eta *Deja de escribir al tiempo* bere azken nobela aurkeztu zuen. Jende dezente hurbildu zen hitzordura eta bildutakoek idazlearen sinadura biltzeko probestu zuten.



CEDERNA GARALUR

Mendialdeko Elikagaien Katalogoa prest. Mendialdeko ekoizleei buruzko informazioa bilduz, Mendialdeko Elikagaien Katalogoa aurkeztu dute. Mendialdeko hamar udalek eta Cederna Garalur Elkarteak 2019an Mendialdeko elikadura proiektua lantzen hastea hitzartu zuten, elikadura osasuntsua eta jasangarria sustatzeko helburuarekin. Horren emaitzetako bat da katalogoa.



EAJ-PNV

Bizente Arozena zendu da. Apirilaren 30ean hil zen Bizente Arozena Biurrarena arantzarra, 87 urte zituela. EAJ-PNV alderdiko kide historikoa izan zen, Napar Buru Batzarreko presidentea 1987tik eta 1992ra. Arantzako Herriko Etxean ere ibili zen: 1979tik 1983ra eta 2003tik eta 2007ra alkate izan zen eta zinegotzi ere aritu zen.

PLAZAN BAZAN

ZORIONAK

Urtebetetzeetan abesten dugun kantu ezaguna Kaxianorena da, eta leloa buruz dakizu:

Zorionak zure urtebetetzean, zorionak ta urte askotarako, zorionak belarritik tiratzean, zorionak ta musu bat zuretzako.

Eman inudifo bakoitzari bere hizkia eta abestiaren lehen ahapaldia azalduko zaizu. Horretarako, erabili beheko alfabetoa.

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA



ZORIONAK! MAREN DANBORIENA ULAZIA

853. aldizkariko irabazlea zara!



Marrakizak: Garbifis Ubeda (Aurrer)

Plazan bazan egiteak BADU SARIA!

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin,
Ttipi-Ttapa-ko Whatsapera: (0034) 774 48 43 61
zure izen-abizenak jarrita.
Ondoan duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!



Loguntzailerak:

ibaizabal



ASKARI OPAROA

Hau da urtebetetze festa operoal. Hemen gauza asko dago jatekol. Irudi honen eta alboko bere islaren artean dauden aldeak aurkitu behar dituzu. Hamaika dira guztira.



LABIRINTOA

Zenbat urte bete ditu Pelozirik?



INTERNETEN ERE BAI!

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

<http://plazanbazan.eus/>

Ttipi Txartelaarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

-%80 ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipi.eus/ttipe-txartela

853 zenbakiko irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Juanito Berasategi Zabaleta | LEITZA

Bua Txabal - Katilu bat
Felipe Etxeberria Mitxelena | ARANTZA

Ez Kexa - Kamiseta bat
Francisco Zelaieta | OROÑOZ-MUGAIRI

Irrisarri land - Sarrera bat
Ignacio Urroz Grajirena | URROZ

Bidasoil - 30 Cko opari txartela
Silvia Crespo Errandona | BERA

Wow park - Sarrera bat
Ixiar Irazoki Goienetxe | ZUGARRAMURDI

Zugarramurdiko lezeak - Sarrera bat
Manolo Sanz Ganboa | IRUÑEA

Lirain - Jertse bat
Jose Luis Mariezkurrena | EZKURRA

Baga-Biga - Hiru CD
Jose Martin Iturralde | AZPILKUETA

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com



Bi sarrera

ONDOO TA PUNTO
www.ondootapunto.com



Kamiseta bat

HARA BI
www.harabi.eus



Kamiseta bat

BKZ ABENTURA
www.navantaventura.com



Sarrera bat

SALTING IRUÑEA
www.saltingcenters.com



Bi sarrera

LA RHUNE
www.rhune.com



Sarrera bat

FAGOA
www.fagoa.eus



Bi pertsonendako bizikleta itzulua

AMA-UR
Karrika nagusia, 1 - AMAUR



Garagardo lote bat

Sartu

ttipi.eus/ttipe-txartela

webgunean
eta ikusi
abantaila guztiak!

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ELKARRIZKETAK
LAGUNTZAILEAK
ARGITALETAK



Aprobetxa itzazu Ttipe Txartelak eskaintzen dizkizun abantailak, Ttipe Txartela onartzen duten denda eta zerbitzuetan erosiz.

LIBURUAK

Lau liburu



Deskontuak eta zozketa: Ttipe-Ttapa aldizkari guztietan Ttipe Txartelaren informazioa argitaratzen da, zozketa eskainiz eta aukeran dituzun deskontuak oroitaraziz!

ibaizabal
www.ibaizabal.com